

# Pertsona fisikoentzako kontratu orokorra

Dokumentu honen eta hasierako formularioaren bidez, sinatzailearen edo sinatzaileen eta Triodos Banken arteko kontratuzko harremana arautzen da.

# aurkibidea

## Baldintza orokorrak

### **1 ATALA**

**BALDINTZA OROKORRAK**

pág. 04

### **2 ATALA**

**URRUNEKO BANKA-ZERBITZUAK**

pág. 31

### **3 ATALA**

**ORDAINKETA-ZERBITZUEN LEGEAN JASOTZEN DIREN  
KONTRATU OROKORREI ETA PRODUKTU-KONTRATUEI  
APLIKATZEN ZAIEN ESPARRU-KONTRATUA**

pág. 36

# Eranskinak: Produktu eta zerbitzuen baldintza partikularrak

## **A ERANSKINA**

CUENTA CORRIENTE TRIODOS

pág. 52

## **B ERANSKINA**

CUENTA TRIODOS

pág. 58

## **D ERANSKINA**

CUENTA INFANTIL TRIODOS

pág. 63

## **E ERANSKINA**

CUENTA VIVIENDA TRIODOS

pág. 67

## **F ERANSKINA**

CUENTA NUEVA EMPRESA TRIODOS

pág. 72

## **G ERANSKINA**

DEPÓSITO TRIODOS

pág. 76

## **J ERANSKINA**

TARJETA DÉBITO TRIODOS

pág. 79

## **K ERANSKINA**

TARJETA CRÉDITO TRIODOS

pág. 91

## **L ERANSKINA**

CUENTA PLAN

pág. 107

# // 1 atala

## Baldintza orokorrak

### 1. KONTRATUAREN XEDEA, INDARREAN SARTZEA

#### 1.1. Triodos Bank NV Sucursal en Españari buruzko informazioa

Triodos Bank NV Sucursal en España (aurrerantzean, Triodos Bank NV SE edo Bankua), zeinaren IFZ W-0032597-G baita eta helbidea C/José Echegaray, nº 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28230 Las Rozas (Madril), Madrigo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago (18.314 liburukia, 0 liburua, 150. folioa, 8. atala, M-317563 orria, 1. idazkuna), eta Espainiako Bankuaren administrazio-erregistro berezian (Banku Erregistroan) 1.491 zenbakia du.

Triodos Bank NV SE holandar nazionalitateko Triodos Bank NV sozietate anonimoaren Espainiako sukurtsala da. Triodos Bank NV kreditu-erakunde bat da, helbide soziala Nieuweroordweg 1, PP Box 55, 3700 AB Zeist (Herbehereak) duena. Herbehereetako Banku Zentralean baimenduta eta erregistratuta dago, eta Utrechtoko Merkataritza Ganberan 30062415 zenbakiarekin inskribatuta.

Espainiako Bankuak (Calle Alcalá,

48, 28014 Madrid) —likideziaren eta gardentasunaren arloan—, Balioen Merkatuko Espainiako Agentziak ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta Herbehereetako Banku Zentralak ikuskatzen dute Triodos Bank NV SEren jarduna.

Erantzukizuna duen gordailuen berme sistema Herbehereetako Gordailuen Berme Funtsa da, lege xedapenez sortua. Sistema horren kudeatzailea De Nederlandsche Bank N.V. (DNB) da; Postbus 98, 1000 AB Amsterdam; helbidea: Westeinde 1, 1017 ZN Amsterdam; telefonoa (astegunetako ordutegia: 9:00 – 17:00): Herbehereetatik: 0800-0201068, atzeritik: + 31 20 524 91 11; helbide elektronikoa: [dgs@dnb.nl](mailto:dgs@dnb.nl); webgunea: <http://www.dnb.nl>, atala: Depositogarantiestelsel (gordailuen berme sistema). Hor dago eskuragarri informazio gehigarria, bai eta [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean ere.

Akzioen Gordailu Ziurtagiriak (AGZ) ez daude Gordailuen Berme Funts horren bidez estalita.

#### 1.2. Xedea

Baldintza orokor hauen bidez, eta kontratu orokor honen (aurrerantzean, «Kontratua») eranskinetan jasotako

produktu eta zerbitzuen baldintza partikularren (aurrerantzean, «baldintza partikularrak») bidez, Bezeroaren eta Triodos Bank NV SEren arteko harreman juridikoa arautzen da, eta, halaber, Triodos Bankek unean-unean jartzen dituen bitartekoak edo kontratazio-kanalak erabiliz (telefono bidezko banka, Internet bidezko banka, paperezko posta, bulegoetara joatea...) bere bezeroei eskaintzen dizkien produktu eta zerbitzuen baldintzak arautzen dira.

Era berean, baldintza orokor hauetan araututa daude Bezeroaren eta Bankuaren artean eragiketak, kontsultak eta komunikazioak egiteko formulak. Beberbat, Bezeroaren eta Triodos Bank NV SEren arteko harremanetan aplikatze-koak dira Triodos Bank NV SEren tarifa, komisio eta gastu jasanarazien liburua (aurrerantzean, Tarifa Liburua) eta iragarki-taula; horiek, kontratu honetan ezarritakoari jarraituz eguneratu ahalko dira.

Aipaturiko dokumentazioa eta kontratu hau eta haren eranskinak Triodos Bank NV SEren webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) eta Bankuko bulegoetan eskura daitezke, euskarri iraunkor artxibagarri eta inprimagarrian. Bezeroak ziurtatzen du eskuragarri izan dituela garaiz eta kontratua gauzatu baino lehenago, eta badituela Internet bidez webera sartzeko baliabideak. Orobat, onartzen du eskuragarri izan duela Bankuak eskainitako produktu edo zerbitzuei buruzko kontratuaurreko informazio guztia, eta garaiz jaso dituela horiei buruzko azalpen egokiak.

Kontratu hau onartzean, Bezeroak ahalmena du produktu eta zerbitzuak kontratatzeko, eragiketak agintzeko, aginduak emateko, eta kontratatutako

produktu edo zerbitzuei buruzko informazioa jasotzeko. Horretan guztian, Triodos Bank NV SEk une bakoitzean jartzen dituen bitartekoak edo kontratazio-kanalak (telefono bidezko banka, Internet bidezko banka, paperezko posta, bankuko bulegoetara joatea, eta abar) erabiliko dira. Jarduera horiek egiteko, Triodos Bank NV SEk adierazitako identifikazio-mekanismoak eta kode-sistema erabili behar ditu. Urrutiko eragiketak egiteko arauak kontratu honen II. atalean jasotzen dira («Urrutiko Banka Zerbitzua»).

Bezero titularrak edo titularkideetako nahiz esku-hartzaileetako batek bere negozio-jardueraren eremuan (enpresakoa edo profesionala) jarduten badu, gainerako titularkideek ere eremu horretan dihardutela joko da. Negozio-eremuan (enpresakoa edo profesionala) jarduten den kasu horietan, titular-kideak edo esku-hartzaileak ez dira kontsumitzailetzat hartuko, Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Defentsarako Lege Orokorreko testu bategineko 3. artikuluan eta hura garatzeko gainerako arauetan ezarritakoaren ondorioetarako. Horrenbestez, titularra —edo titularkideetako edo esku-hartzaileetako edozein, bat baino gehiago badira— kontsumitzailea edo erabiltzailea ez denez, ez dira aplikagarri izango, Bankuaren eta haien arteko harremanean, kontratu honetako III. ataleko (ordainketa-zerbitzuei buruzko arauena) 36. klausulatik 39.era bitartekoak, ez eta ordainketa-zerbitzuei buruz 2009ko azaroaren 13an onartutako 16/2009 Legeko (aurrerantzean, OZL ere deitua) III. titulua eta 24.1, 25.1 (lehen paragrafoko azken tartekia), 30, 32, 33, 34, 37 eta 45 artikulua eta horien garapenak ere.

Era berean, alderdiek hitzartzen dute

kasu horretan ez aplikatzea 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 Agindua (ordainketa-zerbitzuei aplikagarri zaizkien baldintzen eta informazio-betekizunen gardentasunari buruzkoa), ez eta ondoren adibidetzat (eta ez zerrrenda itxizat) aipatzen diren arauak ere: 16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa, kontsumorako kredituen kontratuei buruzkoa; 22/2007 Legea, 2007ko uztailaren 11koa, kontsumitzaileentzako finantza-zerbitzuak urrutitik merkatuaratzeari buruzkoa; Espainiako Bankuak kreditu-erakundeei eta ordainketa-zerbitzuen hornitzaileei igorritako 5/2012 Zirkularra, 2012ko ekainaren 27koa, banku-zerbitzuen gardentasunari eta maileguak ematean hartutako erantzukizunari buruzkoa; eta EHA/2899/2011 Agindua, 2011ko urriaren 28koa, banku-zerbitzuen bezeroaren babesari eta gardentasunari buruzkoa; salbu eta kontratu honetan alderdi zehatzen baterako berariaz kontrakoa adierazten bada.

Bankuko produktu guztien eragiketak eurotan egiten dira. Eurotzat hartzen da Espainian erabilera legalekoa den dirua, Espainia Europar Batasuneko Ekonomia eta Diru Batasuneko kide denez.

### **1.3. Baldintza partikular eta berezien lehentasuna**

Desadostasunak izanez gero, baldintza partikularrek lehentasuna izango dute baldintza orokorren aurrean. Halaber, Bezeroak eta bankuak beste baldintza batzuk hitzartu ahal izango dituzte, Bankuak eskainitako eragiketa bereziei edo zerbitzuei aplikatzeko. Baldintza orokor horiek edozein baldintza berezirekin gatazkan baldin badaude, aipaturiko baldintza bereziek izango dute lehentasuna.

### **1.4. Kontratua indarrean sartzeta eta aldaketak**

Kontratu hau eta Bezeroaren eta Triodos Bank NV SEren arteko negozio-harremana indarrean sartzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- a) Triodos Banken bulegoek dokumentu hauek jaso behar dituzte:
  - Hasierako formularioa edo kontratua, ondo beteta eta sinatuta.
  - DNI/NIF-Fotokopia edo Bezeroaren indarreko NIE-a (Haurren Kontua kontratatzeke adingabeei ere aplikatzeko moduko eskakizuna), nahiz eta DNI bateko titularrak izateko legezko betebeharra ez izan.
  - Bankuak arrazoizko eran eskatutako beste edozein dokumentu, kapital-zuriketaren prebentzioari, terrorismoaren finantzaketari edo aplikatzeko den beste edozein araudiri (zergetakoa nahiz bestelakoa) buruz indarrean dagoen araudia betetzeko.

Helburu horietarako, eta kapital-zuriketa prebenitzeari eta terrorismoaren finantzaketari buruzko araudiarekin ados, Bezeroak konpromisoa hartzen du Bankuak bere nortasuna, diru-sarreraren iturria edo jarduera profesionala edo negozio-jarduera egiaztatzeke eskatutako informazioa edo dokumentazioa emateko. Berebat, Bezeroak baimena ematen dio Bankuari, haren izenean, edozein erakunde publiko edo pribaturi haren nortasuna edo enpresa- edo negozio-jarduera egiaztatzeke informazioa edo dokumentazioa eskatu ahal izateko.

- b) Bezeroa identifikatzeko prozesuak Triodos Banken segurtasun-prozedu-

rak gainditu behar ditu.

Bankuak kontratazio-prozesua edo noiz bertan behera utzi ahal izango du, baldin eta, identifikazio-prozesuan gorabeherak sortzen badira, eta haiek ez badira konpontzen, edo, hilabete bateko (1) epean, Triodos Banken prozedurek dakartzaten dokumentu-, informazio- nahiz segurtasun-eskakizunak eta indarrean dagoen araudiaren eskakizunak ez badira betetzen.

Kontratu honen iraupena mugagabea da, eta indarrean jarraitzen du Triodos Bankek aldatzen ez duen bitartean edo, hala egokituz gero, kontratu honetako hamalagarren klausulan ezarritakoari jarraituz ezeztatzen ez den bitartean.

Indarrean den araudiak aurrez abisatzeko beste epe bat ezarri ezean, Bankuak kontratu hau aldatu ahal du eta aldaketaren berri jakinaraziko du bezero bakoitzari komunikazio bat bidaliz, paperean edo bestelako euskarri iraunkor batean, aldaketa indarrean sartu baino gutxienez hilabete lehenago. Banakako komunikazio hori egin ordez, posible denean, aplikagarri den araudiari jarraituz, posible izango da aldaketak edo kontratuaren testu berria Bankuaren webgunean argitaratzea eta aldaketen erreferentzia iragarki-taulan jartzea, aldaketa indarrean sartu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago. Hala eta guztiz ere, ordainketa-zerbitzuei buruzko aldaketak III. atalean adierazitako aurrerapenarekin jakinarazi behar dira. Bezeroarentzako hobekuntzak dakartzatenak, berriz, berehala sartuko dira indarrean.

Bezeroak kontratuaren aldaketak edo kontratatutako produktu edo zerbitzuen aldaketak onartzen ez baditu, kontratua, produktua nahiz zerbitzua desegin ahal izango du, inongo kosturik gabe. Aurreko paragrafoan aipaturiko epeetan Bezeroak kontratua desegiteko nahia adierazten ez badu, ulertuko da Bezeroak baldintza berriak onartzen dituela.

Tarifa Liburua eta Iragarki Taula, berriz, kontratu honetako baldintza orokorretako 4. atalean eta indarrean den araudian adierazitakoari jarraituz aldatuko dira; eta Bezeroari komunikatuko zaizkio, indarrean den araudiari jarraikiz jakinarazpen hori egin beharrekoa denean.

## 2. TRIODOS KONTU KORRONTEA

Triodos Bank NV SEren eta Bezeroaren arteko harremanak errazago egiteko, Bezeroak Triodos kontu korronte baten titular izan behar du. Kontu korrontea beharrezkoa da ordainketa- eta helbideratze-eragiketa jakin batzuk egiteko, edo produktu eta zerbitzu gehigarriak kontratatzeke. Baldintza orokor hauen gainera, A eranskineko Triodos kontu korrontearen baldintza partikularren bidez arautzen da Triodos kontu korrontea. Dena den, kontu korrontea edukitzeko eskakizunik ez duten produktuak kontratatu nahi izanez gero, ez da beharrezkoa, produktu hori kontratatzean edo kontratatu baino lehen, Triodos kontu korronte bat ere irekitzea.

Triodos Kontu Korronteko eragiketak eurotan egingo dira. Eurotzat hartzen da Espainian erabilera legalekoa den dirua, Espainia Europar Batasuneko Ekonomia

eta Diru Batasuneko kide denez.

### **3. BEZEROAREN SAILKAPENA, INBERTSIO-PRODUKTUAK MERKATURATZEARI DAGOKIONEZ**

Lehenespenez, eta besterik dioen komunikazio idatzirik ezean, Triodos Bank NV SEk txikizkako bezeroen kategoriari dagozkion babesa eta eskubideak ematen dizkie bere bezeroei, produktuetan eta inbertsio-zerbitzuetan, Finantza Tresnen Merkatuei buruzko Europako Zuzentarauaren arabera (2004/39/EE) eta hari dagokion espainiar araudiaren arabera (2007ko abenduaren 19ko 47/2007 Legea, zeinaren bidez Balioen Merkatuari buruzko 1988ko uztailaren 28ko Legea eta inbertsio-zerbitzuetako enpresen eta inbertsio-zerbitzuak eskaintzen dituzten gainerako entitateen araubide juridikoari buruzko 2008ko otsailaren 15eko 217/2008 Errege Dekretua aldatzen baitira). Nahi izanez gero,

Materiako indarreko araudiaren arabera, Bezeroak eskubidea du aldatetak Bankuak egindako sailkapenean eskatzeko. Hartarako bere eskaera egin behar izango du idatziz eta hornitu datu guztiez edo honi buruz Bankuak eska izan diezaiokeen informazioaz. Behin analizatuta eta egiaztatuta, materiako indarreko araudiarekin Bezeroak egindako eskaera, Bankuak esleitutako sailkapen berria edo bera ukatzea komunikatuko du.

aukera du babes txikiagoa jasotzeko, eta bezero profesional gisa sailkatzeko, Triodos Banki zuzendutako komunikazio fede-emaila bidez. Behin aztertuta eta egiaztatuta, Bezeroak egindako eskaeraren arloan indarrean den araudiarekin, esleitutako sailkapen berria edo haren ukoa jakinaraziko du Bankuak. Bezeroak

bere gain hartzen du emandako informazioa egiazkoa eta zehatza izatearen erantzukizuna, eta informazio horretako edozein zehaztasun edo egitasun ezetatik eratorritako erantzukizun edo kalte orotatik salbuesten du Bankua.

### **4. TARIFA LIBURUA ETA IRAGARKI TAULA**

**4.1.** Interes-tasa nominalei lotuta dauden Triodos Bank NV Sucursal en Españaren produktu eta zerbitzuen baldintzei dagokienez, urteko tasa baliokidea (aurrerantzean, UTB) eta produktuen epe eta ezaugarri funtsezkoak Iragarki Taulan eta produktu bakoitzaren Kontratuareko Informazioko Fitxetan (webgunean argitaratuak) adierazitakoak dira. Produktu eta zerbitzuei aplikatzekoak zaizkien komisioak, gastu jasanarazgarriak eta balioztatze-arauak, berriz, Tarifa Liburuan daude (hori ere Bankuaren webgunean argitaratua).

Hitzartutako interesen sortzapenaren eta ordainketaren aldizkotasuna produktu bakoitzaren Baldintza Partikularretan xedatutakoa izango da. Interesak egunero sortuko dira, baina haien likidazio eta ordainketa, hitzartutakoari jarraituz, hilean behin egingo da aukeran. Produkturen baten Baldintza Partikularrek bestela ezarri ezean, ageriko gordailuetan sortutako interesak kontuan ordaintzea likidazioko aldian sartutako hilaren hurrengo hileko lehen egunean egingo da. Eperako gordailuetan, itun berezirik ezean, sortutako interesen ordainketa gordailuaren epe-mugan egingo da; edo, garaiz aurreko ezeztatzea eginez gero, ezeztatzearen data eraginkorrean. Halakoetan, dagozkion komisioak aplikatuko dira.



Kontratatu produktu edo zerbitzuei dagokienez, postaz, telefonoz edo mezularitza bidez bidaltzearen eta hirugarrenen bidez komunikazioak egitearen gastuak Bezeroari jasanarazi ahal izango zaizkio.

Triodos Banken Tarifa Liburuaren eta Iragarki Taularen ale bana eskura dago Bankuaren webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)), euskarri iraunkor artxibagarri eta inprimagarrian, eta Triodos Bankek Espainian dituen bulegoetan ere eska daitezke.

**4.2.** Triodos Bankek eskumena du interes-tasak, komisioak eta gastu jasanaraziak aldatzeko, Bezeroari aurrez bitarteko hauetako baten bidez jakinarazita:

- a) Aldaketak indarrean sartu baino hilabete bat (1) lehenago banan-banan jakinaraziz.
- b) Aldaketak indarrean sartu baino hilabete bat (1) lehenago tarifa eta tasa berriak Bankuaren webgunean argitaratuz.
- c) Aldaketak indarrean sartu baino hilabete bat (1) lehenago Bankuaren webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) argitaratutakoa iragarki-taulan argitaratuz.

Triodos Banken produktu edo zerbitzuetako interesetan, komisioetan eta gastuetan edo beste baldintzetan egiten diren aldaketak, Bezeroarentzat abantaila baldin badakarte, berehala aplikagarri izango dira.

III. ataleko ordainketa-zerbitzuen tarifa- eta komisio-aldaketak ez dira indarrean sartuko argitaratzen direnetik bi (2) hilabete igaro arte, Bezeroa kontsumitzaile edo erabiltzailet-

zat hartzen bada. Dena den, berehala aplikatu ahal izango dira ordainketa-zerbitzuen erabiltzaileentzat ezbairik gabe onuragarriagoak diren aldaketa guztiak.

## 5. TITULARTASUNA

**5.1.** Pertsona fisikoentzako Triodos Kontratu Orokorra eta haren babesean araututako produktu eta zerbitzuak, zeinak izendunak eta besterenezinak baitira beti, Bezero bat baino gehiagoren titulartasunekoak izan daitezke (kontratu honen ondorioetarako, guztiei batera «Bezeroa» deitzen zaie), baldin eta: (i) guztiak adindunak badira eta Espainian badute bizilekua; edo (ii) guztiak adindunak badira eta Espainian ez badute bizilekua; eta (iii) haien izaerak aukera ematen badu, uanean uneko legezko betekizun aplikagarriak bete eta gero, bereziki atzeritarraren identifikazio-zenbaki bat lortzeari buruzkoak. Egoiliar ez diren titularrek hala direla frogatu beharko dute, kontratu honetako 22. klausulan eta 1816/1991 Errege Dekretuan (1991ko abenduaren 20koa, kanpoarekiko ekonomia-transakzioei buruzkoa) edo gerora hura garatzen, aldatzen edo ordeztzen duen araudian ezarritakoari jarraituz. Bizilekuaz eman duen datuetan edozein aldaketarik izanez gero, Bezeroak berehala komunikatu beharko dio Bankuari. Bezeroak osorik bere gain hartuko ditu komunikazio horren ezak ekarritako edonolako ondorioak, baita zerga arlokoak ere. Triodos Bank N.V. banketxeak ez du bezerorik onartzen bizilekutzat duenik Ameriketako Estatu Batuak (AEB) edo U.S. Securities and Exchange Commission (SEC) erakundearen mendeko AEBen lurraldeak (gaur egun: Puerto Rico, Samoa Estatuba-

tuarra, Iparraldeko Mariana Uharteak, Guam, Birjina Uharte Estatubatuarrak eta Estatu Batuen Uharte Txikiak).

Haur Kontuen kasuan, adingabeko bat izan daiteke titularra, baina haren xedapen-araubidea gurasoetako bati edo bieie esleitu behar zaie (guraso-ahalaren mende dauden adingabeen kasuan), edo haren legezko ordezkariari nahiz ordezkariari, edota haren legezko tutoreari nahiz tutoreei, tutoretzaren mende dauden adingabeen kasuan.

**5.2.** Triodos Kontu Korrontearen edo beste produktu edo zerbitzu baten titularkidetasunaren kasuan, titularkide bakoitzaren xedapen- eta administrazio-araubidearen izaera solidarioa edo bereizigabea dela ulertzen da. Salbuespenez, eta aurrez Bankuak berariaz onartuz gero, mankomunitateko edo xedapen bateratuko berariazko hitzarmenak onartzen dira. Bezero guztiek idatziz formalizatu behar dituzte hitzarmenok, eta Bankuaren prozedura tekniko, operatibo eta segurtasun-prozeduren araberakoak izango dira beti.

**5.3.** Kontu baten titularkide solidarioetako batek produktu edo zerbitzu bat kontratatzen badu, eragiketa hori titularkide guztiek egin dutela ulertzen da, kasu hauetan izan ezik: a) dagokion jarduerari buruzko araudiaren arabera, eragiketa horrek titular bakarra izan behar badu, edo b) titularkide solidarioak berariaz adierazten badu kontratatu nahi den finantza-eragiketa titulartasun bakar eta eskusibo batekoa izan dadila. Kasu horretan, Triodos Bankekin finantza-eragiketa kontratatu zuen Bezero-titularkideari bakarrik esleitu dio eragiketaren titulartasuna. Halaber, titularkide solidario guztiek elkar baimentzen eta ahalduntzen dute haietako

edonork, Bankuaren aurrean, kontratu honetatik edo dagokion produktu edo zerbitzuetatik eratorritako eskubideak erabiltzeko, eta titularkide solidario guztien ordezkari gisa jarduten dute Bankuaren aurrean.

**5.4.** Finantza-produktu edo -zerbitzu baten Titularrak legezko ezgaitasuna badu edo adigabea bada, hartarako izendatutako legezko ordezkari edo tutoreak ordezkatuta jardun beharko du beti. Legezko ordezkariak edo tutoreak edozein finantza-jarduera egin ahal izango du ordeztuaren izenean, eta urrutiko banka-zerbitzuaren gakoak emango zaizkio. Ezgaituak jarduteko gaitasuna berreskuratzen badu edo adingabea adinez nagusi egiten bada, legezko ordezkariak kontratatutako produktu edo zerbitzuak eta urrutiko banka-zerbitzuaren gakoak blokeatu egingo dira. Titularrak kontratatutako produktu edo zerbitzuen egoera erregularizatu —kontratu hau formalki onartuz—, haren sinadura egiaztatu eta urrutiko banka-zerbitzuaren gakoak jaso arte.

**5.5.** Triodos Kontu Korrontearen edo edozein produktu edo zerbitzuren titularkide guztiek berariaz onartzen dute Triodos Banken aurrean solidarioki erantzungo dutela, titularkide guztiek eta haietako bakoitzak egindako jarduerengatik eta kontratu honetatik eratorritako obligazio guztiengatik —etorkizunean kontratatzen diren produktu edo zerbitzuenak barne—, eta berariaz onartzen dute Triodos Kontu Korrontean edo beste produktuetan edozein kontzepturi dagozkion zordunketa eta abonua aplikatzea —ordainagiri, helbideratze eta abonuei dagozkienak barne—, haiek titularkide baten edo batzuen izenean egon arren eta eragiketa haietako edonork agintzen duela.

Baldin titularkide batek alde baka-  
rretik adierazten badu bere asmoa  
dela halakotzat ez agertzea produktu  
kontratatuan, Bankuak eskaera hori  
onartu ahalko du, nolaz eta eskaera  
horri erantzutea eragozten duen bidezko  
arrazoien bat gertatzen ez den (bidezko  
arrazoien adibideak: baldintza orokor  
hauek edo kontratatutako produktuaren  
baldintza partikularrak ez betetzea;  
zorpeko bat izatea, ordaintzeke dauden  
zorrak izatea, edo kitatu ez diren eta  
mantentze aldera baja eskatu duen  
pertsonearen Kontu baten titulartasuna  
eskatzen duten beste produktu lotu bat-  
zuk izatea). Kontratutako produktuan  
titularkide izateari utzi nahi dion titular-  
kideak bere gain hartzen du gainerako  
titularkideei gorabehera horren berri  
ematea eta Bankuaren aurrean frogat-  
zea, hala eskatzen bazaio.

**5.6.** Kontratutako produktu eta zer-  
bitzuak ezerezten direnean, kontratu  
hau desegiten denean edo bezeroei eta  
haiek baimendutakoei ahalmenak eman  
edo aldatzen zaizkienean, ahalmenoi  
uko egiten zaienean edo ezeztatzen  
direnean, eta komunikazioetarako  
helbide-aldaketa bezeroek eskatuta  
formalizatzen denean, bezero titularkide  
guztien ezberrik gabeko adostasuna  
eskatuko da. Adostasun hori Bankuari  
jakinarazi behar zaio, jaso izanaren  
adierazpena duen gutun baten bidez  
edo Bankuak jaso izana egiaztatzen  
duen beste edozein bitartekoren bidez.

**5.7.** Bezero titular bakarra edo bezero  
titularkideetako bat hiltzen denean,  
araua aplikatuz datozen betebeharrak  
fiskal, zibil eta merkataritza-betebeha-  
rrak bete izana egiazta dadin eskatuko  
du Bankuak. Berebat, titularkideek  
Bankuari jakinarazi behar dizkiote  
haietako edonoren jarduteko gaitasunak

izan ditzakeen murrizketak.

a) Bezero titular bakarra hiltzen  
denean, haren Kontua edo finantza-  
produktu edo -zerbitzua blokeatu  
egingo da, zuhurtziagatik, Bankuari  
bere eskubidedunen egoera egiazta-  
tu eta dagozkien zergak likidatu arte.

b) Emandako baimen eta ahalordet-  
zeak ezeztatutak joko dira Titular  
bakarra hiltzen denean.

c) Hildakoa titulartasun manko-  
munatu edo solidarioko kontu edo  
produktuen titularkide bada, hildako  
titularkideari dagokion kontu edo  
produktuko saldo proportzionala  
blokeatuta eduki ahal izango zaio,  
Bankuari bere eskubidedunen  
egoera egiaztatu eta dagozkien zer-  
gak likidatu arte.

d) Kontu edo finantza-produktu edo  
-zerbitzu baten titularkide solidarioa  
hiltzen denean, Titularren arteko  
solidaritatega mantendu egiten da  
funtzen erabileran, Bankuaren au-  
rrean dagozkien betebeharrak zibil eta  
fiskalak betetzen dituztela egiaztat-  
zeko duten betebeharra gorabehera.

**5.8.** Triodos Banken ezaugarri bereziak  
kontuan izanik —jatorritik gizartearen  
eta planetaren aldaketa positiboa eta  
iraunkorra bultzatzea baitu helburu,  
pertsonek finantza-sisteman duten  
jardueraren bidez haien bizi-kalitatea  
hobetuz, eta dirua arduraz erabil dadin  
bultzatzea—, Bankuaren irizpideen  
aurkako jarduerak egiten dituzten  
enpresa edo pertsonekin inbertsioak  
egitea eta negozio-harremanak izatea  
baztertzen du. Irizpide baztertzaila  
horiek jendearen eskura daude Bankua-  
ren webgunean. Bezeroak aitortzen du  
politika horien berri duela eta onartzen

dituela. Hargatik, Bezero potentzialak Bankuaren filosofiaren eta etikaren aurkako jarduerak egiten dituela egiaztatzen bada, Bankuak berariazko eskubidea du enpresa edo pertsona horiekin negozio-harremanak hasteari uko egiteko.

**5.9.** Finantza-produktu edo -zerbitzu batzuen Bezero titular eta kontratu honetako alderdi izateko, Bankuak kasu bakoitzean ezarritako identifikazio- eta segurtasun-prozesuak gainditu beharko dira. Urrutiko kontratazioa erabiliz gero, Bezeroaren lehenengo diru-sarrerak Espainiako kreditu-erakunde batean irekita dagoen eta haren titulartasuneko den banku-kontu batekoa izan behar du. Lehenengo diru-sarrera hori zordunketa helbideratu bidez egiten bada, Bezeroak ezingo du sartutako diru-kopurua erabili indarrean dagoen legeriak kopuru hori itzultzeko edo baliogabetzeko ezarritako epeak igaro arte. Identifikaziorako, eta beharrezko den kasuetarako, lehen produktutzat Triodos Kontu bat kontratatzen duten eta indarrean den legedian ezarritako bitarteko edozein erabiliz aurrez aurre identifikatu ez diren bezero berriak direnean, Bezeroak Triodos Banki baimena ematen dio, «banketxeen artean kontuen titulartasunari buruzko datu-baieztapeneko eskaera» delako prozedura erabil dadin; horren bitartez, Bankuak beste erakunde bati eskatu ahalko dio haren titulartasunari buruzko datuak baieztatzeko, egiaztatuta lehenengo diru-sarrera Bezero beraren titulartasuna duen kontu batetik datorela. Orobat, identifikazio-ondorio horietarako beretarako, Bankuak bezeroari eskatu ahalko dio, onartu baino lehen, aurreneko diru-sarreraren sorburu izan zen kreditu-erakundeko kontuan titulartasuna egiaztatzen duen doku-

mentazioa. Dokumentazio hori askitzat jo beharko du Bankuak.

## 6. PERTSONA BAIMENDUAK IZENDATZEA

**6.1.** Bezeroak baimena eman dezake hirugarren pertsona fisikoek haren izenean eta hura ordeztuz kontsultak egin eta funtsak erabil ditzaten, Bezeroak Triodos Bankekin kontratatutako produktu edo zerbitzuetako bakoitzaren kontura. Hartarako, Triodos Kontu Korrontearen edo beste produktu baten bezero titularrek eta pertsona baimenduak edo baimenduek Triodos Kontu Korronteari eta handik eratorritako produktu eta zerbitzu guztiei dagokien dokumentua sinatu behar dute. Triodos Bankek nahi adina dokumentazio eskatu ahal izango du pertsona baimenduak identifikatzeko, indarrean den legeria, Bankuaren segurtasun- nahiz identifikazio-eskakizun eta –prozedurak, eta kontratu honetako xedapenak kontuan izanik, eta jarduteko gaitasuna ukatzera irits daiteke, xedapen horien arabera, behar bezala identifikatuta ez dauden pertsona baimenduei.

**6.2.** Baimena ematen duten Bezeroek bere gain hartzen dituzte, berariaz, baimendunek kontratatutako produktu edo zerbitzuen kontura egiten dituzten eta baimenari dagozkion jarduera guztiak, baita eragiketa horietatik eratorritako zordunketa, abonu eta ondorio guztiak ere.

**6.3.** Baimenduak uko egin diezaioke jasotako baimenari. Uko egite hori Bankuari jakinarazi behar zaio idatziz. Kontratu honetan adierazten den helbidera bidali behar da idatzia, eta baimena eman duen Bezeroari uko egitearen

berri bidali zaiola adierazi behar da.

**6.4.** Bezeroak baimendu ez-egoiliarak izendatuz gero, eskritura publiko bidez gauzatu behar da izendapena. Era berean, Bankuak beretzat gordetzen du egoiliar ez direnei baimenak ez onartzeko eskubidea, baldin arrisku bereziak nabari badira edo Bankuko segurtasun-prozedurek ezarritako eskakizunak gainditzen ez badira.

**6.5.** Kontu edo produktu baten beraren gainean hainbat pertsona baimendu izendatzen badira, berariaz bestelako jarraibiderik eman ezean, ulertuko da solidarioki jokatzeko dutela beren artean eta kontratatutako Kontu edo produktuaren Titularrarekin edo Titularrarekin.

## 7. AGINDUAK BETETZEA

Triodos Bank NV SEk kontratu honetan jasotzen diren prozeduren arabera beteko ditu Bezeroen aginduak, ahalik eta lasterren eta behar den arduraz, salbu hori egitea galarazten duten eta Bankuarekin zerikusirik ez duten arrazoiak daudenean edo Bezeroen bermerako segurtasun-sistemaren edo aplikatzekoa den araudiaren (bereziki, kapital-zuriketari buruzkoa) murrizketak dituzten eragiketak direnean.

Bankuak beretzat gordetzen du eragiketen gauzatzea blokeatzeko aukera, baldin Bankuko prozeduretan edo indarrean den araudian ezarritako gorabehera edo arrisku bereziak (kapital-zuritzearen prebentzioari buruzkoa edo kanpoarekiko transakzio ekonomikoari buruzkoa barne) gertatzen direla hautematen bada.

## 8. ZORPEKOAK

**8.1.** Bezeroak kontratu honen arabera Triodos Bank NV SErekin irekitako kontuak nahikoa funtsekin mantendu behar ditu betiere.

**8.2.** Zorpekoa izanez gero, Bankua ez da behartuta egongo ordainketako edo diru-ateratzeko jarraibiderik edo agindurik betetzera. Hartara, agindua edo jarraibidea osorik edo zati batean ez betetzeak eragindako kalteen erantzukizunetik salbuetsita geratuko da.

**8.3.** Triodos Bank NV SEren Kontu edo produktu bateko saldo zordunak (zorpekoak) berehala itzuli beharko ditu Bezeroak, jakinarazpenik edo errekerimendurik behar izan gabe.

**8.4.** Kontuko zorpekoak Triodos Bank NV SEren alde sortzen ditu, gertatu zen egunetik eta osorik kitzatzen den arte, zorpekoaren interesa eta Tarifa Liburuan ezarritako komisio eta gastuak. Horiek Kontratuko Baldintza Orokorrei eta unean-unean indarrean den araudiari jarraituz aldatu ahaliko dira. Berandutze-interesak edo zorpekoenak interes hartzekodunen epe beretan likidatu behar dira. Kargatu ondoren, Kontuan kapitalizatuko dira zorpeko saldo handiena bezala, eta, era berean, berandutze-interes edo zorpeko gehiago sortuko dituzte.

**8.5.** Zenbait titularkideko kontuetan zorpekoak sortzen direnean, kontuko titularkide guztiei dagokie zorpeko saldo horiek Bankuaren aurrean erregularizatzea, zorpekoa sortu duen eragiketa titularkideetako batek bakarrik egin arren.

**8.6.** Bankuak eskubidea du kontuko zorpekoak Bezeroak Bankuan duen beste edozein kontu edo produktutako funts konpentsatuen bidez estaltzeko

(kredituak eta aktiboaren beste eragiketa batzuk barne daude, berariaz), kontratu honetan konpentsazioari buruz aurreikusitakoa kontuan izanik. Konpentsatu beharreko produktuak epe bat badu, Bezeroak baimena ematen dio Bankuari, aurrez, zorpekoa konpentsatzeko behar den saldoa guztiz edo partzialki ezerezteko. Ondorioz, aurretiazko ezerezteak eragindako komisio eta gastuak ere sortuko dira. Orobat, kasu horretan Bankuak baimena du Bezeroaren inbertsio-produktuak saltzeko, salmentaren emaitzarekin dagoen zorpekoa estaltzearren.

**8.7.** Bezeroak ez ordaintzeak edo zorpekoak egiten baditu, Triodos Bank NV SEk horren berri emango die atxikita dagoen diru-betebeharren ez betetzeen fitxategiei.

**8.8.** Triodos Bank NV SEk eskubidez dagozkion ekintzak gauzatu ahalko ditu, harik eta kontzeptu guztiengatik zor diren kopuruak osorik ordaintzea lortu arte. Ekintza judizialik jartzen bada, aski izango da kasuan kasu egoki diren dokumentua edo dokumentuak aurkeztea, Bezeroak kontzeptu guztiengatik zor duen zenbatekoa egiaztatzearen Triodos Bank NV SEk emandako egiaztagiriekin batera.

## 9. GERORA GEHITUTAKO PRODUKTU EDO ZERBITZUAK

Etorkizunean, Triodos Bank NV SEk produktu edo zerbitzu berrien baldintza partikularrak gaineratu ahal izango ditu, kontratu honi egindako eranskinen bidez eta kontratu honen esparruan, hargatik kontratu hau berritzeko beharrik gabe. Kontratu Orokor hau sinatzeak egun eskaintzen diren eta gerora gaine-

ratzen diren eta Bezeroak kontratatzen dituen produktu eta zerbitzuen baldintza partikularrak onartzea dakar.

## 10. TRIODOS KONTU KORRONTEA IREKITZEA

Zerbitzu eta produktu batzuk kontratatzeko, Bezeroak Triodos Kontu Korronte bat ireki behar du, zeina baldintza orokor hauen bidez eta produktu horren baldintza partikularrei buruzko eranskinaren bidez arautzen baita.

## 11. ORDAINKETAK ETA DIRU-ATERATZEAK

Bankuak eskainitako ageriko produktuetako (kontu korronteak eta aurrezki kontuak, modalitate komertzial guztietan) diruak sartzeko eta ateratzeko formulak produktu bakoitzaren baldintza partikularretan ezarritakoak izango dira. Hala ere, ondoren azalduta daude dirua ateratzeko eta sartzeko bide orokorrak.

Triodos Banken esku dago transferentziak edo bestelako ordainketa-agingiduak —direla bezeroak edo hirugarren batek agindutakoak— bidaltzerik edo jasotzerik ez onartzea, baldin jatorriko edo helmugako herrialdeak gainean nazioarteko mugapen edo zehapenen baten pean badaude, zerga-paradisutzat jo badira, edo Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldeak (NFET) ezarritakoari jarraituz herrialde ez-laguntzailetat jo badira; edota baldin horiek igorri edo onartzeak Bankuarentzat unean-unean indarrean diren lege-betebeharrak betetzearen ezintasuna ekar badezake, bereziki kapital-zuritzearen prebenit-

zeari eta terrorismoa finantzatzeari dagokionez. Triodos Bankek beretzat gordetzen du agindu horiek igortzeko edo onartzeko eskubidea, bere iritziaren arabera.

### 11.1. Ordainketak

- a) Espainian helbideratutako kreditu-erakunde batean irekitako bere titulartasuneko kontu batean zordunketa helbideratu baten bidez funts-ekarpena eginez.
- b) Banku-transferentzien bidez.
- c) Kontuan ordaintzeko txekeak edo Espainian instalatutako banku-sukurtsal bateko beste efektu batzuk sartuz. Ondorio horietarako, Bezeroak baimena ematen dio Bankuari, Bezeroaren kontuan sartuko den txekea endosatzeko. Txeketz edo bestelako efektuz egindako sarrerak, soilik egindakotzat joko dira bukaera onari baldintzatuta.
- d) Bankuaren kutxazainetan esku-dirua sartuz, diru-sarrerak helbideratuz edo Bankuak etorkizunean Bezeroari eskura jartzen dion beste edozein bitartekoren bidez.

Urrutiko lehenengo kontratazioa egingiten denean, Espainian instalatutako banku-sukurtsal batean irekita dagoen eta Bezeroaren titulartasuneko den kontu korrante batetik egin behar da lehenengo diru-sarrera.

### 11.2. Diru-ateratzeak

Diru-ateratzea honela egin ahal izango da:

- a) Zordunketa helbideratua eginez.
- b) Banku-transferentzia bidez.
- c) Kontuan zorduntzeko igorritako txekearen edo ordaindukoaren bidez.

d) Zordunketa- edo kreditu-txartelaren bidez.

e) Bankuaren kutxazainetan esku-dirua ateraz edo Bankuak etorkizunean Bezeroari eskura jartzen dion beste edozein bitartekoren bidez.

Hamaikagarren klausula honetan araututako ordainketa eta diru-ateratzeei aplikagarri izango zaie kontratu honetako hogeita seigarren klausulan ezarritakoa. Zehazkiago, ordainketak eta diru-ateratzeak gauzatzeko tresnak (koordinatu-txartelak, PIN zenbakia edo Bankuak bezeroari emandako beste tresna batzuk) juridikoki parekatzen zaizkio bezeroak eskuz idatzitako sinadurari.

## 12. DATU PERTSONALEN TRATAMENDU INFORMATIKOA

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua araberako, sinatzaileak edo sinatzaileek adierazten dute informatuta daudela eta berariaz onartzen duela/dutela kontratu honetan adierazitako izaera pertsonaleko datuak —telefono mugikorrari eta helbide elektronikoari buruzkoak eta kontratutik eta alderdien arteko harremanetik ondorioztatutakoak barne— Triodos Bank NV SEren ardurapeko fitxategietan sartzea, zeinak behar bezala inskribatuta baitaude Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Datuen Babeserako Erregistro Orokorrean, aurrerago deskribatzen diren helburuekin.

Triodos Bank NV SEk, fitxategien arduradun denak, bermatzen du, datu horiek erabiltzean, datu pertsonalak babesteari buruz indarrean dagoen araudia beteko

duela (gaur egun, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua).

Sinatzaileak edo sinatzaileek baimena ematen diote Triodos Bank NVSEri, kontratuzko harremana amaitu ondoren, datuak mantentzen dituzan indarrean dauden legezko epeetan, eta ez bairik gabeko adostasuna ematen dute haien datu pertsonalak helburu hauetarako erabiltzeko:

- a) Bankuaren produktu edo zerbitzuak kontratatzeko izapideen kudeaketarako.
- b) Banku-txartelak eta afiliazio-kontratuak 4B, Servired edo etorkizunean ager daitekeen beste edozein txartel-programatara igortzeko.
- c) Edozein bitartekoren bidez eskatutako eragiketarako egiteko (telefono bidezko elkarrizketak grabatzea barne).
- d) Bezeroaren transakzioen barnejarduerarako.
- e) Bezeroaren Arreta Zerbitzurako, bezeroen identifikazio-mekanismoak eta gako-sistemak kudeatzeko eta Bankuaren eta Bezeroaren arteko harremana mantentzeko.
- f) Triodos Taldeari. Talde horrek Herbehereetan du egoitza, eta gaur egun bulegoak ditu Erresuma Batuan, Alemanian, Herbehereetan, Belgikan eta Espainian; datuen babesean, herrialde horiek Espainiako babesmailaren parekoa dute. Datuen titularrari jakinarazi egingo zaio datuak laga badira, eta titularrak lagapen hori eragotzi egin dezake legezkoa bada.
- g) Halaber, baimena ematen zaio

Triodos Bank NVSEri haren finantza-jarduerari buruzko oharra telefono mugikorrera, helbide elektronikora edo Triodos Bank NVSEk etorkizunean ohar horiek bidaltzeko gaineratu dezakeen beste edozein bitartekotara bidaltzeko —komunikazio komertzial elektronikoa barne—, Informazio Gizarteko Zerbitzuei buruzko 2002ko uztailaren 11ko 34/2002 Legeko 21. artikularekin bat.

h) Publizitatea eta informazioa edozein bitartekoren bidez bidaltzeko —mugikor, fax, posta arrunt nahiz elektronikoa bidezko mezua barne—, Bankuak eta Triodos Taldeko enpresek eskaintzen dituzten produktu eta zerbitzuei buruz (finantza-, gizarte-, kultura- eta ingurumen-erlotoak).

Sinatzaileak edo sinatzaileek baimena ematen dute, berariaz, informazio hori posta elektronikoa, telefono mugikor edo komunikazio elektronikoa antzeko bitarteko baten bidez —Informazio Gizarteko Zerbitzuei buruzko 2002ko uztailaren 11ko 34/2002 Legeko 21. artikularekin bat— edo beste kanal batzuen bidez bidaltzeko.

i) Jasotako datuak, helburu komertzial, finantzario, operatibo eta estatistikoetarako erabiliko ditu Triodos Bank NVSEk. Bankuak berariazko baimena du arrisku-balorazioak egiteko, datuak atera eta biltzeko eta marketin-azterketak egiteko, eskaintza komertzialak Bezeroaren profil berezira egokitzeko eta komunikazio komertzial elektronikoa bidaltzeko helburuarekin.

j) Azterketa komertzialak egiteko eta Bezeroaren profila —haren datuen



bidez eta datu estatistikoen bidez lortua — darabilten sistema automatikoak —edo automatikoak ez direnak— erabiltzeko.

Sinatzailak edo sinatzailak Triodos Bank NV SEri jakinarazi behar dizkiote, idatziz edo gako telefonikoen bidez, haien datu pertsonaletan dauden aldaketa guztiak, gertatu bezain laster, eguneratuta mantendu ahal izateko. Triodos Bank NV SE ez da erantzule egingo sinatzailak datuak eguneratzeko duten arduragabeke-riak eragindako ondorioez.

Datuak tratatzeko edo lagatzeko adostasuna edozein unetan ezezta daiteke, atzeraeraginezko ondorio-rik gabe, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoko 6 eta 11 artikuluekin bat.

Triodos Bank NV SEk hauei jakinara-ziko dizkie datu pertsonalak:

a) Espainiako Bankuari, Ekonomia eta Ogasun Ministerioari, Justizia Mi-nisterioari, Barne Ministerioari, haien mendeko eta haiei atxikitako orga-nismoei, kontu-ikuskariei, kapital-zuriketaren prebentzioaren arloko kanpo-adituei eta ordenamendu juridikoaren helburuak betetzeko datu pertsonalak babestearen arloko ikuskariei.

b) Kapital Zuritzea eta Diruzko Arau Hausteak Prebenitzeko Batzordeko Zerbitzu Exekutiboaren Finantza Titulartasunen Fitxategiari, kontu korrontekak, aurrezki-kontuak, balio-kontuak edo eperako gordailuak ireki edo ezeztatzeari buruzko datuak, indarrean den araudian zehaztutako maiztasunarekin. Adierazpenean jasota egongo dira, betiere: titularrei,

benetako titularrei, ordezkariet edo baimendueti buruz eta dirua erabilt-zeko ahalak dituen pertsona orori buruz unean-unean indarrean den araudiak eskatzen dituen identifika-zio-datuak; irekitze- edo ezeztatze-data; eta kontu edo gordailu mota.

c) Konpentsazio Elektronikoko Sistema Nazionalaren erakunde kudeatzaileei eta haiekin elkartuta daudenei, eta kontratuzko harremanetik eratorritako eragiketen zirku-laziorako beste finantza-erakunde batzuei.

d) Triodos Fundazioari, ingurume-naren arloko erakundeei eta Triodos Bank NV SEk eskaintzen dituen pro-dukto batzuen kontratuzko kudeake-tan aritzen diren gobernuz kanpoko beste erakunde batzuei.

Datuen kalitate-printzipioa bete asmoz, Triodos Bank NV SEk hamar (10) urteko epean mantenduko du emandako informazioa, aipaturiko helburuetarako, Bezeroarekin sinatutako azken kontratu edo negozio-harremana desegiten eta amaitzen denetik kontaktzen hasita. Epe hori igaro ondoren, datuak suntsitu egingo dira, eta datuon isilpekotasuna bermatzen da, haiek tratatzean nahiz gerora deuseztatzean.

Halaber, Triodos Bank NV SEk eta gaine-rako ordainketa-zerbitzuek —eta, ha-laber, haiekin lotuta dauden eta transa-kzioak egiteko datuak jasotzen dituzten ordainketa-sistemek berek eta zerbitzu-emaile teknologikoei— obligazioa izan dezakete, kokatuta dauden estatuko legeriaren edo estatu horrek sinatutako hitzarmenen arabera, diru-transakzioei buruzko informazioa emateko beste herrialde batzuetako —Europar Batasu-nekoak nahiz kanpokoak— agintari eta

organismo ofizialei, terrorismoaren eta delinkuentzia antolatuko forma larrien finantzaketaren aurkako borroka eta kapital-zuriketaren prebentzioa dela eta.

Bankuak jakinarazten du bere bete-behar bat dela Espainiako Bankuaren Arriskuaren Informazioko Zentralari (CIRBE) deklaratzeko zuzenean nahiz zeharka berekin arrisku-kredituak dituzten pertsonak identifikatzeko beharrezko datuak, bai eta pertsona eta arrisku horien ezaugarriak ere. Ezaugarri horietan sartuta daude, bereziki, kredituen zenbatekoari eta berreskuragarritasunari eragiten dizkietenak. Beren enpresa-jardunean diharduten enpresaburu indibidualen arriskuak direnean, horren berri jasoko da. Orobat, jakinarazten da Bankuaren eskubidea dela CIRBEren-gandik arrisku erregistratuei buruzko txostenak eskuratzeko.

Sinatzailea edo sinatzaileak jakinaren gainean geratzen dira, eskubidea dutela CIRBEko datuak kontsultatzeko, eta onartzen dute, kontratuzko harremana amaitu ondoren, Bankuak datu horiek mantentzeko eta informazio komertziala bidaltzeko beharrezko epeetan.

Uneren batean sinatzaileak edo sinatzaileak erabakitzen badute beren datu pertsonalak aipaturiko helburuetarako erabiltzerik ez dutela nahi edo datuak ezereztu, datuen aurka egin, zuzendu edo eskuratzeko eskubideak aplikatzeko araudiaren arabera erabili nahi baidituzte, fitxategiko arduradunarengana jo ahal izango dute (helbidea: C/ José Echegaray, 5. Parque empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas, Madrid).

Azkenik, Triodos Bank NV SEK jakinarazten du komunikazio komertzialak bidaltzeari uko egin dakiokela, Bezeroak

berriaz eskatuz gero. Kasu horietan, identifikatzeko ezinbestekoak diren gutxienezko datuak bakarrik mantenduko ditu sukurtsalak, eta publizitatea ez bidaltzeko behar diren neurriak hartuko ditu.

### 13. BEZEROAREN ARRETARAKO SAILA. KEXA ETA ERREKLAMAZIOAK

Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Saila. Sail horri dagokio haren bezeroek bere interesen alde aurkeztutako kexa eta erreklamazioak artatu eta ebaztea. Bezeroak sail horri bidali beharko dizkio bere kexa eta erreklamazioak, idatziz, Triodos Bankek jendearentzat irekita dituen establezimenduetan aurkeztuta, sailaren helbidera paperezko postan bidalita (helbidea: Departamento de Atención al Cliente, Triodos Bank NV S.E., c/ José Echegaray 5, 28232, Parque Empresarial Las Rozas, Las Rozas, Madrid), edota posta elektronikoz bidalita (helbidea: reclamaciones@triodos.es).

Triodos Bankeko Bezeroarentzako Arreta Sailak gehienez hilabete bateko (1) epea izango du bezeroaren kexa edo erreklamazioa ebazteko, eta epe hori igarota bezeroak berriazko ebazpenik jaso ez badu, edo uste badu bere itxaropenekin bat ez datorrela, bere erreklamazio edo kexak dagokion erakunde ikuskatzaileko erreklamazio zerbitzuari aurkeztu ahalko dizkio (helbideak: Banco de España, Departamento de Conducta de Mercado y Reclamaciones, c/ Alcalá 48, CP 28014, Madrid; Dirección General de Seguros y Fondos de Pensiones, Paseo de la Castellana 44, CP 28046, Madrid; eta Comisión Nacional del Mercado de Valores, calle

Edison, 4, CP 28006, Madrid edo Passeig de Gràcia, 19, CP 08007, Barcelona.). Horretan guztian, 44/2002 Legean (2002ko azaroaren 22ko 44/2002 Legea, finantza sistema erreformatzeko neurriena) ezarritakoa bete beharko da, eta horri buruzko informazio guztia behar bezala eguneratuta izan beharko da Triodos Banken orri elektronikoa.

Era berean, Triodos Bankek bezeroaren eskura izango du, bere orri elektronikoa bidez, kontsumo arloko auziak online ebazteko aukerari buruzko informazio guztia, bizilekua Europar Batasunean duen erosle baten eta Europar Batasunean ezarritako merkataria baten artean online zerbitzuak hornitzeko edo salerosketarako kontratuak egiten badira.

Bezeroek eskuragarri dute araudi hori. Izan ere, bezeroek araudia paperezko euskarrian bidal dakien eska dezakete, eta Bankuaren webgunean eta sukurtsal guztietan ere eskuragarri dute.

Bezeroaren Arretarako Sailarekiko komunikazioa, erreklamazioen ondorioetarako, Bezeroaren Arretarako Zerbitzuaren Araudian ezarritako bideak erabiliz egin daiteke. Araudi horretan daude araututa kexak eta erreklama//19

zioak egoki tramitzeko beharrezko kudeaketa eta formalitate guztiak.

## 14. SUNTSIARAZTEKO ARRAZIOIAK

Kontratua indarrean mantenduko da Bezeroak Triodos Bank NV SErekin produkturen bat duen bitartean, alde batera utzirik ondoren aipatzen dira desegite-ahalmenak.

Bezeroak Triodos Bank NV Sen kontratatutako produktu guztiak edonoz ezeztatu ditzake Bezeroak, baldintza partikularretan eta kontratu honetan ezarritako araubideari jarraituz.

**14.1.** Indarrean den araudiak beste arauketa bat ezarri ezean, Bezeroak eta Triodos Bankek kontratua eta kontratatutako produktu edo zerbitzuak desegin ditzakete, deuseztapena gauzatu baino gutxienez hilabete bat (1) lehenago beste alderdiari idatziz jakinarazi ondoren. Aurreabisu hori ez da aplikatuko alderdietako batek kontratua betetzen ez badu (bereziki, datu faltsuak edo dokumentu manipulatuak eman diren kasuetan, eta iruzurraren edo kapital-zuritzearen zantzuak dituzten kasuetan edo Kontratua egitera eraman zuten inguruabarrak aldatzen dituzten arrazoi larriak dituzten egoeretan); kasu horretan, berehala desegin ahal izango da kontratua. Kontratua berehala desegiteko berariazko arrazoiak dira kapital-zuriketari buruzko araudiak eskatutako informazioa eman nahi ez izatea, datu edo dokumentu faltsuak edo manipulatuak ematea, kapital-zuriketa adierazten duten eragiketak egitea eta terrorismoa finantzatzea edo iruzur egitea. Kasu guztietan, Bezeroak bultzatutako desegiteak ondorio osoak sor ditzan, Bezeroak Bankuari zor ditzkion kopuruak ordaindu beharko dizkio, kontratatutako produktu edo zerbitzuen epea gainditua duten komisio edo zordunketak, sortutako interesak eta zorsaldoak barne. Bezeroak obligazioa du Bankuak emandako edozein ordainketa-tresna hari itzultzeko.

**14.2.** Kontuaren Titularraren eta Bankuaren arteko harremana edo kontratua aurreko paragrafoan adierazitako edozein arrazoiengatik desegin ondoren,

Bankuak kontuak itxi, gordailuak ezeztatu eta kitatu egingo ditu, kontzeptu guztiengatik (interes, komisio edo gastu jasanarazgarriak barne). Halaber, Titularraren esku jarriko ditu kontu edo gordailu horien saldo hartzekodunak, haren aldeko interesik sortu gabe, eta saldo zordunak ordaintzea eskatuko du, dagokion eran. Bankuak Bezeroari eska diezaiokie Kontua ixtearen ondorioz sortutako saldo hartzekoduna atera dezan, halakorik badago.

**14.3.** Aurreko atalean adierazitakoa alde batera utzirik, Bankuak amaitutzat eman ahal izango du kontratu hau, urte beteko epean edo epe luzeagoan, Bezeroaren kontuetan mugimendurik ez badago zor edo hartzekoetan, kontuan izan gabe kontu horretan edukitako saldoetatik sortutako interesen likidazioa.

Berebat, Kontua itxiztat eta ezereztutzat joko da, urte beteko epean edo epe luzeagoan, zero saldoa duenean eta zor edo hartzekoetan mugimendurik ez dagoenean, edo, kontu ez aktibo gisa erregistratua egonik, zero saldoa edo Bankuaren aldeko saldoa duenean, saldo hori komisio-zordunketak eragindakoa izan arren. Kontua ezereztu ondoren, Bankuak ez du obligaziorik txekeak ordaintzeko edo aginduak eta bestelako xedapenak betetzeko, eta horrenbestez Bezeroak obligazioa du txekeak edo haren esku dauden bestelako xedapen-dokumentuak itzultzeko.

**14.4.** Kontratu hau desegitean, Bezeroak kontratatutako produktu eta zerbitzu guztiak deuseztatzen eta, hala badagokie, aurrez ezerezten dira, betiere dagozkien produktuen baldintza partikularretan jasotakoarekin bat.

Hala eta guztiz ere, Bezeroak kontratatu dituen eta kontratua desegiteko uanean indarrean dauden finantza-produktu

edo -zerbitzu baten baldintza partikularrek galarazi egiten badute hura aurrez deuseztatu edo ezerezte, kontratu honen deuseztapena ez da gauzatutzat emango hasieran aurreikusitako epe-mugara arte.

**14.5.** Aurreko paragrafoetan adierazitakoa alde batera utzirik, berariaz adosten da Triodos Bankek kontratu hau eta Bezeroak kontratatutako edozein produktu edo zerbitzu desegin ahal izango duela, Triodos Kontu Korrontea edo kontratatutako beste edozein produktu edo zerbitzu itxi ahal izango duela eta Bezeroak une horretan zor dion edozein kopuru berehala eskatu ahal izango duela —printzipala, interesak, komisioak edo beste edozein kontzeptugatik—, baldin eta Bezeroak jarduera hauetako bat egiten badu edo jarduera hauetako baten eragina jasaten badu:

a) Kontratu honetan edo Triodos Bankekin kontratatutako finantza-produktu edo -zerbitzuen baldintza partikularretan jasotako obligazioak betetzen ez badira; bereziki, diru-izaerako obligazioak edo funtsezko konpromisoak (adibidez, bermeak ematea edo urrutiko bankako edo ordainketa-bitartekoetako babes-elementuen eta identifikazio-gakoen arretarekin lotutakoak).

b) Triodos Bankekin harremana izandako denboran, informazio faltua, deformatua edo desitxuratua eman bada edo Bankuak indarrean dagoen legeriaren arabera egindako informazio-eskaerak ez badira.

c) Triodos Banken ezaugarri bereziak kontuan izanik —jatorritik gizartearen eta planetaren aldaketa positiboa eta iraunkorra bultzatzea baitu helburu, horrela pertsonen finantza-

sisteman duten jardueraren bidez haien bizi-kalitatea hobetzeko, eta dirua arduraz erabil dadin bultzatzea —, Bankuaren irizpideen aurka dauden jarduerak egiten dituzten enpresa edo pertsonekin negozio-harremanik ez izateko irizpideak ditu. Bezeroak adierazten du politika horiek ezagutzen eta onartzen dituela. Hori dela eta, Bezeroak Bankuaren filosofiaren eta etikaren aurkako jarduerak egin dituela egiaztatzen bada, Bankuak berariazko eskubidea du harekin dituen negozio-harremanak desegiteko.

d) Bezeroaren ondare-kaudimena modu nabarmenean murrizten bada, izatezko edo zuzenbidezko jarduerak eteten badira, Triodos Bankekiko edo edozein hirugarrenetikiko ordainketa-obligazioak betetzen ez baditu, lehiaketa-prozesu bat hasten bada eta 1.000 eurotik gorako diru-gauzatzeak sortzen dituzten prozesu judizial edo administratiboek eragiten badiete.

e) Kontuaren Titularrak bere egoitza aldatzen badu, Bankuaren ustez, eragiketetikiko sentikorra den herrialde batera, Bankuak eskubidea du kontratu hau eta kontratatutako produktu eta zerbitzuak berehala desegiteko.

**14.6.** Triodos Bank N.V. Espainiako Sukurtsalak bere esku gordetzen du kontratua aurrez deuseztatzeko ahalmena, kasu hauetan: bezeroak bizilekua Ameriketako Estatu Batuetan (AEB) edo U.S. Securities and Exchange Commission (SEC) erakundeak ikuskatutako lurraldeetan duenean; eta zantzuak daudenean, bezeroak egoitza edo zerga betebeharrak dituela AEBetan edo Espainia ez diren herrialde edo

lurraldeetan, 22. klausulan ezarritako baldintzetan, eta ez badu ematen bere zerga egoitza egiaztatzeko informazioa edota dokumentazioa.

## 15. UTZIESPEN-ESKUBIDEA

**15.1.** Xedea. Eskubide hau erabiltzea berriaz jasotzen den produktu eta zerbitzuetan, pertsona fisiko diren bezeroek beren enpresa-jardueraz edo jarduera profesionalaz kanpoko helburua duten kontsumitzaile gisa jarduten badute, Triodos Bankekin sinatutako finantza-produktu edo -zerbitzua desegin ahal izango dute, arrazoiak azaldu beharrik gabe eta zigorrik jaso gabe, klausula honetan jasotako arauketarekin bat.

**15.2.** Utziespen-eskubidea erabiltzeko baldintzak

a) Epea. Pertsona fisiko diren kontsumitzaileek utziespen-eskubidea erabili ahal izango dute, hamalau (14) egun naturaleko epean, kontratua egiten denetik kontaktzen hasita.

b) Erabiltzeko modua. Pertsona fisiko diren bezero kontsumitzaileek utziespen-eskubidea erabili ahal izango dute, dagokion epean, bide hauetako baten bidez: (i) parte-hartzaile guztiek sinatutako eta Triodos Bank NV SEri zuzendutako gutun bidez (Departamento de Atención al Cliente, C/ José Echegaray, 5, Parque Empresarial Las Rozas. 28232 Las Rozas, Madrid); edo (ii) Telefono bidezko Bankuko saio bidez, identifikazio-gako pertsonalak erabiliz.

15.3. Eskubidea erabiltzearen ondorioak. Pertsona fisiko diren bezero kontsumitzaileek utziespen-eskubidea erabiltzea, dagokion moduan eta

epean:

a) Utziespen-eskubidea erabiliz gero, kontratua edo finantza-zerbitzua deuseztatu egingo da.

b) Bankuak utziespenaren uneraino emandako finantza-zerbitzua ordaintzeko obligazioa bakarrik du Bezeroak, ahalik eta lasterrena eta, gehienez, utziespena jakinarazten denetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean, kontratuarekin bat. Kasu guztietan, ordaindu beharreko zenbatekoa ez da izango dagoeneko emandako zerbitzuaren zenbateko proportzionala baino handiagoa, kontratuaren estaldura osoarekin alderatuta, eta inolaz ere ez du izango zigor bat sortzeko adinako muntarik.

c) Bere aldetik, Triodos Bankek Bezeroari ordainduko dizkio, ahalik eta lasterren eta gehienez hogeita hamar (30) egun naturaleko epean — Bezeroak utziespen-eskubidea erabiliko duela jakinarazten duen egunetik kontatzen hasita —, kontratua edo urrutiko finantza-zerbitzua dela-eta jasotako kopuruak, utziesteko unera arte benetan emandako finantza-zerbitzuari dagokion zenbatekoa salbu.

#### **15.4. Utziespen-eskubidearen aplikazio-eremua**

a) Eremu subjektiboa. Utziespen-eskubidea erabiltzeko ahalmena dute, soilik, pertsona fisiko diren bezeroek, beren enpresa-jardueraz edo jarduera profesionalaz kanpoko helburua duten kontsumitzaile gisa jarduten badute.

b) Eremu objektiboa. Bankuak merkaturatutako finantza-produktu edo -zerbitzuen gainean erabili ahal

izango da utziespen-eskubidea, baldin eta, berariaz, aukera hori eskaintzen badute. Printzipioz, utziespen-eskubideak banku-produktu guztiak hartzen ditu, salbu Triodos Banken Akzioen Gordailu Ziurtagiriak (AGZ) eta Triodos Bankek merkaturatutako inbertsio-funtsen partaidetzak.

Hala ere, Bezeroaren utziespen-eskubidea ez da aplikatuko kontratu hauek merkaturatzen direnean: Triodos Bankek kontrolatu ezin dituen finantza-merkatuetako fluktuazioen mendeko prezioa duten finantza-zerbitzuak, baldin eta fluktuazio horiek Bezeroak utziespen-eskubidea erabil dezakeen hamalau (14) eguneko epean gerta badaitezke. Hori dela eta, utziespen-eskubidea ezingo da aplikatu dibisa-trukeen eragiketen gaineko transakzioetan; diru-merkatuko tresnetan; balio negoziagarrietan; inbertsio kolektiboko erakundeen partaidetzetan; interes-tasen gaineko etorkizuneko kontratuetan; interes-tasen, dibisen edo akzio edo akzio-indizeen gaineko truke-kontratuetan; aurreko edozein tresna erosteko edo saltzeko aukeretan eta merkatuko indize, prezio edo interes-tasen erreferentziak dituzten kontratuetan.

Halaber, utziespen-eskubidea ez da aplikagarria izango loturiko kontratuetan, baldin eta, gutxienez, negozio juridikoetako batean aipaturiko transakzioetako bat egiten bada. Zehazki, loturiko kontratutzat hartzen dira bi negozio juridiko edo gehiago elkartzearen ondorioz sortzen diren negozio juridiko konplexuak, baldin eta, elkarketa horren ondorioz, negozio juridikoetako bat bestearen mende geratzen bada, aldi berean edo hurrenez hurren.

Berebat, utziespen-eskubidea ez

zaie aplikatzen, pertsona fisikoa den kontsumitzaileak eskubide hori erabili baino lehen (eta berariaz hark eskatuta), bi alderdiek erabat gauzatu dituzten kontratuei (adibidez, transferentzia-aginduak eta kobrantza-kudeaketako eragiketak); lursailen edo lehendik edo eraikitzeko dauden higiezinaren edo berri-ritu edo hobetzeko higiezinaren gaineko jabetza-eskubideak erosi edo mantentzera zuzendutako kredituei; ondasun higiezin baten gaineko hipotekaren edo higiezin baten gaineko eskubidearen bidez bermaturiko kredituei; eta notarioaren aurrean Bezeroak egindako adierazpenei, baldin eta notarioak fede ematen badu Bezeroaren eskubideak bermatu direla.

## 16. ORDAINKETAK EGOZTEA ETA KONPENTSASIA

Triodos Bank NV SEk berariazko ahalmena du, zuzenean, Bezeroak kontratatutako kontu eta produktuen saldo positiboak aplikatzeko ordaindu gabeko ordainketa-obligazioak dituzten eragiketa edo produktu guztiei. Bezeroak une bakoitzean izan ditzakeen saldo zordunak nahierara konpentsatu ahal izango ditu Triodos Bank NV SEk, Bezeroak Triodos Bank NV SErekin egiten dituen eragiketak direla-eta hark sartzen duen edo haren eskura geratzen den edozein kopururekin, zeinahi dela kopuruon forma, dagozkien dokumentuak eta epemuga.

Ondorio horietarako, edozein motatako ageriko kontuetan eskura dauden saldoak zuzenean eta berehala konpentsatuko dira, eta epe baterako gordailuen aurkako konpentsazioak egiteko, Bankuak berariazko baimen ezeztazina

du, gordailuok aurrez ezerezteko; horretarako manu egokia ematen zaio.

Bankuak Bezeroaren aldeko saldoak atxiki ahal izango ditu, haren titularitasuneko edozein produktutan, hark izenpetutako beste produktu edo kontratu batzuetan saldo zordunak baldin badaude, harik eta saldo zordun horiek egoki ordaintzen diren arte.

Berariaz hitzartzen da konpentsazio-eskubide hori erabili ahal izango dela, alde batera utzirik kontratatutako produktuaren edo produktuen saldoarekin konpentsatuko den zorra produktu horren Titular bati, batzuei edo guztiei egozgarri zaien.

Puntu honen arabera, Bankuaren eskubideek ez dituzte kaltetzen, edozein unetan, legez, kontratuz edo beste modu batez, Bankuak izan ditzakeen konpentsazio-, konbinazio- edo finkapen-eskubideak, pignorazio-eskubideak edo beste edozein motatakoak.

Bankuak bere Bezeroaren Kontura egindako zeinahi ordainketa edo transferentzia baliogabetu ahal izango du — egiteko modua edozein dela —, akatsa egon bada edo a posteriori jakiten bada iruzurrez egin dela.

Izatekotan, izaera orokorraz, Bankuak onuradunaren akordioa transferentziaren eta lorpenaren itzultzearen eskaera behar izango du.

## 17. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB)

UTBa kalkulatzeko, oro har, Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularrean (BOE, 161. zenbakia, 2012-07-06) jasotako formula era-

biliko da, edo gerora hura ordezkatzeko duen araudian jasotakoa. Sortutako interesen zenbateko absolutua kalkulatzeko, formula hau erabiliko da:  $\text{Kapitala} \times \text{Korritua} \times \text{Denbora} / 36\,600$ . Kapitala, mantendutako saldoa da; korritua, interes-tasa nominala; eta denbora, egonaldi-egunak. Hala eta guztiz ere, kontratatutako produktuen baldintza partikularrek berariazko arauketak izan ditzakete, UTBari buruz, araudi bereziak eskatuta.

Interes aldakorrekoak diren edo UTBa zehazteko erabilitako elementuak aldatzeko aukera ematen duten eragiketen kasuan, eta produktua harpidetzeko unean aldaketa horiek zenbakarriak ez diren neurrian, UTB horrek UTB aldatorra dela joko da, eta haren kalkulua egiteko aintzat hartuko dira elementu horiek zer balio zuten produktu horren kontratua izenpetzean.

Bereziki, Bankuak eskainitako ordainsaria interes aldakorreko tasan den produktuetan, UTB aldatorra erreferentziako indizeak aldatzen ez direlako hipotesiari jarraituz kalkulatu da. Horrenbestez, UTB aldakor hori interes-tasaren berrikuspenekin aldatuko da.

## 18. DIBISEN BIHURKETA-ERAGIKETAK

Bezeroak berariazko baimena ematen dio Triodos Banki, dibisetan agindutako finantza-agindu eta -eragiketen euro-rako bihurketak egitean, Bankuak une bakoitzean argitaratutako komisioak eta truke motak erabiltzeko.

## 19. LABURPENAK ETA ERAGIKETEI BURUZKO INFORMAZIOA

**19.1.** Triodos Bankek, gordetzea eta berreskuratzea ahalbidetzen duten bitarteko elektronikoz eta euskarri iraunkorrez, hilerro Bezeroaren eskura jarriko ditu eragiketen informazioa, laburpenak eta likidazioak. Horien edukia, maiztasuna eta entregatzeko bidea bat etorriko dira unean-unean indarrean diren xedapenekin.

Bezeroak edonoiz eta inolako mugaketa gabe eskatu ahalko du informazioa, laburpenak eta likidazioak paperezko euskarrian jasotzea; hala eginez gero, bidalketa bakoitzaren posta-kostua jasanaraziko zaio bezeroari.

Laburpenean edo eragiketa-jakinarazpenean egindako asentuen aurka egin ahal izango du Bezeroak, idatzizko erreklamazio bidez. Laburpena edo eragiketen jakinarazpena bidaltzen denetik hamabost (15) egun igarotzen badira dagokion erreklamaziorik jarri gabe, ulertuko da Bezeroa ados dagoela egindako asentuekin. Isilbidezko onarpenak berariazko onarpenaren balio bera du.

Bezeroaren kontu izango dira indarrean diren posta-tarifei jarraituz sortutako posta-gastuak, baldin horiek aplikatzea egoki bada.

Hala izanda ere, Triodos Bank NV SEK egindako eragiketei buruzko dokumentazioa, grabazioak eta euskarri magnetikoak gordeko ditu, une bakoitzean indarrean dagoen araudiak eskatutako epean.

**19.2.** Triodos Bank NV SEK ingurumena zaintzeko eta paper-kontsumoa eta zuhaitz-mozketa gutxitzeko berariaz hartua duen konpromisoa kontuan izanik, informazioaren komunikazioak eta bidalketak bitarteko elektronikoen bidez



egitea lehenesten du, aldaketarik gabe biltzeko eta berreskuratzeke aukera ematen duten euskarri iraunkorretan. Arrazoi bera dela eta, Bezeroentzat garrantzitsua den eta pertsonala ez den informazio oro haien eskura jarri behar da, Bezeroek arrazoizko maiztasunarekin begiratu beharreko bitarteko elektronikoen bidez. Arrazoizkotzat jotzen da aldizkako mugimenduak, gutxienez, hileru begiratzea. Hala eta guztiz ere, Kontuaren titular den Bezeroak Bankuari eska diezaioke hilean behin laburpenak bidaltzeko edo informazioa postaz bidaltzeko paperezko euskarrian. Tarifa Liburuan adierazitakoaren araberrako komisioak eta gastu-ondorioak izango ditu horrek.

Bankuak ondorioztatzen badu asentu oker bat egin dela, kontuaren Titularrarekin hala adosten duelako edo Bankuak akats bat egin duelako, asentu oker hori zuzendu egingo da. Ahal bezain laster, kontu berrikusiaren laburpen bat bidaliko dio Bankuak kontuaren titularrari.

Sarrera okerra egin zen datatik aurrera sortzen diren interes, kargu edo kontuak kalkulatzeko orduan, kontuan izango dira kontu horren asentuetan egindako zuzenketak.

Kontrako frogarik ezean, Bankuaren erregistroak dira Kontuaren Titularraren eta Bankuaren artean, kontuko jarduerak direla-eta edo Bankuak Kontuaren Titularrari emandako ordainketa zerbitzu oro dela-eta, izandako transakzioen frogaz ezbairik ezina, akats nabarmenik ez bada.

**19.3.** Alderdien arteko komunikazio eta jakinarazpenen ondorioetarako, Bezeroaren egoitza eta helbide elektronikoko gisa hartuko dira irekiera- eta adostasun-formularioan jasotakoa edo,

gerora, Bezeroak modu frogagarrian jakinarazitakoa. Bezeroak konpromisoa hartzen du Triodos Banki datuotan izandako aldaketa oro idatziz jakinarazteko, Bankuak jakinarazpenak ondo egin ahal izan ditzan. Triodos Bank salbuetsita geratuko da hasieran emandako helbide elektronikora edo fisikora bidalitzeko komunikazioak ez jasotzearen erantzukizun guztietatik, harik eta aldaketa-jakinarazpen hori jasotzen duen arte.

Bezeroak bat baino gehiago direnean, eta beste egoitza bat adierazten ez badute, klausula honetan aurreikusitakoaren ondorioetarako egoitza gisa hartuko da Triodos Kontu Korronteko lehenengo titularrak adierazitakoa.

**19.4.** Bezeroak eta Triodos Bankek berriazko interesa adierazten dute kontratatutako finantza-produktu edo zerbitzuen ondorioz Bankuak bidali beharreko komunikazio edo informazio oro bide telematikoz euskarri iraunkorren bidez jar dadin Bezeroaren esku. Bide telematikoko horiek bezeroari aukera emango diote informazioa gordetzeko eta berreskuratzeke, informazioaren helburuetarako aldi egokian; eta aldaketarik gabe erreproduzitzeko aukera emango diote. Horrez gainera, Bezeroak edonoiz Triodos Banki eskatu ahaliko dio informazio hori paperezko euskarrian bidaltzeko. Alde horretatik, Bezeroak berriaz onartzen du alderdien arteko kontratuak eta komunikazioak Triodos Banken sistema informatikoetan artxiba daitezzen. Bezeroak haien kopia jaso ahal izango du, kasu bakoitzean ordaindu beharreko komisioa ordaindu ondoren. Artxibo eta grabazio horiek alderdien artean izandako harremanen frogaz gisa erabili ahal izango dira.

Bestalde, Triodos Bankek, bere webgu-

nearne bidez (www.triodos.es) produktu eta zerbitzuen arauketari eragiten dion baina Bezeroarentzat pertsonala ez den informazio orokorra eman ahalko du.

Berebat, Bezeroak Triodos Banki baimena ematen dio, edozein bitartekoren bidez, haren intereseko informazio orokorrala diezaion.

## 20. KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK

Triodos Bankek berariaz ohartarazten du kontratu honetako klausulak Bankuak idatzi dituela aurrez. Beraz, alderdientzat nahitaez aplikatu beharreko egiten dituen xedapen orokor edo espezifiko batek arautu ez dituen edo negoziazio espezifiko baten gai izan ez diren klausulak kontratazioaren baldintza orokor gisa hartuko dira. Triodos Bankekiko kontratugileek berariaz onartzen dituzte klausula horiek eta kontratua, kontratazioaren baldintza orokorrekin buruzko 1988ko apirilaren 13ko 7/1998 Legearekin bat etorrita.

Kontratazio-inprimakia sinatuz, Bezeroak adierazten du informatu dutela kontratu honen baldintza orokorrekin eta entregatu zaiola haren ale bat. Era berean, inprimaki hori sinatuz, adierazten du informatu dutela Triodos Bankek kontratu honetan deskribatutako zerbitzuengatik aplikatuko dizkion tarifaz eta komisioez.

## 21. BESTELAKO XEDAPENAK

**21.1.** Eskubideak, uko egiteak eta konponketak. Bankuak baldintza orokor hauetatik ondorioztatutako eskubide eta akzioak erabili ahal izango ditu, nahi

duen adina alditan, eta, legez bestelako eskubide edo akzioen bat izanez gero, haiei metatuko zaizkie eta ez dituzte baztertuko. Eskubide edo akzio horiei idatziz bakarrik egin ahal izango zaie uko. Eskubide edo akzio horiek berandu erabiltzea edo ez erabiltzea ez da uko egite gisa interpretatuko, eta eskubide edo akzio horiek bakarrik edo partzialki erabiltzeak ez du eragotziko beste bat erabiltzea edo haiek berriz erabiltzea. Bankuak ez du obligaziorik eskubide edo akziorik erabiltzeko.

**21.2.** Deuseztasun partziala. Baldintza orokor hauetako bat desueztat, legez kontratatzat, balio gabetzat edo legeari jarraituz aplikaezintzat jotzen bada, gainerako baldintza orokorrek osorik indarrean iraungo dute, gainerako baldintzen legezkotasunari, baliozkotasunari edo nahitaezkotasunari ez baitio eragingo.

**21.3.** Aurreko baldintza orokorrak. Baldintza orokor hauek aurretiazko edozein baldintza orokor ordeztatu dute. Beraz, aurretiazko baldintza orokorren babesean kontratatutako produktu eta zerbitzuak hauen bidez arautuko dira.

**21.4.** Hizkuntza. Triodos Bank NV S.E. Batez ere Espainian zerbitzuak eskaintzen bere Las Rozasen (Madril) egoitzatik, horregatik, Hitzarmen hau eta kontratuak hainbat Produktu gaztelaniaz idatzita daude eta hizkuntzaren bezero akordioa formalizatu dira (espresuki adostu ezean), telefono bidezko banka landuko dira eta komunikazio bera izango da. Hala ere, hizkuntz erregulazio bereziak dituzten autonomia-erkidegoe-tan bertan bankua bulegoak publikoari bulego horietan hizkuntza eskubideen inguruko bereziak regional araudia errespetatu egingo dira zabalik dauka.

**21.5.** Komunikazioak eta jakinarazpe-

nak. Alderdiek elkarri egin beharreko komunikazio guztiak, honela egingo ditu titularrak: i) helbide honetara idatziz: Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, Las Rozas de Madrid, 28232 Madrid; ii) telefono hauetako edozeinetara deituz: 916404684 edo 902360940. Eta bankuak honela egingo ditu: i) titularrak emandako bizilekuko edota posta elektronikoko helbidera, bai eta titularrak banketxearen webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) duen postontzi pertsonalera ere.

Kontratu honen baliozkotasunaren ondorioetarako, egoki suertatzen diren jakinarazpen, errekerimendu eta eginbideetarako, alderdiek baliozko helbideetat adierazten dituzte titularrarekin sinatutako baldintza partikularretan bakoitzarentzat ageri direnak. Bereziki, titularrak berariazko baimena ematen dio bankuari, jakinarazpen horiek egin ditzan bide fidagarri, auditagarri eta erakunde jakinarazletik independente bat erabiliz, edo bide ziurtatuz, dela paperezko postaz, dela posta elektronikoz, kontratu honetan adierazitako bizilekura, helbide elektronikora edo telefono mugikorreko zenbakira.

**21.6.** Kapital-zuriketaren prebentzioko arauketa. Bezeroak adierazten du informatuta dagoela entitateak kapital-zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari buruz indarrean dagoen arauketa dela eta dituen betebeharreri buruz (Bezeroaren identifikazioari eta haren benetako titulartasunaren, ekonomia-jardueraren eta diruen jatorriaren berri izateari buruzkoak, eta negozio-harremana eza-gutu eta etengabeko jarraipena egiteko behar den arduraren neurriak aplikatu beharrari buruzkoak). Hori guztia dela eta, Bezeroak Bankuari eman behar dio aurreko obligazioetatik ondorioztatutako informazio eta dokumentazio

guztia. Eskakizun horiek bete ezean, Bezeroarekin dagoen negozio-erlazioa desegin egin ahal izango da, eta, halaber, agindu jakin batzuk ez dira beteko.

Ondorio horietarako, kapitalak zuritzearen arauditik eratorritako ondorengo betebeharrak, neurri eta baimen hauek onartzen ditu Bezeroak:

a) Bezeroak onartzen du ezen, identifikazioari, benetako titulartasunari edo diruen jatorriari buruzko dokumentu-eskakizunei behar bezala erantzun ezean, edo Bezeroak egindako eragiketetatik eratorrita zuritze-araudiari lotutako arriskuak nabari badira, Bankuak kontuen eragiketak blokeatu ahalko dituela, eta kontratatuta dituen produktu-kontratuak ezeztatu.

b) Triodos Bank NV SEri baimena ematen dio Bezeroak, edozein erakunde publiko nahiz pribaturi Bezeroaren jardueraz edo identitateaz informazioa eskatzeko.

c) Bezeroak onartzen du betebeharrak duela, Bankuak hala eskatuz gero, bizi-fedea edo antzeko dokumentua aurkeztea, edo Bankuaren bulego batera etortzea, Bezeroaren identitatea eta bizirik dagoela egiaztatzearen.

**21.7.** Interes-gatazkak kudeatzearen arloko politika. Triodos Bankek politika eta prozedura batzuk ditu, Triodos Banken, haren enplegatuen eta Bezeroen artean eta erakundearen arloen artean interes-gatazkak sortzea prebenitzeko. Politika eta prozedura horien erreferentziak [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunean kontsulta daitezke.

**21.8.** Legedia eta jurisdikzio aplikagarria. Kontratu hau eta dokumentu ho-

netan zehaztutako gainerako kontratu eta zerbitzuak Espainiako legedian eta jurisdikzioan ezarritakoak arautzen ditu, salbu eta Triodos Bank Akzioetarako Gordailuen Ziurtagiriak (AGZ), Herbehereetako legedian ezarritakoak arautzen baititu azken horiek. Ondorio horietarako, ulertzen da Espainian gauzatzen direla kontratu honetatik eratorritako ordainketa-zerbitzuak eta kontratatutako banku-produktu eta -zerbitzuetatik eratorritako ordainketa guztiak.

**21.9.** Aurretiazko informazioa. Kontratu hau eskuragarri dago Bankuaren webgunean eta bulegoetan, eta bezeroari garaiz entregatzen zaio, kontratua egin aurretik, Triodos Bank NV SEk merkatu-ratutako zerbitzu eta produktuen izaera eta ezaugarriak aintzat hartuta.

Bankuak Bezeroaren eskura jartzen du, euskarri iraunkorrez, [www.triodos.es](http://www.triodos.es) webgunearen bitartez, aurretiazko informazio egokia, gai hauek hartuta: (i) Bankua; (ii) eskainitako produktu eta zerbitzuak —beste dokumentu batzuen artean, Kontratuurreko Informazioko Fitxen bitartez—; (iii) kontratazio-kanalak; (iv) aurreko hiru hilekoan maizenik aplikatutako baldintzak; (v) aplikazio-politiken deklarazioa; eta (v) beste dokumentu eta informazio nabarmen batzuk, hala nola Gordailuen Bermeko Funtzari buruzkoak, hipoteka-mailegura sartzeko gida, indarrean diren tarifak edo urrutiko finantza-zerbitzuak kontratatu aurreko informazioa.

## **22. ZERGA-BETEBEHARRAK ETA GIZARTE SEGURANTZAREN ATXIKIPENAK, INFORMAZIOA, BAHITURAK ETA PRESTAZIOAK (PENTSIOAK)**

Bankuak une oro beteko ditu zerga-betebeharrak eta dagozkien erakunde publikoei informazioa ematearen betebeharrak. Zehazki, Bezeroari ordaindutako interesen, dibidenduen eta gainerako errendimendu-modalitateen gainean Administrazioaren edo erakunde eskudunaren aldeko atxikipenak egingo ditu, unean-unean aplikagarri den zerga-araudiaren arabera indarrean dauden tasak aplikatuz.

Bezeroak adierazten du informatuta dagoela eskumena duten agintari judizial edo administratiboek egindako informazio- edo bahitura-eskaera judizial eta administratiboak betetzeko Bankuak duen obligazioari buruz.

Gizarte Segurantzaren edo gizarte-aurreikuspeneko beste edozein organismo publikoren prestazioak jasoz gero, Bezeroak berariazko baimena ematen dio Bankuari organismo horretatik jasotako prestazioak itzultzeko, haiek jasotzeko eskubidea iraungitzen denean. Indarrean dagoen legeriaren arabera, Bankuak Bezeroarekiko obligazio solidarioa badu bidegabeki jasotako kopuru edo prestazioak itzultzeko. Hil diren eta prestazio horien hartzaile diren Bezeroen kontuetan baimendutakoek edo titularkideek bidegabeki jasotako Gizarte Segurantzako prestazioen itzulketengatik ordainketak jasan behar baditu Bankuak, berariaz ezartzen da titularkide edo baimendu horiek izango dutela erantzukizuna, Bankuaren aurrean, Bankuak egin behar izan dituen prestazioen zenbatekoaren itzulketa horiengatik.

CRS (Common Reporting and Due Diligence Standard): Europako Kontseiiua-ren 2G14ko abenduaren 9ko 2G14/1G7/ EB Zuzentarauan (zerga-arioan informazioa trukatzearen nahitaezko-tasunari buruzkoa) ezarritakoa eta finantza-kontuen

informazioa auto-matikoki trukatzeari buruzko ELGEren araudia (gjobai standard for automatic exchange of financial account information) apiikatu, bai eta 1021/2015 Errege Dekretua (2015eko azaroaren 13koa, zenbait finantza konturen titulartasuna edo kontrola duten pertsonen zerga egoitza identifikatzeko eta elkarren laguntzaren arloan haien berri emateko betebeharrak ezartzen duena) eta hala Espainian nola nazioartean gerora garatzen edo aldatzen dituen araudia ere, Triodos Bank NVSE behartuta dago Bankuaren bezeroei buruz zerga-garrantzia duen informazioa eskuratzea.

Horretarako, Bezeroak baimena ematen dio Triodos Bank NVSEri, zerga-garrantzia duen finantza-informazioa eta kapital-zuritzea prebenitzearen nahiz terrorismoa finantzatzearen arloko informazioa Espainiako agintari publikoei (zerga-agintariak barne) eman diezaien, unean-unean indarrean den araudian ezarritakoari jarraituz.

Orobat, bezeroa beste edozein Estatutako zerga-egoiliartzat har daitekeelako zantzuak dauden kasuetan, Estatuko zerga-legediari, beste Estatukoari edo nazioarteko itunei jarraituz; edota, bezero horrek irekitako kontuak agintaritzak eskudunari informazioa komunikatzeko betebeharrari lotuta dauden kasuetan, bezeroa obligatzen da Triodos Bank NVSEri ematera unean-unean legez ezarritako arreta egokiaren prozedurak betetzeko beharrezko informazio edo dokumentazioa, bezeroarengandik zerga-egoitzaren deklarazio bat edo zerga-egoitza horren dokumentuzko frogak (Bankuaren iritziz aski dena) lortzeko aukera barne.

FATCA: 2014ko ekainaren 30eko HAP/1136/2014 Aginduan (nazioarteko zerga-betebeharrak hobeto betetzearren eta atzerriko kontuetako zerga-betebeharraren Ameriketako Estatu Batuetako legea

aplikatzearen Espainiako Erresumaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko hitzarmenean ezarritako informazioko eta arreta egokiko betebeharrari lotutako gai batzuk arautzeko) edo gerora hura ordeztzen duen hartan ezarritakoari jarraituz, eta atzerriko zergapekoen kontuen zerga-kontrolari buruzko arauzko gainerako eskakizunei jarraituz, Bankuak Estatu Batuekiko zerga-loturaren bat duten Bezeroak identifikatu beharko ditu.

Bezeroak deklaratu du ez dela Estatu Batuetako herritarra edo egoiliarra, herrialde hartako subjektu zergapekoa izatearen ondorioetarako, eta ez dela halakoa den ezein pertsonaren onurarako edo ordezkari gisa jarduten ari.

Bezeroaren zerga-araubidea aldatuz gero eta Ameriketako Estatu Batuetako herritar edo egoiliar bihurtuz gero, Triodos Banki idatziz jakinarazi beharko dio, gehienez ere hogeita hamar (30) eguneko epean. Jakinarazpen horrekin batera, W9 edo W8 inprimakia aurkeztu beharko da, kasuan kasu, edo horien ordezkari etorkizunean izendatutakoak, behar bezala beteta. Triodos Bank N.V. banketxeak ez du bezerorik onartzen bizilekutzat duenik Ameriketako Estatu Batuetako (AEB) edo U.S. Securities and Exchange Commission (SEC) erakundearen mendeko AEBen lurraldeak. Kasu horietan, Triodos Bank N.V. Espainiako Sukurtsalak bere esku gordetzen du kontratua aurrez deuseztatuzeko ahalmena, 14. klausulan ezarritako baldintzetan.

Bezeroa jakinaren gainean geratzen da Triodos Banken betebeharrak dela Espainiako zerga-agintariei zerga-garrantzia duen informazio jakin bat — kapital-zuritzearen arlokoa — ematea, Espainian indarrean den araudiarekin eta Espainiak eta Estatu Batuek izenpetutako nazioarteko itunarekin bat. Bezeroak bere adostasuna ematen

du, Bankuak informazio hori eman dezan, erakunde eskudunek ezarritako eskakizunei eta datei jarraituz.

Eragindako Bezeroak onartzen eta onesten du Bankuak berebat baliagarri eta beharrezko diren neurri guztiak har ditzakeela, eskakizun horiek betetzeko, eta hitzematzen du ondorio horietarako eskatutako dokumentazioa emango duela lehenbailehen.

Estatu Batuetako lege-xedapenen —eta, bereziki, zerga-xedapenen— bilakae-rak eraginda, gerta daiteke Bankuaren betebeharrak indartzea, bereziki Bezeroen eta egiazko onuradunen identifikazioaren arloan. Daitekeena da indartze horrek Estatu Batuekiko loturei eta konexioguneei eragitea.

Horiek horrela, Bezeroak onartzen eta onesten du ezen, araudi horrek behartutako subjektu izatearen zantzurik badenean, zergapekoa ez dela frogatze aldera Bankuak eskatutako informazio eta egiaztagiri guztiak ematen ez badira, Estatu Batuekiko lotura edo konexioguneak dituen bezerotzat jo ahalko dela. Hala izanez gero, egintza horrek dakartzan zerga- eta finantza-ondorioek eragingo diote. Bankuak irizten badio ez dagoela bere betebeharrak betetzeko moduan, orobat baimenduta egongo da Estatu Batuetatik datorren edo Estatu Batuekin loturarik edo konexiogunerik duen agintzaile batena den edozein transferentzia arbuizatzeko.

Benetako titularren zerga egoitza identifikatzearen, eta klausula honetan ezarritako ondorioetarako galdatzekoak diren deklarazio eta dokumentuei dagokienez, horiek Triodos Banki ez emateak ekarriko du kontu korrontean ez egitea kargurik, abonamendurik, ez eta beste eragiketarik, horiek ekarri arte. Era berean, bezeroa da betebeharrak hori betetzearen arduradun bakarra. Beraz, osorik bere gain hartuko ditu Triodos

Bank N.V. SE banketxeari legozkiokeen zigor ekonomikoak edo bestelakoak (halakorik izanez gero, bezeroari ordainaraziko zaizkio), edota bezeroari berari legozkiokeenak, unean-unean eskatutako dokumentazioa emateko bezeroaren betebeharra bezeroak bete ez duela eta.

Bezeroak ez baditu betetzen, baldintza orokor honetan ezarritako betebeharrak, negozio-harremana deuseztatu ahalko da, 14. baldintza orokorrean adierazitakoari jarraikiz.

## 23. GARDENTASUNA, LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA

Triodos Bank NV SEk egindako eragiketean, banku-eragiketen gardentasunari eta bezeroaren babesari buruzko arauak aplikatzen dira. Kontratu hau Espainiako legeriaren eta jurisdikzioaren mende dago.

# // 2 atala

## Urrutiko banka zerbitzuak

### 24. XEDEA

Atal honen bidez, Triodos Bank NV SEk eta Bezeroak urrutiko banka-zerbitzuak erabiltzean dituzten harremanak arautzen dira. Zerbitzuok aukera ematen diote Bezeroari eragiketak agintzeko, aginduak emateko, kontuak begiratzeko eta, oro har, Bankuarekin baliozko moduan komunikatzeko, telefonoz eta Internet bidez (edo etorkizunean sor daitezkeen eta aurrez Bezeroari jakinaraziko zaizkion bitartekoen bidez), Bankuak emandako identifikazio- eta segurtasun-gakoen sistemak erabiliz. Kontratazio telefonikoari eta elektro-nikoari buruz indarrean dagoen legeriaren mende egongo da beti zerbitzu hori.

### 25. URRUTIKO BANKA-ZERBITZUA ERABILTZEKO IDENTIFIKAZIO- ETA SINADURA-TRESNAK

Bezero eta baimendun edo ahaldun bakoitzak urrutiko banka-zerbitzuak jaso ahal izango ditu, erabiltzaile-izena eta erabilera pertsonal eta konfidentzialeko pasahitza (Bezeroak aldatuko du). Datu biak batera, aurrerantzean, «sarrera gakoak» edo besterik gabe

«gakoak» deitu ahalko dira. Tresna horiek guztiak pertsonalak eta besterenezinak dira. Aipaturiko tresnen bidez, Triodos Banken Telefono bidezko Banku eta Internet bidezko Banku bidezko eragiketa guztiak urrunetik egin ahal izango dituzte Bezeroek edo baimendun/ahaldunek. Bankuak urrutiko identifikazio- eta sinadura-mekanismoak aldatu ahal izango ditu, hobekuntza teknologikoetara, segurtasun-hobekuntzetara edo bestelakoetara egokitzeko.

Alderdiek onartzen dute tresna horiek juridikoki parekatzea bezeroak eskuz idatzitako sinadurari. Hala eta guztiz ere, Triodos Bank NV SEk aginduak eskuz idatzitako sinaduraz baieztatzea galdatu ahalko du, beharrezko deritzon edo edozein egiaztapen egitea aholkatzen duten inguruabarrak daudenean.

Bezeroaren funtsezko betebeharrak bat da aipaturiko identifikazio- eta sinadura-tresnak isilpean gordetzea, hirugarrenei jakinarazi gabe, eta beti leku seguruan edukitzea. Galdu, ebatsi edo lapurtuz gero, edo tresna horien isilpekotasunari eragin diezaiokkeen beste edozein gorabehera izanez gero, Bezeroak Bankuari jakinarazi behar dio berehala. Bankuari

halakorik jakinarazten ez zaion bitar-tean, ez du erantzukizunik izango epe horretan egindako eragiketen gainean.

Bezeroari Triodos Bank NV SEren Te-  
lefono bidezko Bankurako eta Internet  
bidezko Bankurako sarbidea eman on-  
doren, ulertuko da baliozko moduan egin  
direla, aipaturiko tresnen bidez jasutzen  
diren datu guztien edo batzuen bidez,  
kontratatu dituen produktu edo zerbit-  
zuei buruzko informaziorako sarbidea,  
betearazteko aginduen igorpena eta  
edozein produktu edo zerbitzuren kon-  
tratazioa. Hori dela eta, informazioaren  
gizartearen zerbitzuei eta merkataritza  
elektronikoari buruzko 2002ko uztai-  
laren 11ko 34/2002 Legearen arabera,  
aipaturiko gako eta tresnen bidez Beze-  
roak ematen dituen aginduak dagokion  
agindua emateko edo kontratazioa egi-  
teko eraginkortasun juridiko osoa duen  
baliozko adostasun gisa hartuko dira.

Triodos Bank NV SEk EMV txartelak (txip  
integratuaz hornituak) jaulkitzen baldin  
baditu, alderdiek orobat onartzen dute  
ezkutuko pasahitza (PINa) sartzeta eta  
txartela erabiltzea juridikoki parekatzea  
bezeroak eskuz idatzitako sinadurari.

Triodos Bankek contactless teknologia-  
zko («kontakturik gabeko teknologia»  
edo «kontakturik gabeko ordainketak»)  
txartelik jaulkiz gero, alderdiek onartzen  
dute haien titularraren sinadura auto-  
grafoaren berdina izango dela, juridikoki,  
titularrak txartela hurbiltzea kutzazain  
automatikoetara, saltokiko termina-  
letara edo beste kobrantza tresna  
batzuetara, transakzioa egin dadin. Ho-  
rrekin bat etorrita, txartelaren titularrak  
onartzen ditu contactless teknologiako  
txartelen bidez egindako eragiketa  
guztiak, bankuak txartelaren titularra  
identifikatzeko bitartekorik eskatu gabe

egin direnak (eragiketako gehienez 20  
euroren ordainketak). Hala ere, Triodos  
Bankek eskatu ahalko ditu titularraren  
sinadura autografoa, txartelaren gako  
sekretua (PINa) sartzeta, edota hit-  
zartutako beste edozein identifikazio  
sistema, une bakoitzean eta herrialde  
bakoitzean contactless teknologiako  
txartelak erabiltzeari buruz indarrean  
diren baldintza espezifikoek jarraituz.  
Eta, betiere, segurtasun arrazoiengatik,  
txartela erabiltzen ari den titularra iden-  
tifikatzeko aurreko bitarteko horietako  
edozein exijitu ahalko du bankuak.

Era berean, Triodos Bank NV SEren sis-  
tema eragileek txartel kriptografikoetan  
ezagutu eta onartutako erabiltzaile-  
ziurtapen digitalak onartzen baldin ba-  
dituzte, Bankuak onartzen dituen horiei  
buruz, alderdiek hitzartzen dute haien  
erabilera eta ziurtapeneko pasahitz  
sekretua (PINa) sartzeta parekatzea  
bezeroak eskuz idatzitako sinadurari.

Bezeroak produktuaren edo zerbit-  
zuaren kontratazioa eskuzko sinadura  
elektronikoz edo eskuzko sinadura  
digitalizatuz sinatu duenean, bezeroak  
hitzematen du sinaduraren zuzenta-  
suna egiaztatu eta baliozkotuko duela  
aurrez, eta berea dela onartuko duela  
dokumentua edo kontratua sinatu-  
takoan. Eta, beharrezko denean, baime-  
na ematen du bitarteko elektronikoko edo  
telefonikoak erabil daitezen, kontratazio  
prozesua behar bezala osatzeko. Beze-  
roak onartzen du idazketa edo sinadura  
biltzeko edota digitalizatzeko gailuen  
baliozkotasuna. Ondorioz, papereko  
formatuan sinatuz egindakoen balio  
bera ematen die kontratu eta dokumen-  
tu horiei. Hala sinatutako kontratu eta  
dokumentuak banketxeak gordeko ditu,  
aplikatzekoa den legedian zehaztu-  
takoari jarraituz aski bermerekin. Atal



honetan azaldutakoarekin bat etorrita jasotako bezeroaren sinadura, betiere, datu pertsonalak tratatzeari buruzko legezko eta kontratuzko xedapenen mende izango da.

Triodos Bank NV SEren Telefono bidezko Bankuko eta Internet bidezko Bankuko zerbitzuak eskura izan arren, aginduak edo finantza-produktu edo -zerbitzuen kontratazioak egiteko, Bezeroak aukera du edozein bulegotara joateko edo, dagokion moduan sinatuta, Triodos Bank NV SEren zerbitzu nagusietara edo edozein bulegotara agindu idatzi bat bidaltzeko. Idatzizko aginduetan, modu egokian jaso behar dira dagokion eragiketara egiteko behar diren datu guztiak. Alderdiek adosten dute baliozkotasun juridiko bera dutela sinadura autografoak eta aurrez aipaturiko identifikazio-mekanismoen bidez egindako sinadura elektronikokoak.

## 26. SEGURTASUNA ETA ERANTZUKIZUNA

Triodos Banken segurtasun-prozeduretan jasotako transferentzia-eragiketak edo funtsen xedapen-eragiketak edo agindu-emailearen identitateari buruzko arrazoizko zalantza bat sortzen dutenak, Bezeroak beste inork ezingo ditu egin, berariazko eta idatzizko agindu bidez edo Telefono bidezko Bankuaren bidez. Berebat, funtsetan mugimenduak egiteko transakzioetan, Bankuak segurtasun-sistema gehigarriak eskatu ahal izango dizkio Bezeroari eta baimendu edo ahaldunari, haren autentifikaziorako beharrezko irudituz gero. Telefono bidezko Bankuko eta

Internet bidezko Bankuko zerbitzuetara sartzen saiatzean datu okerrak sartuz

gero, edo eragiketak agintzen dituen pertsonaren identitateari buruzko arrazoizko zaiantzak sortzen direnean, Triodos Bankek gakoak biokeatu eta ezgaitu egin ahal izango ditu automatikoki.

Gakoak birgaitzeko, Bezeroa modu egokian identifikatu behar da, Bankuaren prozedurek ezarritako eskakizunekin bat. Halaber, segurtasun- eta identifikazio-arauak eta apiikatzekoa den araudia babesteko heburuz, Telefono bidezko Bankuko kudeatzaileek, aipaturiko gakoek gainera, beste datu batzuk eskatu ahal izango dituzte Bezeroaren identitatea baieztatzeko, edo, Triodos Bank NV SEk zehazturiko kopuru jakin batzuk gainditzen dituzten xedapen-eragiketen kasuan, emandako agindua berrestea eska dezakete, unean-unean ezarritako segurtasun baliabideak erabiliz, aukeretako bat izanik zerbitzuaren kudeatzaileek Bezeroari deitzea (segurtasun-galderak eta baieztatze-deiak).

Bezeroak eta baimendu edo ahaldunak konpromisoa hartzen dute gakoak arduraz zaintzeko, hirugarrenek gako horiek —guztiz edo partziaiki— zein diren jakitea gaiaraziz, eta bere gain hartzen dute Triodos Banki egindako komunikazioa baino iehean —hurrengo paragrafoan adierazten da— egindako erabierara desegokien gaineko erantzu-kizuna.

Bezeroek eta baimendu edo ahaldunek berehaia jakinarazi behar diote Triodos Banki beren gakoak eta telefono mugikorraren zenbakia galdu egin direia, iapurtu edo ebatsi egin dizkieteia edo hirugarrenek —guztiz edo partziaiki— badakizkieteia, Bankuak berehaia balio-gabetu, aldatu eta ordeztu ditzan.

Triodos Bank NV SEri beren gakoak galdu egin direla, lapurtu edo ebatsi egin dituztela edo hirugarrenek —guztiz edo

partzialki— badakizkitela esan baino lehen, edo Triodos Bank NV SEk, beste modu batera, halakorik gertatu dela jakin aurretik, Bezeroak berariazko baime-na ematen dio Bankuari gakoan aurretik emandako aginduen arabera jarduteko, aginduok Bezeroa edo baimendua ez den hirugarren batek egin arren, eta Triodos Bank NV SE salbuetsita geratzen da eragiketa horiek eragindako erantzukizun orotik.

Bankuak inoiz ere ez ditu eskatuko identif ikazio-mekanismoak edo gakoak posta elektronikoko bidez. Bezeroak arreta osoz jokatu behar du iruzurrezko posta elektronikoen edo aldatuta dauden webguneen aurrean. Halaber, Bezeroak eguneratuta eduki behar ditu segurtasun-sistemak zerbitzura konektatzeko erabiltzen dituen ordenagailuetan, mugikorretan eta gainerako gailu elektronikoen; adibidez, antibirusa eguneratuta izan beharko du, edo sistema eragilearen segurtasuneko neurri guztiak instalatu.

Bezeroak badaki eta onartzen du, bitarteko elektronikoen bidez eskaintzen dizkieten zerbitzuetan eta ematen dioten informazioan, Internet- edo telefono-zerbitzuak ematen dituzten hirugarren hornitzaileek parte hartzen dutela. Hortaz, Triodos Bank NV SEk ez du bermatzen komunikazio elektronikoen Bezeroaren ordenagailuetan ondo jasoko direnik, ez eta zer ordu eta egunetan jasoko diren ere. Bezeroak Triodos Bank NV SE salbuesten du, komunikaziook ez jasotzearen edo berandu jasotzearen ondorioz, Bezeroari edo hirugarrenei sor dakizkiekeen kalte-galeretatik, eta, Triodos Bank NV SEk ezagutzen ez dituen arrazoiengatik, telefonian edo Interneten sortutako eten, birus informatiko, matxura telefoniko

edo deskonexioetatik, Triodos Bank NV SEren Datuak Prozesatzeko Zentroan telefono-lineen hutsune edo gainkargen ondorioz sortutako atzerapen edo blokeoetatik, eta sistema telefoniko edo elektronikoen modu ez-legitimoan sartuz hirugarrenek sor ditzaketen kalteetatik. Komunikazioak osorik jasotzen direla ziurtatzeko, dagokion komunikazio edo agindua egiaztatzeko mezu bat edo jaso izanaren adierazpen bat bidaliko dio Triodos Bank NV SEk Bezeroari, kasu bakoitzean egokien iritzitako kanal edo bitartekoaren bidez.

Bezeroak berariaz adierazten du Triodos Bank NV SEk Internet bidez eta telefonoz eskaintzen dituen eta haren webgunean eskura dauden zerbitzuen segurtasun- eta pribatutasun-baldintzen jakitun dela eta onartzen dituela.

## 27. TARIFAK, GASTUAK ETA KOMUNIKAZIOAK

Triodos Bank NV SEren Internet bidezko Bankura konektatzeko eta sartzeko behar diren baliabide teknikoak, ekipamendu informatikoak eta komunikazio-lineak (Bezeroak badituela deklaritzen du), eta haiek erabiltzean kontsumitutakoa, Bezeroaren eta baimendu edo ahaldunen kontura izango dira.

Hala dagokionean, urrutiko bankazerbitzuak Tarifa Liburuan ageri diren komisio eta gastuen mende egongo dira (Bezeroaren eskura daude Triodos Bank NV SEren webgunean).

Bezeroak baimena ematen dio Bankuari urrutiko banka bidez edo beste ordainketa-modu batzuen bidez egindako eragiketen komunikazioak bidal diezazkion posta elektronikoz, buzoi birtualaz edo telefono mugikorrera bidaltzeko mezu

bidez, segurtasun-maila handitzearren eta Bezeroak bere izenean egindako eragiketen informazioa berehala jasotzeko eta erreakzionatzeko aukera izan dezan. Halaber, baimena ematen du, egindako transakzioak edo egiteke daudenak direla eta, segurtasun-neurri gisa, Bankua Bezeroarekin harremanetan jar dadin, telefono finko edo mugikor bidez, posta elektronikoko edo arrunt bidez edo beste-lako bitartekoen bidez.

## **28. BEZEROAREN ETA TRIODOS BANK NV SEREN BERARIAZKO ADOSTASUNA TELEFONO BIDEZKO ELKARRIZKETAK ETA KOMUNIKAZIO ELEKTRONIKOAK ERREGISTRO MAGNETIKOETAN GRABATZEKO**

Bezeroek eta Triodos Bankek berariazko eta atzera bota ezinako adostasuna adierazten dute, Telefono bidezko Bankuko eta Internet bidezko Bankuko zerbitzuak direla eta, haien artean telefono bidez izandako elkarrizketak eta komunikazio elektronikokoak grabatzeko. Alderdi bien artean zuzenean edo zeharka sortutako edozein prozedura judicial edo arbitaletarako frogatzat erabil daitezke grabazio horiek.

Kontatutako grabazioetako eta komunikazioetako Erregistroa mantenduko da bosteko (5etako) aldi txikienean zehar urteak.

Bezeroak grabazio eta erregistroon kopia bat jaso ahal izango du, gorabeheraren bat izanez gero, edo egoki iritzitakoan; azken kasuan, komisioen tarifetan adierazitako komisioa sortuko da.

Hori gorabehera, Bankuak frogagiri bat bidaliko dio Bezeroari, euskarri iraunkorrean (lehentasunez, elektronikoa) edo

urrutiko kontrataziorako egokia den beste edozein bitartekoren bidez, dagokion epean egindako eragiketak egiaztatzeko.

Bezeroak mailegu bat edo Triodos Bank NV SErentzat arriskutsua den beste edozein eragiketa eskatuz gero, Espainiako Bankuko Arriskuei buruzko Informazio Zentraleko txostenak jasotzeko duen eskubidea erabiliko du hark. Berebat, Triodos Bank NV SErentzat arriskutsua den edozein eragiketa adosten badu Bezeroarekin, dagozkion datuak Espainiako Bankuko Arriskuei buruzko Informazio Zentralera bidaliko ditu, indarrean dagoen araudiarekin bat. Dagokien jardueran diharduten banakako enpresarien arriskuen kasuan, ezaugarri hori adierazi behar da arrisku-adierazpenean.

# // 3 atala

## Ordainketa zerbitzuen legean jasotzen diren kontratu orokorreari eta produktu kontratuei aplikatzen zaien esparru kontratua

### 29. ATAL HONEN XEDEA ETA IZAERA

**29.1.** Atal honen xedea da pertsona fisiko eta juridiko diren Bezeroekiko harremana arautzea, ordainketa-zerbitzuen erabiltzaile diren aldetik, ordainketa-zerbitzuei buruzko 2009ko azaroaren 13ko 16/2009 Legearekin bat (hemendik aurrera, OZL).

**29.2.** Atal honetan berariaz arautu gabeko arloetan, agintzailearen eta onuradunaren ordainketa-zerbitzuen hornitzaileen egoitza Europar Batasunean izanez gero, zuzenean aplikatuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012ko martxoaren 14ko (EB) 260/2012 Erregelamendua (eurotan helbideratutako zordunketa eta transferentzietarako teknika- eta enpresa-betekizunak ezartzen dituen);

Europako Ordainketa Kontseiluaren (EPC) SEPA oinarrizko zordunketa zuzenen eskemako funtzionamendu-arauak (rulebook); eta OZL eta hura garatzen duen araudia, lehentasunez Bezeroak aurrez sinatutako kontratuen aurrean.

**29.3.** Atal honetan jasotzen den ordainketa-zerbitzuen arauketa bereziak lehentasuna izango du Bankuaren Kontratu orokorretan edo produktu-kontratuetan jasotako beste edozein erreferentziaren aurrean.

**29.4.** Titularra enpresatzat edo profesionaltzat hartzen denean —hau da, kontsumitzaileen trataera jasotzen ez duenean—, alderdiek adosten dute ez direla aplikatuko atal honetako 36. klausulatik 39.era bitartekoak, ez eta OZLko III. titulua eta aipatu legeko 24.1, 25.1 (lehenengo paragrafoko azken koma-

arte), 30., 32.-34., 37. eta 45. artikulua eta izan ditzaketen garapenak ere. Kasu horretan, alderdiek adosten dute ez dela aplikatzekoa ordainketa-zerbitzuek izan beharreko informazio-baldintzen gardentasunari buruzko 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 Agindua.

**29.5.** Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, pertsona fisikoaren Bezeroa kontsumitzailetzat joko da, baldin eta kontratatutako produktua edo zerbitzua haren ekonomia-, merkataritza- edo enpresa-jarduerarekin lotuta ez badago, eta, hasieran edo gerora —kontratua indarrean dagoela— unean-unean kontratatutako produktu edo zerbitzu berrien bidez jasotako dokumentazioaren arabera, inguruabar hori erakundearentzat nabarmena ez bada.

**29.6.** Atal honetan ezarritakoaren ondorioetarako, honela definitzen dira:

a) Transferentzia: Estatuko edo mugaz gaindiko ordainketen zerbitzua, onuradun baten kontu batean abonamendu bat —mailegatua— egiteko helburua duena, agintzailearen ordainketa-kontuaren titularra den ordainketa-zerbitzuen hornitzailearen aldetik edo Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A., S.M.E., aipaturiko sozietateak Triodos Bank artean sinatutako akordioaren esparruan utzitako posta bidezko igorpeneko komunaren emaitza bezala Sociedad Estatal Correos y Telégrafos, S.A., S.M.E. aipaturiko akordioa indarreko egon dadin bitartean.

b) Zordunketa helbideratua: Estatuko edo mugaz gaindiko ordainketen zerbitzua, agintzaile baten ordainketa-kontu batean kargu bat egiteko helburua duena,

ordainketa-eragiketa onuradunak abiatzen duenean, agintzaileak emandako onespenean oinarriturik (SEPA zordunketa zuzenak bi aldaera dituzte: (i) oinarritzko modalitatea, CORE, eta (ii) enpresek, autonomoek edo profesionalek soilik erabiltzeko modalitatea, B2B).

c) Agintzailea: ordainketa-kontu baten titularra den pertsona fisiko edo juridikoa, kontu horretatik abiatuta ordainketa-agindu bat baimentzen duena. Edo, agintzailearen ordainketa-kontu bat izan ezean, onuradun baten ordainketa-kontu batera ordainketa-agindu bat bideratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa. SEPA zordunketa helbideratuetan, agintzailea da zorduna.

d) Onuraduna: ordainketa-kontu baten titularra den pertsona fisiko edo juridikoa, ordainketa-eragiketa bat egin zaien diruen hartzaile aurreikusia dena. SEPA zordunketa helbideratuetan, onuraduna da kobrantzak hastearren zordunaren agindua jasotzeko duen hartzekoduna, eta zordunketa helbideratuaren zenbatekoa kargatzen zaion ordainketa-kontuaren Titularra da zorduna.

e) Ordainketa-agindua (manua): agintzaile edo onuradun batek ordainketa-zerbitzuen bere hornitzaileari bideratutako jarraibidea, ordainketa-eragiketa bat gauzatzea eskatzekoa.

f) SEPA zordunketa zuzenak: helbideratze manua edo agindua, zeinaren bitartez zordunak hartzekodunari baimena eta onespena ematen dion, zordunak adierazitako kontuan kargatuz kobrantzak has ditzan. Orobat, zordunaren erakun-

deari baimena ematen dio, hartze-kodunaren banketxeak kobrantzara aurkeztutako zordunketak bere kontuan karga ditzan.

Manuak zordunak izenpetua izan behar du, kargu-kontuaren Titulartzat edo hark emandako ahala duen pertsonatzat, zordunketak kobratzeari ekin aurretik. Manu izenpetuak biltegitratuta geratu behar du, hartzekodunaren eskuetan, indarrean den bitartean; eta, behin kitatuz gero, dokumentuak gordetzeko legez ezarritako gehieneko epean.

SEPA zordunketa zuzeneko tresnetarako, hartzekodun batek ez baditu aurkezten baliozko manu baten araberrako zordunketak, 36 hilabetean (azken zordunketaren egunetik zenbatzen hasita, berdin diolarik zordunketa hori ordaindu zen, arbuaiatu zen, zordunketa itzuli zen ala dirua itzuli zen), manua iraungita geratzen da, eta, horrenbestez, ezingo du manu horri atxikitako beste kobrantzarik abiatu, eta beste bat sortu beharko du etorkizuneko kobrantzetarako.

SEPA zordunketa zuzenaren kasu horietan, manu berri bat jaulki beharko da kasu hauetan: (i) CORE modalitatetik B2B modalitatara (edo alderantziz) eskema-aldaketa bat gertatzen denean; (ii) zordun-aldaketa bat dagoenean (horretarako, sinadura berria eskatu beharko dute); (iii) aurkeztutako azken zordunketaren egunetik 36 hilabete igarotakoan (baita zordunketa hori arbuaiatu edo itzuli bada edo dirua itzuli bada ere). Azken kasu horretan, izan ere, igarotako denboragatik ezeztatua izan beharko da.

g) ordainketa tresna: ordainketa zerbitzuen erabiltzailearen eta ordainketa zerbitzuen hornitzailearen artean hitzartutako prozedura multzoa edota edozein gailu pertsonalizatu, ordainketa agindu bat abiatzeko erabiliak.

h) Ordainketa kontua: ordainketa zerbitzuen erabiltzaile baten edo batzuen izenean dagoen kontu bat, ordainketa eragiketak gauzatzeko erabilia.

i) Ordainketa agindua: agindu-emaile edo onuradun batek bere ordainketa zerbitzuen hornitzaileari emandako jarraibidea, ordainketa eragiketa bat gauzatzeko eskatzen duena.

j) Balio data: ordainketa kontu batera abonatu edo kargatutako funtsen gaineko interesa kalkulatzeko erreferentziatzat ordainketa zerbitzuen hornitzaile batek erabiltzen duen unea.

k) Identifikadore bakarra: ordainketa zerbitzuen hornitzaileak zerbitzu horien erabiltzaileari zehaztutako letra, zenbaki edo zeinuen konbinazio bat, ordainketa eragiketa batean erabiltzaile horrek ordainketa zerbitzuaren beste erabiltzailea edota beste erabiltzaile horren ordainketa kontua dudarik gabe identifikatzearen eman beharrekoa.

l) IBAN: nazioarteko ordainketako kontu baten zenbaki identifikatzailea, Europar Batasuneko kide den estatu batean ordainketa kontu indibidual bat dudarik gabe bereizten duena. Haren elementuak Nazioarteko Normalizazio Erakundeak (ISO) zehazten ditu.

m) Egun balioduna: ordainketa

eragiketaren gauzatzean parte hartzen duten agindu-emailearen edo onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileen merkataritza jarduera irekita dagoen eguna, ordainketa eragiketa bat gauzatzeari dagokionez. Telematikoki kontratatutako ordainketa kontuen kasuan, kontratatu den ordainketa zerbitzuen hornitzailearen sozietate egoitza dagoen tokiari dagokion egutegiari jarraituko zaio.

n) Ordainketa zerbitzuen hornitzailea: Espainian edo kide den edozein estatutan ordainketa zerbitzuak egiteko baimendutako pertsonak, entitateak eta erakundeak (berdin dio ea oinarri hartzen duten edo ez Barne Merkatuko Ordainketa Zerbitzuei buruzko 2015eko azaroaren 25eko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/2366 Zuzentarauko 32 eta 33. artikuluetan jasotako salbuespenetan), bai eta hirugarren herrialdeetakoak ere, ordainketa zerbitzuak egiten lanbidez dihardutenak.

o) Ordainketa abiatzeko zerbitzua: ordainketa zerbitzuaren erabiltzailearen eskariz, ordainketa zerbitzuen beste hornitzaile batekin irekitako ordainketa kontu bati dagokionez, ordainketa agindu bat abiatzea ahalbidetzen duen zerbitzua.

p) Kontuei buruzko informazioko zerbitzua: online zerbitzu bat helburutzat duena ordainketa zerbitzuaren erabiltzailea titulartzat duen ordainketa kontu bati edo gehiagori buruzko informazio agregatua ematea, ordainketa kontu horiek ordainketa zerbitzuen beste hornitzaile batean edo hainbat hornitzailetan

izanik.

q) Kontuaren kudeatzaile den ordainketa zerbitzuen hornitzailea: agindu-emaileari ordainketa kontu bat edo gehiago ematen dizkion eta haien mantentzeaz arduratzen den ordainketa zerbitzuen hornitzaile bat.

r) Ordainketa abiatzeko zerbitzuen hornitzailea: ordainketak abiatzeko zerbitzuak lanbidez egiten dituen ordainketa zerbitzuen hornitzailea.

s) Kontuei buruzko informazioko zerbitzuen hornitzailea: kontuei buruzko informazioko zerbitzuak lanbidez egiten dituen ordainketa zerbitzuen hornitzailea.

## 30. APLIKAZIO-EREMUA

**30.1.** Atal honetan, ordainketa-zerbitzu hauek arautzen dira:

a) Ordainketako kontu korrontearen beraren kudeaketarako beharrezko zerbitzuak eta eragiketa guztiak, 2017ko azaroaren 24ko 19/2017 Errege Lege-dekretuan zehaztutako oinarritzko ordainketa kontuak barne.

b) Ordainketa-eragiketak egitea —funtsen transferentzia barne—, erakundeko ordainketa-kontu baten bidez edo ordainketa-zerbitzuak ematen dituen beste hornitzaile baten bidez:

- Zordunketa helbideratuen gauzatzea, errepikatzen ez diren zordunketa helbideratuena barne.

- Ordainketa-txartelaren edo antzeko gailuren baten bidez egiten diren eragiketen gauzatzea.

- Transferentzien gauzatzea, agindu iraunkorrekoena barne.

c) Ordainketa-eragiketen gauzatzea, ordainketa-zerbitzuen erabiltzaile batentzat irekitako kreditu-linea batez estalitako funtsak direnean:

- Zordunketa helbideratuen gauzatzea, errepikatzen ez diren zordunke-ta helbideratuena barne.

- Ordainketa-txartelaren edo antzeko gailuren baten bidez egiten diren eragiketen gauzatzea.

- Transferentzien gauzatzea, agindu iraunkorrekoena barne.

d) Ordainketa-tresnak igorri eta jasotzea.

e) Dirua bidaltzea.

f) Kontuei buruzko informazioko zerbitzuak.

g) Ordainketa abiatzeko zerbitzuak.

h) Ordainketa-eragiketen gauzatzea, agindu-emaileak ordainketa-eragiketa bat egiteko ematen duen adostasuna telekomunikazio-gailuen, gailu digitalen edo gailu informatikoen bidez adierazten denean, eta ordainketa sareko operadorearen bidez edo telekomunikazio-sistemaren edo sistema informatikoaren bidez egiten denean, zeina ordainketa-zerbitzuaren erabiltzailearen eta ondasun- eta zerbitzu-emailearen arteko bitartekari soila baita.

**30.2.** Esparru-kontratu honen bidez, Bezeroarekiko banakako ordainketa-eragiketak etorkizunean nola gauzatuko diren arautzen da. Hartarako, Bezeroak ordainketa-kontu bat ireki behar du Triodos Bankekin (kontu korrontea edo aurrezki-kontua).

## 31. KONTUAREN IDENTIFIKATZAILE BAKARRA

**31.1.** Ordainketa agindu bat egoki gauzatzeko, bezeroak kontuaren identifikadore bakarra eman beharko du, hau da, banku kontuaren nazioarteko zenbakia (IBAN) eta bankuaren kode identifikatzailea (BIC). Bankuan egiturazko sozietate aldaketarik izanez gero, edota beste edozein arrazoi komertzial edo operatiborengatik, gerta daiteke identifikadore bakarrak dagozkion aldaketak izatea. Halakoetan, bankuak dagozkion jakinarazpena egin beharko du, bezeroarekin hitzartutako eran. Bankua ez da ordainketa ez egitearen edo akatsarekin egitearen erantzule izango, baldin bezeroak emandako identifikadore bakarra okerra baldin bada. Hala ere, bezeroak eskatuta, edo ezarritako epeetan lortu ezin bada edota kasuaren gorabeherek hala aholkatzen dutenean, bankuak ordainketa eragiketako dirua berreskuratzeko kudeaketak egin ahalko ditu. Halakoetan, bezeroari ordainaraziko dio Triodos Banki eragin dion gastua. Dirua berreskuratu ezin bada, agindu-emaileak eskatuz gero bankuak agindu-emaileari emango dio (dagozkion komisioa ordainduta) eskuetan duen informazio guztia, dirua berreskuratzeko legezko erreklamazio bat jartzeko egoki dena.

**31.2.** Bezeroak eragiketa bat egiteko behar den identifikatzaile bakar egokia ematen duenean, Triodos Bank arduratuko da hura ondo gauzatzeaz. Aldiz, Bezeroak identifikatzaile bakar egokia ematen ez badu, Triodos Bank ez da erantzule egingo ordainketa-agindua ez gauzatzeaz edo oker gauzatzeaz.



**31.3.** Bezeroak konpromisoa hartzen du, III. atal honetan aurreikusten diren ordainketa-zerbitzuak erabiltzean, erakundeari agindutako ordainketei buruzko datuak egokiak direla eta osorik daudela egiaztatzeko.

**31.4.** Triodos Bank soilik erantzule izango da ordainketa zerbitzuen erabiltzaileak emandako identifikadore bakarrarekin bat etorrira ordainketa eragiketak gauzatzeaz; eta ez ordainketa zerbitzuen erabiltzaileak emandako bestelako informazioez.

## 32. ORDAINKETA ERAGIKETAK GAUZATZEKO ADOSTASUNA

**32.1.** Ordainketa-eragiketak baimenduztat hartuko dira Bezeroak bere adostasuna ematen edo jakinarazten duenean, idatziz edo kontsumitzaileei zuzendutako urrutiko finantza-zerbitzuak merkaturatzeari buruzko 2007ko uztailaren 11ko 22/2007 Legean adierazten diren moduetako batez —zehazki, bitarteko telematiko, elektronikoko edo antzekoen bidez—, baldin eta haren kontratu nagusiak aukera ematen badu aginduak emateko.

**32.2.** Agindu-emaileak, ordainketa eragiketa bat gauzatzeko adostasuna eman dezake eragiketaren onuradunaren bidez edo ordainketak abiatzeko zerbitzuen hornitzaile baten bidez. Azken kasu horretan, Triodos Bankek ordainketak abiatzeko zerbitzuen hornitzailearen bidez jasotako ordainketa agindua gauzatuko du, eta hari emango dizkio eragiketa egoki gauzatzeko egoki diren datu guztiak. Horretan guztian, indarrean den araudia beteko da. Bankuak ez badu jasotzen behar bezala egindako adostasuna, ordainketa era-

giketa baimendu gabekotzat joko da, eta ez da gauzatuko.

**32.3.** Triodos Bankek eskubidea du ordainketa-bitarteko edo -tresna baten erabilera blokeatzeko, baldin eta haren segurtasuna zalantzan jartzen duten edo iruzurrez erabilia izan daitekeela adierazten duten arrazoizko zalantzak badaude.

**32.4.** SEPA manuaren kasuan, ezinbesteko betekizuna da, kobrantzara aurkezteko eragiketa egin baino lehen, zordunak izan dezala helbideratze-agindu bat, kargu-kontuaren Titularrak sinatua, «SEPA oinarriko zordunketa zuzena helbideratzeko agindua» inprimaki normalizatuarekin bat datorrena; edo, bestela, barne har ditzala unean-unean indarrean den araudia ezarritako aipamenak eta betekizunak. Hartzekodunak erreferentzia bakarra esleituko dio manu bakoitzari, manu zehatz bati elkartutako zordunketak identifikatu ahal izan daitezen. Manua izenpetzeko unean manuak oraindik erreferentzia hori ez baldin badu, hartzekodunak zordunari komunikatu beharko dio, lehen kobrantza hasi baino lehen.

Manua aldatzea hartzekodunari eta zordunari dagokie, eta edonoiz egin daiteke manuaren indarraldian, Bankuaren onespelik behar izan gabe. Hala ere, nahitaez Bankuari jakinarazi beharko zaizkio manuaren aldaketak, inguruabar hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Dagoeneko baden manu baten erreferentzia bakarraren aldaketak, antolakuntza-aldaketen —berregituratzeen— ondorioz.

b) Hartzekodunaren identitate-aldaketak, sozietate-fusio edo —eraldaketen, antolakuntza-aldaketen

edo izen-aldaketaren ondorioz.

c) Zordunak kargu-kontua aldatzea, dela erakunde berean, dela beste batean.

d) Hartzekodunaren identitatea edo izena aldatzen denean, hartzekodunak, gainera, zordunari jakinarazi beharko dizkio manuari eragiten dioten aldaketak, hartzekodunaren ezagutza-ezarengatik zordunketak itzul ez daitezzen.

Manuaren aldaketak hartzekodunaren erakundeari jakinaraziko zaizkio, hurrengo zordunketaren partetzat.

SEPA zordunketa helbideratuen kasuan, agindu guztiak, bai eta geroztiko edozein aldaketa edo ezeztapen, onuradunaren edo haren konturako hirugarren baten eskuetan geratuko dira.

## 33. ORDAINKETA AGINDU BAT JASOTZEA

**33.1.** Triodos Bankek ordainketa agindu bat jasotzeko unea, hau izango da: agindu hori erakunde honek jasotzen duen unea. Berdin dio ea agindua agindu-emaileak zuzenean igorri duen, ala onuradunaren bidez zeharka igorri duen. Banku jardueretarako baliogabea den egun batean jasotako aginduak hurrengo egun baliodunean jasotzat joko dira. Hala ere, ordainketa agindu bat arratsaldeko bostak (17:00) baino geroago jasotzen bada, hurrengo egun baliodunean jasotzat joko da. Inoiz ere ez da zordunduko agindu-emailearen kontuan kargurik, ordainketa agindua jaso baino lehen.

**33.2.** Ordainketa zerbitzuen erabiltzailearen eta Triodos Banken arteko hitzar-

menik baldin bada ordainketa agindu bat gauzatu dadin data jakin batean, epe baten bukaeran, edo kontu korrontean edo ordainketa tresna zehatzean dirua dagoen egunean, orduan, agindua jasotzeko eguna hitzartutakoa izango da; edo, hura egun baliogabea izanez gero, haren biharamuna.

## 34. ORDAINKETA AGINDUAK ARBUIATZEA

**34.1.** Triodos Bankek bere esku gordetzen du ordainketa agindu bat arbuiatzeko eskumena, baldin:

a) ordainketa agindua gauzatu aurretik, agindu emaileak ez badu hura gauzatzeko aski dirurik kontuan edo ordainketa tresnan;

b) iruzurraren, kapital zuriketaren, terrorismoa finantzatzearren edo legez kanpoko beste edozein jardueraren aztarnak badaude;

c) Triodos Banki ez bazaio ematen agindua gauzatzeko beharrezko informazioa, edo informazio horrek akatsak baditu;

d) ez badira betetzen kontratu honetan edo legean ezarritako baldintzak.

**34.2.** Aurreko 34.1 atalean jasotako kasuetan, bankuak komisio bat kobratu ahaliko du, ordainketa agindu bidegabe bat gauzatzearren arbuiatze horrengatik. Gainera, 34.1 atal horretan ezarritako kasuetakoren bat betetzen bada, bezeroak onartzen du Triodos Bank ez dela erantzule izango ordainketa agindua atzeratzeak edo arbuiatzeak eragindako ezein galera edo kalterengatik.

**34.3.** Bankuak bezeroari jakinaraziko dizkio, hitzartutako komunikazio bidetik, ordainketa aginduaren arbuiatzea, ha-

ren arrazoiak eta, ahal bada, arbuiatze hori eragin duten akatsak zuzentzeko prozedura, salbu eta aplikagarri den arau batek horiek jakinaraztea debekatzen bada. Jakinarazpen hori egitea egoki bada, arbuiatze unearen ondorengo egun baliodunaren bukaeran egingo da beranduenik. Epe hori egun baliodun batez luzatu ahalko da, paperean abiatutako ordainketa eragiketarako.

**34.4.** Gauzatzea arbuiatu zaien ordainketa aginduak, betiere, ez jasotzat joko dira.

## 35. ORDAINKETA AGINDU BATEN EZEZTAEZINTASUNA

**35.1.** Bezeroak edonoiz kendu ahalko du ordainketa agindu bat gauzatzeko bere adostasuna, baina betiere indarrean den ordainketa zerbitzuen araudian ezarritako ezeztazintasun data baino lehenago; edo, halakorik ezean, ondoren zehaztutako datetan:

- a) Oro har, bezeroak ezingo du ordainketa agindua ezeztatu Triodos Bankek bezeroaren ordainketa zerbitzuen hornitzailetzat agindua jaso eta gero.
- b) Ordainketa eragiketa onuradunak abiarazi badu edo haren bitartez abiatu bada, bezeroak ezingo du agindua ezeztatu onuradunari ordainketa eragiketa gauzatzeko adostasuna eman eta gero.
- c) Ordainketa eragiketa ordainketak abiatzeko zerbitzuen hornitzaile batek abiarazi badu, bezeroak ezingo du agindua ezeztatu hornitzaile horri ordainketa eragiketa gauzatzeko adostasuna eman eta gero.
- d) Zordunketa helbideratuen kasuan,

bezeroak ezingo du ordainketa agindua ezeztatu titularraren kontuan dirua zorduntzeko hitzartutako egunaren aurreko egun baliodunaz geroztik.

Aurreko kasuetan, ordainketa zerbitzuen erabiltzaileak ordainketa eragiketa bat abiatu edo jaulki duenean eta haren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak hitzartu baldin badute ordainketa aginduaren gauzatzea data zehatz batean edo epe jakin baten bukaeran hasiko dela, edota agindu-emaileak dirua ordainketa zerbitzuen hornitzailearen eskura jarri duen egunean hasiko dela, orduan ordainketa agindua ezeztatu ahalko da, beranduenik ere, hitzartutako egunaren aurreko egun baliodunaren bukaeran.

**35.2.** Ordainketa zerbitzuen erabiltzaileak ordainketa eragiketen multzo baterako bere adostasuna eman duenean, hori ezeztatzeak ekarriko du baimendu gabekotzat joko direla multzo edo sail horretako parte diren ordainketa eragiketa guztiak, bai eta adostasun horrek estalitako etorkizuneko ordainketa eragiketa guztiak ere.

**35.3.** Agindua ezeztatzeak, aplikagarri diren kontratuetan edo Triodos Banken Tarifen Liburuan ezarritako komisio eta gastuak sortuko ditu.

**35.4.** Bezeroak Triodos Banki eskatu ahalko dio onartuta, onuradun batek (edo haren bidez) abiatuta eta dagoeneko gauzatuta dauden eragiketak itzultzea, gehienez ere zortzi (8) asteko epean, dirua bere kontuan zordundu zen egunetik hasita, baldin baimenak ez badu adierazten zenbateko zehatza, eta gainera zordundutako kopurua handiago bada bere gastu erduei jarraituz arrazoizko eran espero zitekeena baino.

**35.5.** Hala ere, bezeroak ez du itzulketa-rako eskubiderik izango baldin bezeroak edo onuradunak Triodos Banki igorri badiote, ordainketarako aurreikusitako eguna baino lau (4) aste lehenago, ordainketari buruzko informazioa.

**35.6.** Itzulketa eskatzen bada, itzulketa eskaera bat jaso duenetik Triodos Bankek hamar (10) egun balioduneko epea izango du ordainketa eragiketaren zenbateko osoa itzultzeko, edota hura ukatzea justifikatzeko. Azken kasu horretan, bezeroak judiziozko eta judizioz kanpoko erreklamaziorako dituen prozedurak adierazi beharko ditu.

**35.7.** Baimenik ez duen edo akatsen bat duen ordainketa eragiketa bat egiten bada, bezeroak horren berri jakiten duen bezain laster jakinarazi beharko dio Triodos Banki, eta betiere, LSP legean ezarritako kasuetan, gehienez (13) hilabeteko epean kontsumitzaileentzat, edo sei (6) hilabeteko epean, legeari jarraituz kontsumitzailetzat hartzen ez direnentzat.

## 36. ORDAINKETA AGINDU BAT GAUZATZEA

**36.1** Bankuaren eta agindu-emailearen artean ordainketa aginduak gauzatzeko epeari buruzko hitzarmenik izan ezean, sekzio honetako 33.2 atalean ezarritakoari jarraituz, bankuak ordainketa aginduak gauzatuko ditu, beranduenik ere ordainketa agindua jasotzen duen egunaren ondorengo egun baliodunaren bukaeran, ondorengo hauek gauzaten ari direnean:

- a) eurotan diren ordainketa eragiketak;
- b) estatu barruko ordainketa eragiketak, euroguneko parte ez den estatu kide

baten dibisan;

c) euroaren eta euroguneko parte ez den estatu kide bateko dibisaren arteko truke bat besterik ez dakarten ordainketa eragiketak, betiere baldin trukea euroguneko parte ez den estatu kidean egiten bada eta, mugaz gaindiko ordainketa eragiketa izanez gero, mugaz gaindiko transferentzia eurotan egiten bada.

Epe hori egun baliodun batez luzatu ahalko da, paperean abiatutako ordainketa eragiketetarako.

**36.2.** Aurreko atalean jaso ez diren Europar Batasunaren barruko ordainketa eragiketak, epe luzeago batean gauzatu ahalko dira, inoiz ere lau (4) egun balioduneko epea gainditu gabe, bankuak ordainketa agindua jasotzen duen unetik hasita. Aurreko ataletan jaso ez diren Europar Batasunaz kanpoko ordainketa eragiketetarako, ez dira aplikatuko aurreko epe horiek; kasu bakoitzean, eragiketa bakoitzerako zehazten diren epeei egin beharko zaie kasu.

**36.3.** Kontsumitzaile batek Triodos Banken ordainketa kontu batean eurotan esku dirutan egindako diru sarrerak balioa hartuko du eta erabilgarri izango da dirua jasotzen den unearen ondo-ondoren. Ordainketa zerbitzuen erabiltzailea kontsumitzailea ez bada, dirua jaso zen egunaren hurrengo egun balioduneari izango du erabilgarri sartutako zenbatekoa, eta era berean hartuko du balioa sarrera egin zen datak. Bi kasuetan, ezinbesteko baldintza da esku diruaren sarrera bankuak onartu izana.

## 37. BALIO DATA ETA DIRUA ERA-BILGARRI IZATEA

**37.1** Bezeroa ordainketa eragiketa baten onuradun denean, onuradunaren ordainketa kontuko abonua ren balio data ezingo da izan ordainketa eragiketaren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaindu den egun balioduna baino geroagokoa. Agindu-emailearen ordainketa kontuko karguaren balio data inoiz ere ez da izango ordainketa eragiketaren zenbatekoa kontu horretan kargatzen den unea baino lehenagokoa.

**37.2.** Bankuak, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailetzat jarduten duenean, ziurtatuko du ordainketa eragiketaren zenbatekoa bezero onuradunak erabilgarri duela onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak zenbateko hori bankuko kontuan abo-natzen duen unearen ondo-ondoren, baldin ez badago dibisa bihurketarik, edo baldin euroaren eta estatu kide bateko dibisaren arteko bihurketa edo bi estatu kide-tako dibisen arteko bihurketa badago.

## **38. ORDAINKETA ZERBITZUEN HORNITZAILEAREN ERANTZUKIZUNA, ERAGIKETAK GAUZATZEAN**

**38.1** Bankua agindu-emailearen aurrean ordainketa eragiketa egoki gauzatzearen erantzule izango da, agindu-emaileak zuzenean abiarazitako ordainketa aginduei dagokienez, salbu eta bankuak agindu-emaileari —eta, hala egokituz gero, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileari— froga badieziaioke azken hornitzaile horrek ordainketa eragiketaren zenbatekoa jaso zuela, kontratu honetako 36. atalean ezarritakoarekin bat etorrita eta

legez ezarritakoari jarraituz.

**38.2.** Aurreko 38.1 atalean ezarritakoari jarraituz Triodos Bank erantzule denean, banketxe horrek arrazoirik gabeko atzerapenik gabe agindu-emaileari itzuliko dio gauzatu ez den edo akatsarekin auzatu den ordainketa eragiketari dagokion kopurua; eta, hala badagokio, ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egon beharko lukeen lehenagoko egoerara berrezarriko du ordainketa kontuaren saldoa. Agindu-emailearen ordainketa kontuko abonua ren balio data ez da izango zenbatekoaren zordunketa egin den data baino geroagokoa.

**38.3.** Onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailea erantzule denean agindu-emaileak zuzenean abiarazitako ordainketa aginduei dagokienez, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailea onuradunaren aurrean erantzule izango da ordainketa eragiketa egoki gauzatzeaz, eta ordainketa eragiketaren zenbatekoa onuradunaren esku jarriko du berehala, eta, hala badagokio, dagokion zenbatekoa abonatu ko du onuradunaren ordainketa kontuan. Onuradunaren ordainketa kontuko abonua ren balio data ez da izango eragiketa ondo gauzatu izan balitz zenbatekoari esleituko zitzaiokeen balio data baino geroagokoa, LSP legeko 43. artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**38.4.** Ordainketa eragiketa bat atzerapenarekin gauzatzen denean, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak zainduko du ezen, haren izenean diharduen agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileak aurrez eskatuta, onuradunaren ordainketa kontuko abonamenduaren balio data ez dela eragiketa ondo gauzatu izan balitz

zenbatekoari esleituko zitzaiokeen balio data baino geroagokoa.

Agindu-emaileak ordainketa agindua abiarazi duen ordainketa eragiketa bat gauzatu ez denean edo akatsarekin gauzatu denean, agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileak, aurrez eskatuta eta atal honetan ezarritakoari jarraituz zehazten den erantzukizuna gorabehera, berehala saiaturik da ordainketa eragiketaren arrastoari jarraitzen, eta agindu-emaileari jakinaraziko dizkio emaitzak. Horregatik ez zaio gasturik kobratuko agindu-emaileari.

**38.5.** Onuradunak berak edo haren bidez abiarazitako ordainketa aginduen kasuan, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailea onuradunaren aurrean erantzule izango da agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileari ordainketa agindua egoki transmititzeaz, kontratu honetako 36. atalean ezarritakoari jarraituz eta legez aplikatzekoak diren baldintzetan, zainduko du ordainketa eragiketaren zenbatekoa onuradunaren esku izan dadin zenbateko hori haren kontu propioan abonatua izan ondo-ondoren. Onuradunaren ordainketa kontuan zenbatekoa abonatzearen balio data —baita ordainketa agindua gauzatzean atzeratze hutsagatik erantzukizunaren kasuetan ere ez da izango eragiketa ondo gauzatu izan balitz zenbatekoari esleituko zitzaiokeen balio data baino geroagokoa.

**38.6.** Onuradunak berak edo haren bitartez abiarazitako ordainketa agindua izanik ordainketa eragiketa bat gauzatu ez denean edo akatsarekin gauzatu denean, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak, aurrez eskatuta

eta atal honetan ezarritakoari jarraituz zehazten den erantzukizuna gorabehera, berehala saiaturik da ordainketa eragiketaren arrastoari jarraitzen, eta onuradunari jakinaraziko dizkio emaitzak. Horregatik ez zaio gasturik kobratuko onuradunari.

**38.7.** Onuradunak berak edo haren bitartez abiarazitako ordainketa agindu gauzatu gabeen edo akatsarekin gauzatuen kasuan, agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzailea erantzule izanez gero, hornitzaile hori erantzule izango da agindu-emailearen aurrean, eta agindu-emaileari itzuli beharko dio, dagokion eran eta justifikatu gabeko atzerapenik gabe, gauzatu ez den edo akatsarekin gauzatu den ordainketa eragiketaren zenbatekoa, eta zordunketa egin zaion ordainketa kontua ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egongo litzatekeen egoerara berrezarriko du. Agindu-emailearen ordainketa kontuko abonuaeren balio data ez da izango zenbatekoaren zordunketa egin den data baino geroagokoa. Hala ere, betebeharrak ez zaizkio aplikatuko agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzaileari, baldin hornitzaile horrek frogatzen badezake onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak ordainketa eragiketaren zenbatekoa jaso duela, baita ordainketa atzerapen txiki batekin gauzatu bada ere. Kasu horretan, onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzaileak onuradunaren kontuan zenbatekoa abonatzeari dagokion data bat esleituko du, eragiketa ondo gauzatu izan balitz zenbatekoari esleituko zitzaiokeen balio data baino geroagokoa izango ez dena.

**38.8.** Aurreko ataletan agindu-emailearen edo onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearentzat ezarrita

dagoen erantzukizuna ez da aintzat hartuko, ordainketa eragiketetatik erator litezkeen ordainketa zerbitzuen hornitzailearen erantzukizun eza eragiten duten kasuetan, hala nola:

- a) baldin baimenik ez badago edo oker gauzatu badira, LSP legeko 29. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- b) baldin ordainketa zerbitzuen erabiltzaileak emandako identifikadore bakarra okerra bada, LSP legeko 44. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- c) baldin agindu-emailearen ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontroletik kanpo dauden salbuespenezko zirkuntantzia ezin aurreikusizkoak gertatu badira, LSP legeko 48. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

**38.9.** Bankuak agindu-emaileari itzuliko dio gauzatu ez den edo akatsarekin gauzatu den ordainketa eragiketaren zenbatekoa, eta —hala egokituz gero— zordunketa egin zaion ordainketa kontua ordainketa eragiketa akastuna egin izan ez balitz egongo litzatekeen egoerara berrezarriko du, agindu-emaileak ordainketak abiatzeko zerbitzuen hornitzaile baten bidez abiatutako ordainketa eragiketei dagokienez, baldin ordainketak abiatzeko zerbitzuen hornitzaile horrek frogatzen badu bankuak jaso duela ordainketa agindua kontratu honetako 33. atalean ezarritakoari jarraituz eta indarrean diren arauzko baldintzetan, eta ordainketen abiatzailetzat duen eskumen eremuaren barruan ordainketa eragiketa zehazki autentifikatu eta erregistratu zela eta ez ziola eragin akats teknikoren batek edota ez gauzatzeari lotutako beste gabezia batzuek. Hala eta guztiz ere, aintzat hartuko da aurreko 38.8 atalean ezarritako erantzukizun salbuespena.

## 39. KOMISIOAK ETA GASTUAK

**39.1.** Triodos Bankek ezingo dio bezeroari kobratu atal honetan jasotako informazioarengatik arauz ezarritakoari jarraituz; hala ere, bezeroari kobratu ahalko zaio legez doakotzat zehaztu dena ez den eta erabiltzaileak eskatu duen informazioa emateagatik.

**39.2.** Triodos Bankek Bezeroari eskaintzen dizkion eta OZLn araututa dauden produktu eta ordainketa-zerbitzuegatik, Bezeroak sinatutako kontratuan eta ordainketa-agindua jasotzen den unean indarrean dagoen Tarifa Liburuan ezarrita dauden komisioak eta gastuak aplikatuko dira.

**39.3.** Hala bezeroak agindu-emailetzat badihardu, nola onuraduntzat badihardu, Triodos Banki ordaindu beharko dizkio eragiketa horri aplikagarri zaizkion ordainarazteko gastu eta komisioak, aplikagarri den kontratuan eta agindu zehatzean hitzartutakoari jarraituz. Horretarako, bezeroa onuraduna den ordainketa eragiketetan, bankuak bere gastuak kendu ahalko ditu transferitutako zenbatekotik. Halakoetan, onuradunari emandako informazioan bereizita agertuko dira eragiketaren zenbateko osoa eta ordainarazitako gastuak.

**39.4.** OZLn ezarritakoari jarraituz, dibisa-bihurketarik ez daukan ordainketa-zerbitzuen edozein egikaritzetan, onuradunak ordainduko ditu ordainketa-zerbitzuen bere hornitzaileak kobratutako gastuak, eta agintzaileak ordainduko ditu ordainketa-zerbitzuen bere hornitzaileak kobratutako gastuak. Ordainketa-eragiketak dibisa-bihurketa bat daukanean, bestela hitzartu ezean, gastuen banaketako irizpide berdina aplikatuko da. Hala eta guztiz ere,

ordainketa-zerbitzuen bi hornitzaileak Espainian dauden eta dibisa-bihurketa daukaten ordainketa-eragiketa guztietan, onuradunak ordainduko ditu ordainketa-zerbitzuen bere hornitzaileak kobratutako gastuak, eta agintzaileak ordainduko ditu ordainketa-zerbitzuen bere hornitzaileak kobratutako gastuak; bihurketa-gastuak, alderdiek bestela adierazi ezean, eskatzen duenak ordainduko ditu.

## 40. KONTRATUZKO BALDINTZETAKO ETA INFORMAZIOKO GARDENTASUNA

**40.1** Triodos Bankek bere gain hartzen du erantzukizuna indarrean dagoen araudian eta 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 Aginduan kontsumitzaileekin adostutako ordainketa-zerbitzuei aplikatzekoak zaizkien baldintza eta betebeharren gardentasunari buruz zehazten diren gardentasun- eta informazio-betebeharrak betetzeko. Bankuaren webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) argitaratuta daude arlo horretan aplikatzekoak diren kontratu orokorrak eta produktu-kontratuak.

**40.2** Kontratuzko harremanaren edozein unetan, ordainketa-zerbitzuen erabiltzaileak, hala eskatuz gero, eskubidea izango du esparru-kontratuaren kontratuzko baldintzak jasotzeko —paperean edo bestelako euskarri iraunkor batean, baita gai hauei buruzko informazioa eta baldintza nagusiak jasotzeko ere: (i) Triodos Bank NV SEren identifikazio-datuak; (ii) kontratatutako ordainketa-zerbitzuaren deskribapena; (iii) aplikatzekoak diren gastuak, interes-tasak eta kanbio-tasak; (iv) eskura dauden komunikabideak; (v) kontratatutako ordainketa-zerbitzuetatik

eratorritako erantzukizunak eta haiek itzultzeko bete behar diren baldintzak; (vi) esparru-kontratuaren aldaketei eta desegiteari buruzko informazioa eta (vii) aplikatzekoa den legeari, eskumen jurisdikzionalari eta erreklamazio-prozedurei buruzko informazioa.

## 41. ESPARRU-KONTRATUA ALDATZEA

**41.1.** Bankuak banan-banan eta paperean edo euskarri iraunkorrean proposatu behar ditu atal honetan aurreikusten diren kontratuzko baldintzen eta ordainketa-zerbitzuei aplikatzen zaizkien informazioaren eta baldintzen aldaketak, proposatutako aldaketa indarrean sartzen den eguna baino bi hilabete lehenago, gutxienez. Proposatzen diren aldaketak argi eta garbi nabarmendu behar dira.

**41.2.** Ordainketa-zerbitzuen erabiltzaileak esparru-kontratuaren baldintzei egindako aldaketak onartzen dituela jotzen da, baldin eta, aldaketak indarrean jartzeko proposatutako eguna baino lehen, Bankuari kontrakoa jakinarazten ez badio. Kasu horretan, Bezeroak esparru-kontratu hau desegiteko eskubidea izango du, berehala eta kosturik gabe.

**41.3.** Dena den, berehala aplikatu ahal izango dira ordainketa-zerbitzuen erabiltzaileentzat ezbairik gabe onuragarriagoak diren aldaketa guztiak.

**41.4.** Interes- eta kanbio-tasen aldaketak berehala eta aurretik jakinarazi gabe aplikatu ahal izango dira, baldin eta (i) aurrez Bezeroarekin adostutako erreferentziako interes- edo kanbio-tasak badituzte oinarri edo (ii) ordainketa-



zerbitzuen erabiltzaileentzat me-  
sedegarriagoak badira; kasu horretan,  
aurretik jakinarazi gabe aplikatu ahal  
izango dira.

traktuko kontratu harremanetan,  
lotutako edo konbinatutako kontue-  
takoetan, edo bezeroak zordun posizioa  
duenetan.

## 42. ESPARRU-KONTRATUA DESEGITEA

**42.1.** Esparru-kontratua edo dagokion  
kontratu orokorra desegitea doakoa  
izango da Bezeroarentzat, haiek inda-  
rrean sartzen direnetik 12 hilabete igaro  
ondoren egiten bada. Gainerako kasu  
guztietan, desegitetik ondorioztatutako  
gastuek egokiak izan behar dute eta bat  
etorri behar dute kostuekin, une bakoit-  
zean indarrean dagoen Tarifa Liburuare-  
kin bat. Kontratu honetan aurreikusten  
diren eta Ordainketa Zerbitzuei buruzko  
Legean ezartzen diren ordainketa-  
zerbitzuengatik aldian-aldian kobratzen  
diren gastuetatik, kontratua desegin  
arte zordundutako zati proportzionala  
bakarrik ordaindu behar du Bezeroak.  
Komisio horiek aurrez ordainduak dau-  
denean, modu proportzionalan itzuli  
behar dira, eta, hala badagokio, kontra-  
tua desegitean sortutako komisioarekin  
konpentsa daitezke.

**42.2.** Kontsumitzailatzat edo erabilt-  
zailatzat jotzen den bezeroak edonoiz  
suntsiarazi ahalko du ordainketa  
zerbitzuei buruzko kontratu orokorra,  
aurrez abisatu beharrik gabe. Bankuak,  
indarrean den araudiari jarraituz, espa-  
rru kontratua suntsiarazteko agindua  
beteko du bezeroaren eskaritik 24 ordu  
igaro baino lehen, salbu eta bezeroak  
bankuarekin kontratatua baldin badu  
beste finantza produktu edo zerbitzu  
bat eta hartarako beharrezkoa bada  
Triodos Banken ordainketa kontu  
bat irekita izatea; bereziki, segidako

## GORDAILUEN ESTALDURARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA

Triodos Banken mantendutako gordailuek berme hauek dituzte:	Legezko xedapenez ezarritako Herbehereetako Gordailuen Berme Sistema, De Nederlandsche Bank N.V. (DNB) erakundeak administratua. <sup>(1)</sup>
Estalduaren muga:	100.000 euro, gordailugile eta bankuko <sup>(2)</sup>
Banku berean gordailu bat baino gehiago baldin baduzu:	Banku bereko zure gordailu guztiak batzen dira, eta guztizkoari aplikatzen zaio 100.000 euroren muga <sup>(2)</sup>
Kontu bat beste pertsona batekin edo batzuekin batera baduzu:	100.000 euroren muga gordailugile bakoitzari bere aldetik aplikatzen zaio <sup>(3)</sup>
Bankuak porrot eginez gero, dirua itzultzeko epea:	20 lanegun <sup>(4)</sup>
Dirua itzultzeko erabiltzen den dirua:	Euro
Harremanetarako bidea:	De Nederlandsche Bank N.V. Postbus 98 1000 AB Amsterdam Helbidea: Westeinde 1 1017 ZN Amsterdam Telefonia (ordutegia, lanegunetan: 9:00 – 17:00): Herbehereetatik: 0800-0201068 Atzerritik: + 31 20 524 91 11 Helbide elektronikoa: info@dnb.nl
Argibide gehiago:	<a href="http://www.dnb.nl">http://www.dnb.nl</a> webgunean, 'Depositogarantiestelsel' (gordailuen berme sistema) atalean
<b>INFORMAZIO GEHIGARRIA:</b> Beste argibide garrantzitsu bat: Oro har, gordailugile partikular guztiak eta enpresek gordailuen berme sistemaren estaldura dute. Gordailu jakin batzuei aplikatzekoak zaizkien salbuespenak ardura duen gordailuen berme sistemaren webgunean ikus daitezke. Zure bankuak informatuko dizu, hala eskatzen baduzu, ea produktu jakin batzuk estalita dauden ala ez. Gordailuak estalita baldin badaude, bankuak kontuko laburpenetan ere baieztatuko dizu.	

(1) Zure gordailuak Herbehereetako Gordailuen Berme Sistemaren bermea dute. Sistema hori legezko xedapenez eratu zen. Zure bankuak kaudimenik ez badu, zure gordailua itzuliko zaizu 100.000 euroraino.

(2) Babesaren muga orokorra:

Banku batek bere finantza betebeharrak bete ezin dituelako gordailu bateko dirua erabili ezin bada, Herbehereetako Gordailuen Berme Sistemak dirua itzuliko die gordailugileei. Gehienez 100.000 euro itzuliko dira bankuko. Horrek esan nahi du banku berean egindako zure gordailu guztiak batzen direla estaldura maila zehazteko. Adibidez, gordailugile batek 90.000 euro dauzkan aurrezki kontu bat du, eta 20.000 euro dauzkan kontu korrante bat; orduan, 100.000 euro besterik ez zaio itzuliko.

Metodo horixe erabiliko da, baita ere, banku batek hainbat izen komertzialekin lan egiten badu. Triodos Banke Triodos Bank izenarekin baizik ez du komertzialki lan egiten.

(3) Partaidetzazko kontuetarako bermearen muga:

Partaidetzazko kontuen kasuan, 100.000 euroren muga gordailugile bakoitzari bere aldetik aplikatuko zaio.

Zure bankuaren kaudimen ezaren unean zuk gordailu bat baldin baduzu zure etxebizitza partikularra erosteari edo saltzeari zuzenean lotua, gordailu hori gainera gordailuen berme sistemak bermatuko du hiru hilabetez, gordailua sartu zenetik, 500.000 euroraino gehienez. Informazio gehiago dago <http://www.dnb.nl> webgunean, «Depositogarantiestelsel» (gordailuen berme sistema) atalean.

(4) Dirua itzultzea:

Ardura duen gordailuen berme sistema Herbehereetako Gordailuen Berme Sistema da, legezko xedapenez ezarria, De Nederlandsche Bank N.V. (DNB) erakundeak administratua; Postbus 98, 1000 AB Amsterdam; helbidea: Westeinde 1,1017 ZN Amsterdam. Telefonoa (ordutegia, lanegunetan: 9:00 – 17:00): Herbehereetatik: 0800-0201068, atzeritik: + 31 20 524 91 11; helbide elektronikoa: [info@dnb.nl](mailto:info@dnb.nl); webgunea: <http://www.dnb.nl>, atala: «Depositogarantiestelsel» (gordailuen berme sistema). Zure gordailuetako dirua itzuliko dizu (gehienez 100.000 euro), gehienez 20 (hogei) laneguneko epean.

Epe horren barruan diru itzulketarik jaso ez baduzu, harremanetan jarri behar duzu gordailuen berme sistemarekin. Izan ere, dirua itzultzea eskatzeko aldia mugatua izan daiteke.

Dirua itzultzeko epea, pixkanaka, 7 (zazpi) laneguneraino laburtuko da. Trantsizio aldi honetan, De Nederlandsche Bank (DNB) bankuak, hala eskatzen badiozu, zure mantenua ordaintzeko zenbateko egoki bat ordaindu ahalko dizu.

Informazio gehiago dago <http://www.dnb.nl> webgunean, «Depositogarantiestelsel» (gordailuen berme sistema) atalean.

# // A eranskina

1 / 6

Zenbaki honek produktuaren arriskua adierazten du. Arrisku txikiaren adierazlea 1/6 da; eta handienarena, 6/6.

## Cuenta Corriente Triodos

Triodos Bank atxikita dago Herbehereetako Gordailuen Berme Funtzari. Titular bakoitzeko 100.000 euroren bermea eskaintzen du erakundearen gordailututako diruari dagokionez.

### 1. HELBURUA, TITULARTASUNA ETA BAIMENAK

**1.1.** Eranskin honetan, Triodos Kontu Korrontearen (aurrerantzean, «Kontua») araubidea zehazten da. Kontu hau ageriko gordailu bat da, eurotan dagoena, izenduna eta besterenezina, honako baldintza hauek betetzen dituena, eta, baldintza hauekin kontraesanean ez badaude, aplikatzekoa den Triodos Kontratu Orokorren baldintzak aplikatzen zaizkiona. Kontuaren araubideak ez du loturarik produktuak izan dezakeen izen komertzialarekin. Bezeroak Kontua irekitu izango du Triodos Bankekiko harremanak dirauen bitartean, harreman horretako funtsezko elementu bat delako, Baldintza Orokorretan ezarrita dagoenez. Triodos Kontu Korrontearen Titularrek pertsona fisikoak izan behar dute beti.

**1.2.** Triodos Kontu Korrontea Titular bat baino gehiago baditu, edo baimendunak izendatu badira, Triodos Kontratu Orokorra gai horri buruz ezartzen dituen baldintza orokorrak aplikatuko dira.

### 2. KONTUA ERABILTZeko ARAUBIDEA

#### 2.1. Diru-sarrerak

Bezero berriek, lehenengo produktutzat Triodos Kontu Korrontea kontratatzen badute, eta bulegora bertaratuta indarrean den legedian ezarritako bideetako edozeinetatik ez badituzte identifikatu, Bezeroak baimena ematen dio Triodos Banki, «Erakunde artean kontuen titulartasunari buruzko datuak baieztatzeko eskaera» prozedura erabil dezan. Prozedura horren bitartez, Bankuak beste erakunde bati eskatu ahal dio Bezeroaren titulartasunari lotutako datuak baieztatzeko; hartara, lehenengo diru-sarrera titulartasuna baieztatua duen kontu batetik egiten dela ziurtatzen da.

Bezeroak diru-sarrerak egin ahal izango ditu Triodos Kontu Korrontean banku-transferentzia bidez, ordainagiri helbideratu bidez, txeke bidez, eskudiruzko intsuldaketak eginez edo Triodos Bankek onartutako beste edozein bitartekoren bidez, betiere «bukaera onari baldintzatuta». Txekak edo bestelako efektuak (beste kreditu-erakunde baten kontuan ordainagiriak helbideratzea barne) entregatuz sartutako kopuruak eskuragarri egongo dira,

soilik, Triodos Bankek kobratzen dituenean edo haiek itzultzeko edo ezeztatzeko legezko epeak igarotzen direnean.

Betiere, eta ezarritako segurtasun-sistemak direla-eta, Kontuko lehen diru-sarrerak Bezeroa titulartzat duen banku-kontu batetik etorri beharko du nahitaez.

## **2.2. Diru-ateratzeak**

Bezeroak bere Kontuko saldo hartzeko-dunak erabili ahal izango ditu transferentziak bidaliz, intsuldaketak eginez, zordunketa- edo kreditu-txartel bidez, ordainagiriak helbideratuz, txeke bidez edo Triodos Bankek une bakoitzean onartzen duen beste edozein moduren bidez.

**2.2.1.** Txeke eta ordaindukoen taloitegiak, zordunketa- edo kreditu-txartelak eta Triodos Bank NV SEren Telefono bidezko Bankuko eta Internet bidezko Bankuko zerbitzuetan erabiltzen diren eragiketa-gakoak arretaz zaindu behar ditu Bezeroak, Triodos Kontratu Orokorreko baldintza orokorretan horri buruz bere gain hartutako betebeharrekin ados. Elementu horietakoren bat galdu, ebatsi edo lapurtuz gero, Bezeroak Triodos Banki jakinarazi behar dio lehenbailehen, eta aurkeztutako salaketaren kopia bat eman behar dio. Bankua ez da erantzule egingo jakinarazpen hori baino lehen egindako iruzurrezko erabileraz. Berebat, Kontua ezereztuz gero, Bezeroak aurrez itzuli behar ditu txeekeen edo ordaindukoen taloitegiak eta harekin lotura duten bestelako ordainketa-bitartekoak.

Ordainketa-bitartekotzat postaz edo mezularitzaz bidalitako txekeak erabiltzen badira, gurutzatuak izan behar dute, Kontuan ordaintzea nahitaezkoa izan baino lehen.

**2.2.2.** Triodos Bankek egingo ditu Be-

zeroaren diru-ateratze eta –sarrerako eragiketen idazpenak, bitarteko informaticoak erabiliz eta ordainketa-zerbitzuen araudian legez indarrean dauden balorazio-arauen arabera. Hori dela eta, Bezeroak baimena ematen dio Bankuari, haren baimenaren beharrik gabe, akatsen zuzenketen idazpenak egiteko, arrazoiak justifikatuta daudenean.

**2.2.3.** Bezeroak emandako aginduak behar den arduraz gauzatuko ditu Triodos Bankek, eta baldintza partikular hauetan eta aplikatzekoa den Triodos Kontratu Orokorrean aurreikusten diren bitartekoen bidez eta, etorkizunean, alderdiek hitzartu ditzaketenen bidez bideratuko dira. Bankuak baimena du helbideratzeen zenbatekoa eta haren kargura egindako kopurua eta obligazioak Kontuan idazteko. Bezeroak onartzen du Kontua euskarri kontable gisa erabili ahal izango dela eragiketak egiteko, harekin loturiko ordainketa-bitartekoak erabiliz (adibidez, kreditu- edo zordunketa-txartelak, diruzorro elektronikoa, kutxazain automatikoak, txeke adostuak edo Bankuak etorkizunean ezartzen duen beste edozein). Kontratu honetan dirua ateratzeko beste modurik adierazten ez bada, Kontuaren zordunketa gisa onartuko dira Bezeroak baimentzen dituenak eta titularkideen kargura daudenak, gainerako titularkideei jakinarazteko beharrik gabe.

**2.2.4.** Ordainketa-aginduak —dokumentuan bertan edo Bankuak ezarritako beste bitarteko batzuen bidez adostuak— Bezeroaren Kontuan irmoki zordundu ahal izango dira, adostasuna ematen den edo dokumentua entregatzen den unean.

**2.2.5.** Bankuak baimena du Bezeroaren beste kontu batean helbideratutako dokumentuak Kontuan jasotzeko, baldin eta, dagozkion dokumentuak edo zor-

dunketak aurkezteko unean, kontu hori ezereztuta badago edo saldo xedaezina eta/edo ez nahikoa badu.

**2.2.6.** Bankuak Bezeroaren Kontuaren aurka jaulkitako txeke bat adosten duenean, haren zenbatekoa xedaezina izanda eta Kontuaren aurka zordunduko da, Bankuak adostasuna igortzen duenetik.

**2.2.7.** Prozedura informatiko automatikoen bidez Kontuan agertzen diren idazpenak eta kutzazain automatikoen bidez egiten diren eskudiruzko diru-ateratzeak zuzenean agertuko dira Kontuan. Bezeroak adostasuna adierazten du horretarako, eta, halaber, Bankuak dagozkion zuzenketa arrazoituak egin ditzan onartzen du, Bezeroak berariazko adostasuna agertu beharrik gabe.

**2.3.8.** Triodos Kontratu Orokorrean aplikatu beharreko baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera egin behar dira ordainketa-egozteak eta konpentsazioa.

**2.3.** Kobrantza-kudeaketa edo efektuen eta kreditu-eskubideen lagapena

**2.3.1.** Bezeroak eskaturik, Bankuak txekeak, letrak, ordaintzekoak eta bestelako efektuak onartu ahal izango ditu, kobrantza kudeatzeko eta ondoren Kontuan ordaintzeko, zenbatekoa kontratu ondoren. Bankuarekin hitzarmen bat eginez, efektuak aurrez ordaintzea adostu dezake Bankuak Bezeroarekin. Gerora aurretiazko efektuen zenbatekoa ordaintzen ez bada —guztiz edo partzialki—, Bezeroak dagokion kopurua itzuli beharko du berehala. Bankuak ahalmena du ordaindu ez diren efektuak Bezeroaren Kontuan zorduntzeko. Bankuak Bezeroaren itzulerarako duen eskubideak ez du esan nahi Bankuak uko egiten dienik entregatutako edo lagatako efektuetan parte hartzen duten gainerako pertsonen

aurka dituen kanbio-akzioei.

**2.3.2.** «Gasturik gabe», «protestorik gabe» eta antzeko klausulen bidez, Bankuak eta ondoko endosu-hartzailerik ez dute bete behar protesto notarialeko obligazioa, baina protesta ez aipatzeak ez du esan nahi itzultzeko eskubidea edo Bankuak dituen bestelako akzioak galtzen dituenik. Hala eta guztiz ere, protesta edo antzeko adierazpena egiteko aukera izango du Bankuak edo, endosuaren arabera, letren eramaile denak, eta sortutako gastuak igorlearen eta endosatzaileen kontura izango dira.

**2.4.3.** Bankuak ez du erantzukizunik bere gain hartuko efektuak entregatzean sortzen diren kalteengatik, baliozko denboratik kanpo itzultzeagatik, protestorik ezagatik edo protesta akastunagatik, atzerapengatik, galerengatik edo akatsengatik, Bankuarekin zerikusirik ez badute.

**2.4.4.** Atal honetan jasotzen diren kobrantza-kudeaketako efektuen lagapen edo entregetan, Bezeroak baimena ematen dio lagatako dokumentuen ordainketa helbideratuta dagoen kreditu-erakundeari, haren kontura eta interesera, dokumentu horien arabera obligazioa dutenak ordaindu ezean, ordaintzea eska diezaien, eta, halaber, baimena ematen die aurreko erakundeei, lagatako dokumentuen ez-betetzeak direla eta, ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko informazioa eman diezaien zerbitzu-emaleei. Efektuak entregatu edo laga zituen Bezeroak Bankuari jakinarazi behar dio —berehala eta behar adinako moduan— obligaziodunak gerora ordaindu duela zorra, eta bere gain hartu behar ditu obligazio

hori ez betetzeak eta, ondorioz, zerbitzu-emaileen kaudimen-fitxategietan datuak zehaztasunik gabe edukitzeak sor ditzakeen erantzukizunak.

### 3. ZORPEKOAK

**3.1.** Arau orokor gisa, eta berariaz hitzarturiko salbuespenak alde batera utzirik, Kontuan ez da onartuko zordunketa-saldorik. Beraz, Bezeroak berariaz onartzen du Triodos Bankek ez duela gauzatuko ordainketa-agindurik, Kontuan nahiko funts ez badago, eta ez-gauzatze horrengatik ezingo zaiola erantzukizunik eskatuko. Zorpekoak baldin badaude, Bezeroak berehala itzuli behar ditu funtsak, Triodos Bankek errekerimendurik egin beharrik gabe, eta titularkide guztiak solidarioki erantzungo dute Triodos Banken aurrean.

**3.2.** Saldo zorduna dagoen bitartean, Triodos Banken alde ezarritako interes-tasa sortuko du, zorpekoa hasten denetik, osorik ezereztan den arte. Kasu horietan, Triodos Bankekin hitzartutako edo haren iragarki-taulan adierazitako interesa aplikatuko da. Horrela sortutako interesak interes hartzekodunak likidatzeko aldizkakotasun berarekin likidatuko dira, dagokion Triodos Kontu Korrontean. Mugaeguneratutako eta bete gabeko zorpekoaren interesak kapitalizatu egingo dira, saldo zorduna handitzeko eta zorpekoaren une bakoitzean dagokion tasaren arabera interes berriak sorrarazteko.

**3.3.** Halaber, zorpekoen kasuan, posizio zordunaren komisioak eta erreklamazio-gastuak sortuko dira Triodos Bankek argitaratutako Tarifa Liburuan aurreikusten dira, behin bakarrik, eta erreklamazioak xede duen Kontuak izan dezakeen zorpeko posizio bakoitzeko. Zorpekoek

ekarritako saldo zordunak zuzenean konpentsatu ahal izango ditu Bankuak, saldo hartzekoduna duten Bezeroaren beste produktu batzuetako saldo hartzekodunaren kontra, aplikatzekoa den Triodos Kontratu Orokorrean hartarako adostutakoaren arabera.

### 4. INFORMAZIOA, LABURPENAK ETA LIKIDAZIOAK

Aplikatzekoa den Triodos Kontratu Orokorreko baldintza orokorren arabera arautu behar dira.

### 5. INDARREAN SARTZEA, ALDAKETAK, IRAUPENA ETA EZEREZTEA

**5.1.** Kontratuaren iraupena mugagabea da, eta Triodos Kontratu Orokorrean aplikatzekoak diren baldintza orokorretan ezarritakoaren arabera arautu behar da indarrean sartzea.

**5.2.** Triodos Kontratu Orokorrean ezarritakoaren arabera egin behar dira aldaketak.

**5.3.** Aurrerago jasotzen den utziespen-eskubidea alde batera utzirik, zeinahi alderdik ezereztu dezake Kontua, arrazoirik eman beharrik gabe, ebazpena irmo egiten den data baino hilabete bat (1) lehenago bidalitako idatzizko jakinarazpen soil bidez.

**5.4.** Kontratu honetan jasotzen diren arrazoirien bategatik Kontua itxiz gero, Bezeroak likidatu egin beharko ditu ordaindu gabeko gastuak, saldo zordunak eta komisioak, halakorik balego. Kontu bat ezereztutakoan, saldo hartzekodunik egonez gero, interesak sorrarazteari

utziko diote, eta Bezeroaren esku geratuko dira automatikoki.

## 6. INTERESAK, KOMISIOAK, GASTUAK ETA BALORAZIOAK

### 6.1. Saldo hartzekodunagatiko interesak

Saldo hartzekodunek Bezeroaren alde sortuko dute hitzartutako edo, aldatuz gero, une oro Triodos Bankeak argitaratutako iragarki-taulan ezarritako interes-tasa nominala, aplikatzekoa den Triodos Kontratu Orokorrarekin bat. Interesen sortzapena egunerokoa izango da, eta hitzartutako maiztasunarekin likidatu eta ordainduko dira. Hitzarmenik izan ezean, hiru hilabete behin likidatu eta ordainduko dira. Interesak Kontuan aldizkakotasun horrekin egingo dira idazpen kontableak, dagozkien atxikipen fiskalekin batera.

Interes- eta kanbio-tasen aldaketak berehala eta aurretik jakinarazi gabe aplikatu ahal izango dira, baldin eta (i) aurrez Bezeroarekin adostutako erreferentziazko interes- edo kanbio-tasak badituzte oinarri edo (ii) ordainketa-zerbitzuaren erabiltzailentzat onuragarriagoak badira.

Saldo zordunek edo hartzekodunek sorrarazitako interesen zenbateko absolutua kalkulatzeko, interes bakunaren formula erabiltzen da:  $\text{Kapitala} \times \text{Korritua} \times \text{Denbora} / 360$ ; kapitala izanik mantentzen den saldoa; korritua, interes-tasa nominaia; eta denbora, egonaldiko egunak.

### 6.2. Komisio eta gastu jasanarazgarriak

**1.1.** Triodos Gordailuaren (aurrerantzean, «Gordailua») bidez, diru-kopuru bat epe finko batera gordailutzen da. Epe hori igarotzean, itzuli egiten da kopuru hori, eta, epe horretan edo mugaegunean, dagozkion interesak likidatzen eta ordaintzen dira, hitzartutako baldintzak kontuan izanda. Bankuak une bakoitzean eskaintzen dituen epeen eta modalitateen arabera eratuko da Gordailua.

**1.2.** Produktu izenduna eta besterenezina da, Triodosen irekitako Kontu Korrante batera (aurrerantzean, Kontu elkartua, edo besterik gabe Kontua) elkartua beti, eta haren titulartasun berekoa, Gordailuaren zenbatekoak zorduntzeko eta dagozkion interesak ordaintzeko.

### 2. ORDAINKETAK ETA ZORRAK

**2.1.** Gordailuaren irekiera ordaintzeko, hari loturiko Kontuko diru-sarrerak erabiliko dira, Bankuak une oro ezarritako prozeduren arabera. Triodos Gordailua kontratatuz, hari loturiko kon-tuaren intsuldaketa-agindua ematen dela ulertzen da, isilbidez.

**2.2.** Gordailua eratu ondoren, Bezeroak ezin du aldebakarrez aldatu kontratatutako epea, alde batera utzirik aurrez ezerezteko edo utziespen-eskubidea erabiltzeko duen aukera (aurrerago azaltzen dira).

**2.3.** Halaber, Bankuak ordainduko ditu sorrarazitako interesak eta itzuliko du printzipala, loturiko Kontuaren bidez.

### 3. INTERESAK

#### 3.1. Interes-tasa

Kontratazioaren unean hitzartutako edo, ezeztatuz gero, ezeztatze-unean indarrean dagoen iragarki-taulan argitaratutako interes nominala aplikatuko zaio Gordailu bakoitzari.

### 3.2. Interesen likidazioa

Gordailututako zenbatekoak interesak sortuko ditu, egunez egun, Gordailuak indarrean jarraitzen duen bitartean, eta mugaegunean edo hitzarturiko uneetan ordainduko dira aurrez, dagokion atxikipen fiskala egin ondoren— loturiko Kontuan.

Formula hau erabiliko da sorrarazitako interesen zenbateko absolutua kalkulatzeko:

$\text{Kapitala} \times \text{Korritua} \times \text{Denbora} / 36.500$   
(36.600, bisurteetan); kapitala izanik mantentzen den saldoa, korritua, interes-tasa nominala eta denbora (egindako egunak).

UTBa dokumentu honen kontratazio-aginduan azaltzen da informazio gisa; Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularraren (argitalpena: BOE, 161. zenbakia, 2012-07-06, 48902. orrialdea) ezarritakoaren arabera adieraziko da.

Gordailu bat aldeztu aurretik ezereztzen bada dagokion komisioa aplikatuta edo aplikatu gabe, azken aldiz ordaindu diren egunetik igarotako denboraren arabera likidatuko dira interesak, edo, hala badagokio, gordailua ireki denetik ezerezte-datara arteko denboraren arabera.

### 3.3. Interesen ordainketa

Loturiko Kontuan ordainduko dira interesak. Urte beteko edo gutxia-goko Gordailuetan, mugaegunean ordainduko dira interesak, besterik dioen berariazko hitzarmenik izan ezean. Urte betetik gorako epea duten Gordailuetan, berriz, Gordailua kontratatzean hitzartutakoaren arabera ordainduko dira, kontuan izanik Triodos Bankek une oro eskaintzen dituen aukerak.

## 4. IRAUPENA, BERRITZE AUTOMATIKOA ETA MUGAEGUNERATZEA

Triodos Bankek une oro eskaintzen dituen aukeren arabera izango da Bezeroak kontratatzen duen Gordailuaren iraupena. Ondorio guztietarako, eta,

bereziki, Gordailuaren epea hasteari eta interesen likidazioari eta sortzeari dagokienez, Kontratu hau eraginkorra izango da Gordailuari loturiko Kontutik datorren kapitalaren intsuldaketa jasotzen den datatik aurrera.

Mugaeguna iristean, Gordailua automatikoki berrituko da epe bererako, eta hasieran hitzartutako baldintza berekin, berrikuntzaren unean Triodos Bankek eskaintzen duen interes-tasa efektiboan.

Hala eta guztiz ere, edozein alderdik uko egin ahal izango dio Gordailua berritzeari, mugaeguna iritsi baino lehen. Bankuak egin dezan, nahikoa da, mugaegunean, gordailututako zenbatekoa eta sortutako interesak Gordailuari loturiko Kontuan ordaintzea. Titularrak ez badu Gordailua berritu nahi, dagokion agindua igorri behar dio Triodos Banki, Gordailuaren mugaeguna iritsi baino lehen. Hartara, Gordailuaren mugaeguna iristean, Triodos Bankek Gordailuari loturiko Kontuan ordainduko ditu kapitala eta sorturiko interesak. Dena den, gordailua mugae-guneratu eta hurrengo hamalau (14) egunetan, Bezeroak aukera du aplikatutako interes-tasa berriari uko egiteko eta gordailua ezerezteko.

## 5. ALDEZ AURRETIK EZEREZTEA

Bezeroak eskaturik, Bankuak Gordailu bat ezereztu ahal izango du, mugaeguna

iritsi baino lehen. Gutxienez, eskaturiko ezerezte-data baino hiru (3) egun lehenago egin behar du eskaera Bezeroak. Gordailua irekitzen den egunean Triodos Banken Tarifa Liburuan jasotzen den aurretiazko ezerezte-komisioa aplikatuko da. Komisio horrek ez du izan behar, inolaz ere, Gordailua indarrean zegoen bitartean sortutako interesei dagokion zenbateko garbia baino handiagoa.

## 6. UTZIESPEN-ESKUBIDEA

Gordailuari aplikatzekoa zaio Triodos Kontratu Orokorrean araututako utziespen-eskubidea, eta Triodos Banken webgunean deskribatzen da prozedura. Pertsona fisiko diren bezeroek, beren enpresa-jardueraz edo jarduera profesionalaz kanpoko helburua duten kontsumitzaile gisa jarduten badute, Triodos Bankekin sinatutako finantza-produktu edo -zerbitzua desegin ahal izango dute, arrazoiak azaldu beharrik gabe eta zigorrik jaso gabe. Pertsona fisiko kontsumitzaileek hamalau (14) egun naturaleko epean (kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasita) gauzatu ahal izango dute utziespen-eskubidea. Eskubidea gauzatzeko, bi bide hauek daude: a) Parte-hartzaile guztiek sinatutako gutun bat helbide honetara bidaltzea: Triodos Bank NV, Sucursal en España, Departamento de Atención al Cliente, C/ José Echegaray, 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28230 Las Rozas, Madrid. b) Telefono bidezko Bankuko saio bidez, gako pertsonalak erabiliz.

# // J eranskina

## Tarjeta Débito Triodos

### 1. XEDEA

Kontratu honen bidez, ordainketa-bitartekoak erraztu nahi zaizkie erabiltzaileei, Triodos Zordunketa Txartela (aurrerantzean, «Txartela») jaulkiz eta entregatuz, baldintza partikular hauetan eta kontratazio-formularioan ageri diren baldintza ekonomikoetan jasotzen denarekin bat. Hamalaugarren klausulan ezarritako moduan eguneratu ahal izango dira baldintzok.

### 2. BALDINTZA OROKOR EDO PARTIKULARREKIKO ADOSTASUNA

Aurrerago azaltzen den formuletakoko bat erabiliz Txartela erabiltzeak hauek onartzea dakar berekin:

- a) Baldintza partikular hauek, zeintzuen bidez arautzen baitira Txartelaren Titularraren eta Triodos Banken arteko harremanak.
- b) Kontratazio-formularioan ageri diren baldintza ekonomikoak.
- c) Aurrerantzean indarrean jartzen diren eta adierazitako kanalen bidez jakinarazten diren baldintzak.
- d) Triodos Kontratu Orokorretik aplikatuzekoak diren baldintza orokorrak.

Kontraesanik izanez gero, baldintza partikularretan ezarritakoa baldintza

orokorrei buruz ezartzen denari nagusituko zaio.

Baldintza horiek aldatzen badira, eta titularrak ez baditu onartzen baldintza berriak, kontratua desegin egi ahal izango du, alde batera utzirik bere gain hartutako obligazioak.

Triodos Banken Tarifa Liburua eta iragarkitaula euskarri iraunkorrean eskura ditzake Bezeroak, Triodos Banken webgunean, eta paperean Bankuaren bulegoetan. Bezeroak aitortzen du eskuragarri izan dituela kontratua gauzatu baino behar adina denbora lehenago.

### 3. TITULARTASUNA

**3.1.** Titulartasuna: Txartela Triodos Banken jabetzakoa da, eta izaera pertsonal eta besterenezinez jaulkitzen da titularraren izenean. Titularra Txartelaren hartzaile soila izango da, eta Txartelean ageri den izenari eta sinadurari dagokion pertsona fisikoak bakarrik erabili ahal izango du.

**3.2.** Txartelari loturiko Triodos Kontu Korrontea: titularrak Txartela lotu behar du titular edo titularkide gisa Triodos Banken duen Triodos Kontu Korrontera loturiko kontuan ordainduko eta/edo zordunduko dira Txartelaren bidez egindako eragiketak, eta haietatik eratortzen diren komisio, interes eta gainerako gastu eta ordainketa-obligazioak.

**3.3.** Txartel gehigarria: titularrak eskaturik —Triodos Kontu Korronteak zenbait titularkide baditu, denek eskatu behar dute—, eta Bankuak aurretiatzko azterketa eginik, Triodos Bankek txartel gehigarriak jaulki ahal izango ditu hirugarren titularren alde.

Kontratuaren titularrak eskatu behar dio Triodos Banki Txartela jaulkitzea. Titular hori titularkideek eskatutako Txartel gehigarriak ondo erabiltzearen erantzule egiten da.

Titularrak emandako txartel gehigarriak, nahitaez, titular nagusiaren Txartelari dagokion Triodos Kontu Korronte berari lotuta egongo dira. Hori dela eta, txartel gehigarriak eskatzean, une horretatik aurrera, titular nagusiak onartu egiten ditu, txartel horiekin egiten diren diru-ateratzeak eta transakzioak direla-eta, Bankuak haren kontuetan egiten dituen zordunketak. Txartelak titularrari eta onuradunei —hala badagokie— emateko, postaz entregatzen edo bidaltzen dira, hasierako jaulkipena egiten denean nahiz, gerora, berrikuntzak egiten direnean.

**3.4.** Kontratuaren Titularrak eta Txartelaren Titularrak —bat bera ez badira— kontratuarekin ados daudela adierazten dute, eta hura betetzeko obligazioa hartzen dute beren gain, solidarioki.

3.5. Adingabeentzako Txartelak eskatzen eta jaulkitzen diren kasu berezietan, haien legezko ordezkariak beren gain hartzen dute txartel horiekin egiten diren eragiketen gaineko erantzukizuna, eta beren gain hartzen dituzte kontratu honetan txartelak erabiltzeko ezartzen diren obligazioak eta erantzukizunak.

## 4. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratu honen iraupena mugagabea da.

Bi alderdietako edozeinek desegin dezake, kontratu honetan aurreikusten diren modu eta epeetan.

Txartel nagusiak eta txartel gehigarriak balio-epe mugatua izango dute, txartelean inprimatuta ageri den hilabeteko azken egunera arte, eta ezingo dira erabili epe horren ondoren, alde batera utzirik, iraungi ondoren, berritzeko dagoen aukera.

Kontratu hau indarrean dagoelarik, txartelak mugaeguneratzen direnean, Triodos Bankek txartel gehiago bidali ahal izango dizkio titularrari —txartel gehigarriak barne—, titularrak berariaz aurkakoa adierazten duenean salbu. Ordezkatze hori Txartela mugaeguneratu baino lehen egin ahal izango da, baldin eta erabiltzaileak berariaz eskatu gabeko funtzionalitate berriak eskaintzeko bada, eta doan ordezkatu da.

Baimenduta dauden Txartelaren Titularrari edo Titularrei txartel berria bidaliz gero, kontratu honen bidez arautuko dira txartel hori eta ondorengoak. Hala eta guztiz ere, Bankuak ahalmena du, indarrean dauden bitartean, Txartelak ezerezteko eta mugaegunean ez berritzeko. Ondorioz, baimenduta dauden Txartelaren Titularrak edo Titularrek haren erabilerari lotutako eskubide guztiak galduko dituzte.

Txartel nagusia ezerezteak edo blokeatzeak txartel gehigarriak baliogabetu ahal izango ditu. Ezerezteak jakinarazi bezain laster, baimenduta dauden Txartelaren Titularrak edo Titularrek Bankuari itzuli behar dizkiote Txartelak, eta haien kargura izango dira, benetan itzuli arte, Txartel horiekin egiten diren transakzioak, baita martxan daudenekin egindakoak ere.

Txartelaren titularrak hari loturiko kontua ezerezten badu, Txartel nagusia eta gehigarriak ere harekin batera itzuli behar



ditu, eta Bankuari ordaindu behar dizkio ordaintzeke dituen zor eta gastuak. Hori egitean, kontratua iraungita geratuko da. Berebat, titularrak edozein unetan salatu dezake kontratua, Bankuari bidalitako idatzi bidez. Ondorioz, berehala itzuli behar ditu Txartela edo Txartelak, eta Bankuari ordaindu behar dizkio ordaintzeke dituen zor eta gastuak. Hori egitean, kontratua iraungita geratuko da. Klausula honetan aurreikusten diren kasu guztietan, kontratuak eraginkorra izaten jarraituko du Txartela erabiltzetik ondorioztatutako zorren bat betetzeke dagoen bitartean, eta dagokion erreklamazioa egiteko aukera izango da.

Triodos Bankek eskubidea izango du Txartelaren erabilera blokeatzeko, haren segurtasunarekin eta/edo baimenik gabe edo iruzurrez erabiltzearekin loturiko arrazoi justifikatuak direla eta, betiere, une oro indarrean dagoen legeriak ezarritako mugak eta baldintzak betetzen badira. Kasu horietan, baldin eta aukera badago, titularrari blokeoaren berri emango zaio hura gauzatu aurretik edo, hala ezin bada, hura eraginkor bihurtu ondoren. Blokeoa sortu zuten inguruabarrak amaitu egiten badira eta aukera baldin badago, Txartela desblokeatu egingo da, edo, hori egiteko aukerarik izan ezean, berri batekin ordeztuko da.

## 5. FUNTZIOAK ETA ZERBITZUAK

Txartela ordaintzeko bitarteko bat da, eskudirua erabiltzeko bitartekoa, eta, horrez gainera, sarbide-identifikatzailea da, telefonoz eta/edo bitarteko elektronikoen bidez, titularraren kontuei buruzko informazioa jasotzeko eta transakzioak egiteko eta ondasun eta zerbitzuak kontratatzeko eta ordaintzeko.

Txartela pertsonala eta besterenezina da, eta zenbaki sekretu bat du, kutzazain eta autozerbitzu-terminaletan erabiltzeko. Dena dela, beste erabilera edo gailu osagarri batzuetarako, beste gako batzuk ezar daitezke.

Txartelak aukera ematen dio titularrari eragiketa hauek guztiak edo hauetako batzuk egiteko:

- a) Eskudirua ateratzea, Triodos Banken bulego eta kutzazain automatikoetan edo Triodos Bankekin hitzarmena egina duten finantza-entitate nazional edo atzerriarretan. Bankuak ez du erantzukizunik izango Txartela errefusatzegatik.
- b) Ondasunak eta zerbitzuak ordaintzea, Txartela onartzen duten establezimendu nazional nahiz atzerriarretan.
- c) Saldoak kontsultatzea, ordainketa-modalitatea edo zenbaki sekretua aldatzea, eta Txartelari loturiko gainerako eragiketak; kontu-laburpenak, transferentziak, intsuldaketak, eta gainerako finantza-eragiketak; ondasun eta zerbitzuak kontratatu eta ordaintzea: sarrerak, garraio-tituluak, zergak, telefono mugikorrek kargatzea, etab. Hori guztia egiteko, Triodos Banken kutzazainak edo, bestela, Telefono bidezko Bankua edo Internet bidezko Bankua erabil daitezke. Aipaturiko eragiketek sarbide-motaren araberrako mugak izango dituzte, eta eragiketa batzuk egiteko, gako osagarriak eman behar dira.

Txartelarekin egin daitezkeen eragiketa horiek adibide gisa aipatzen dira, hau da, ez da zerrenda itxia. Etorkizunean, beste zerbitzu eta erabilera batzuk gaineratu daitezke, edo lehendik daudenak alda

daitezke. Komunikazioen edo gailu automatikoen bidez emango da haien berri.

Eragiketen eta haien zenbatekoaren ziurtagiri gisa erabili ahal izango dira Txartelak erregistraturikoak, Bankuaren erregistro informatikoetan ageri direnak eta Txartelekin erabili daitekeen edozein gailuk jaulkitako egiaztagiriak, eragiketok Txartelaren titular baimenduek egiten dituztenean nahiz hirugarrenek —titularraren baimenarekin nahiz baimenik gabe— egiten dituztenean.

Txartela erabili izana ziurtatzen denean —faktura, datafoneoen ordainagiri edo erregistro-terminal elektronikoen bidez— eta/edo Txartela zuzenean aurkeztu izana edo identifikazio elektronikoa erabili izana adierazten duten eragiketak baimentzean edo banda magnetikoa irakurtzean, nahiz eta baimenduta dauden Txartelaren Titularrari edo Titularrei beren nortasun-agiria, sinadura edo identifikazio-zenbaki pertsonala ez eskatu, adierazten du transakzioa erreala dela eta Txartelari loturiko Triodos Kontu Korrontean eragiketa idazteko adostasuna ematen dela. Urrutiko salmentetan ere, zenbakiaren identifikazioak ondorio berak sortzen ditu; izan ere, transakzioa Bankuaren artxibo informatikoetan erregistratze hutsak Txartela modu eraginkorrean erabili dela adierazten du.

Telefono bidezko Banku edo bidezko Banku bidez egindako eta kautotze-bitartekoen bidez egiazaturiko eragiketak baliozkotzat joko dira, eta titularrak egin dituela usteko da. Hortaz, ondorio juridiko osoak sortuko dituzte. Eragiketa horiek frogatu ahal izateko, titularrak baimena ematen dio Bankuari telefono bidezko elkarrizketa guztien erregistro informatikoa edukitzeko edo dagokion euskarri magnetikoa gordetzeko. Titularrak elka-

rrizketa edo euskarri horien transkripzio idatzia eskatu ahal izango du, eta froga nahikotzat hartzen dira alderdien artean sor daitezkeen eztabaidetarako.

## 6. TRIODOS BANKEN OBLIGAZIOAK

Bankuak obligazio hauek ditu:

- a) Txartelaren eta txartel gehigarrien identifikazio pertsonaleko zenbakiak sekretupean gorde behar du. Bereziki, bere gain hartzen ditu titularrari edo edozein onuraduni ordainketa-tresna bat nahiz haren segurtasun-elementu pertsonalatu bat bidaltzeak sor ditzakeen arriskuak.
- b) Iraungita dauden Txartelak nahiz salatu direnak —hondatu edo galdu egin direlako, lapurtu egin dituztelako edo titularra edo onuraduna ez den norbaitek identifikazio-zenbaki pertsonala dakielako— ezeztatu behar ditu. Une horretatik aurrera, dagokion onuradunari Txartelen edozein erabilerara galarazi behar dio.
- c) Eskatu ez diren ordainketa-tresnak ez ditu bidali behar, salbu titularrari edo onuradunari nahiz onuradunei dagoeneko entregatutako ordainketa-tresna bat ordeztu behar denean, edo haren bidalketa unean-unean indarrean den araudian jasotzen denean eta segurtasunerako, hobekuntza teknikoak egiteko edo teknologiarara egokitzeko, ordeztea komeni denean.
- d) Une oro bitarteko egokiak eta doakoak eskaini behar ditu, titularrak zeinahi komunikazio egin ahal izateko (bereziki, Txartela galtzen bada edo ebatsi egiten badute, Txartela baimenik gabe erabiltzen bada edo, blokeat-

zeko arrazoiak amaitzean, desblokea dezaten eskatu nahi bada). Bankuak doan emango dizkio titularrari —baldin eta hark eskatzen badu— komunikazio hori gertakariaren ondorengo hemezortzi (18) hilabeteetan egin izana egiaztatzen duten bitartekoak.

e) Titularrari eta onuradunari edo onuradunei informazioa eman behar die Txartelen funtzionamenduari eta eskaintzen dituzten aukerei buruz, eta horretaz izan dezaketen zalantza oro argitu behar dizkie.

## 7. TITULARREN ETA ONURADUNEN OBLIGAZIOAK

Titularrak obligazio hauek ditu:

a) Kontratu honen babesean jaulkitzen diren Txartelekin egiten diren eragiketa guztiak eta, eragiketa horien bidez, dagokion kontuan egiten diren zordunketak onartu behar ditu, baldin eta titularrak edo onuradunek —hala badagokie— adostasuna eman badute eragiketa horiek egiteko.

b) Eragiketen eta haien zenbatekoaren egiaztagiria gisa edozein Txartelek erregistraturikoa, Bankuaren erregistro informatikoetan ageri dena edo Txartelak erabiltzen dituen edozein gailuk jaulkitako egiaztagiria onartu behar ditu, baldin eta eragiketa horiek Txartelaren titularrak, txartel gehigarrien onuradun titularrak edo haietako baten baimena duten hiru-garrenek egiten badituzte. Horretarako, datu hauek jaso behar dira: egin-dako eragiketa identifikatzen duen erreferentzia, —eta, hala badagokio, onuradunari buruzko informazioa—, eragiketaren zenbatekoa Triodos Kon-

tu Korrontean kargatu den monetan, eragiketa-gastuen zenbatekoa —eta, hala badagokio, titularrak ordaindu beharreko gastu eta interesen banakatzea—, ordainketa-agindua jaso zen data —eta, hala badagokio, ordainketa-eragiketa egitean, ordainketa-zerbitzuak erabiltzen duen kanbio-tasa, eta ordainketa-eragiketa horren zenbatekoa, monetaaren bihurketa egin ondoren—.

c) Bankuari jakinarazi behar dio Txartelaren titularrak edo onuradunek baimendu gabeko transakzioak kargatu izana, baita Txartelen funtzionamenduan atzemandako edozein errore edo irregulartasun ere, Bankuak zuzendu ditzan. Horretarako, titularrak atzerapen bidegaberik gabe jakinarazi behar du, baimenik gabeko zordunketaren edo eragiketa okerraren berri izaten duenean eta, betiere, zordunketa edo eragiketa hori egin eta hamahiru (13) hilabete igaro aurretik, baldin eta Bankuak dagokion informazioa eskura jartzen badio titularrari.

d) Titularrak onuradunei buruz eman dituen datuen egiazkotasunaren eta zuzentasunaren aurrean erantzun behar du, Txartelak haien izenean pertsonalizatu ahal izan daitezen.

e) Onuradunei kontratu honen edukia buruzko informazio egokia eman behar die.

f) Txartela berehala sinatu behar du.

g) Behar den arretaz jokatu behar du Txartelaren eta hura erabiltzeko prozeduraren segurtasuna bermatzeko, eta, bereziki, identifikazio-zenbaki pertsonala sekretupean mantendu behar du.

h) Behar den arretaz zaindu eta egoki erabili behar du gordailu gisa ematen den Txartela.

i) Behar den arretaz jokatu behar du Txartela ez ebasteko, ez faltsifikatzeko eta ez galtzeko.

j) Txartela galdu, lapurtu edo faltsifikatu izana edo, titularraren borondatearen kontra, beste batzuek identifikazio-zenbaki pertsonala dakitela jakinarazi behar du, horren berri izan bezain laster, atzerapen bidegaberik gabe. Bankuaren bulegoren batera joanda edo Txartelean bertan azaltzen diren telefono-zenbakietara deituta egin behar da jakinarazpen hori, Txartela oker erabiltzea saihesteko arreta-neurriak har ditzan Bankuak. Hori egin eta berehala, abisu hori berretsi egin behar da, posta ziurtatu bidez edo Bankuaren bulego batera joanez, eta dagokion dokumentua onartu.

k) Txartela Bankuari itzuli behar dio edo suntsitu egin behar du, Bankuak hala eskatzen dionean, kontua blokeatu edo ezerezten denean, titularrak konturako zordunketak egiteko baimena ezeztatzen duenean, Txartelaren eskaeran emandako titularraren datuak faltsuak direla egiaztatzen denean, Txartelaren titularrak kontratu honetan agertzen diren arauak betetzen ez dituenean edo titularraren kaudimena aldatzen denean, baldin eta Bankuak uste badu, aldaketa horren eraginez, Txartela izateak edo erabiltzeak sortutako arriskuaren esaldura txikiegia dela, salbu titularrak berehala bermatzen duenean, berme erreal bidez, Bankuaren aurrean duen zorra.

l) Suntsitu egin behar du edo Bankuari

eman behar dio iraungita dagoen edo ordeztu den Txartela.

m) Oro har, atxikitako establezimenduetan ondasunak erosteko eta Txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko: 1.- Txartela aurkeztu eta saltokiak egindako faktura sinatu edo PINa sartu behar da. Horren bidez, titularrak adierazten du erabat ados dagoela egindako eragiketarekin. 2.- Txartela aurkeztean, titularrak bere nortasuna egiaztatu behar du, eragiketa egin ahal izateko.

n) Ordaintzeko obligazioa. Titularrak obligazioa du, edozein kontzeptu dela-eta, eta Txartela edo txartel gehigarriak jaulki eta erabiltzearen ondorioz, Bankuari zor dizkion zenbatekoak ordaintzeko, kontratu honetan ezartzen denarekin bat. Halaber, f) eta m) ataletan —biak barne— aipatzen diren obligazioak (titularrak Txartelarekiko dituenak) onuradunei ere aplikatuko zaizkie —baldin badaude—, txartel gehigarriekiko.

o) Bankuan nahikoa funts izan behar du une oro, kontratu honetatik ondorioztatzen diren ordainketa-erantzukizunak estali ahal izateko. Bankuak eskubidea du, kontratu honetan jasotzen diren baldintzak betetzen ez badira, Txartela kontratatzeko eta berritzeko aukera kentzeko edo kontratua desegiteko.

p) Txartelaren mugimenduak erregulartasunez begiratu behar ditu, hau da, gutxienez, hilean behin, eta, halaber, zenbatekoa edo ezaugarriak kontuan izanik, Titularrak edo onuradunek egin ohi dituzten eragiketekin bat ez datozen zordunketak egin direla ikusten den bakoitzean.

q) Espainiako lurralde osoan erabil daitekeen telefono mugikor baten titularrak izan behar du, soilik kontratu hau mantentzeko beharrezkoak diren zerbitzuak jaso ahal izateko, eta Bankuari jakinarazi behar dio, arretaz eta ahalik eta lasterren, telefono-zenbaki horrekin izandako zeinahi gorabehera, baldin eta Txartelaren erabilera egokia arriskuan jar badezake (adibide gisa, eta oro har, telefonoa galdu, lapurtu, eta/edo ebastea, edo titularrak telefono mugikorrean mezuak eta/edo komunikatuak jasotzea, Txartelaren bidez titularrak berak egingindakotzat jotzen ez dituen eragiketak egin izana adierazten dutenak).

## 8. IRUZURREZKO ERABILERAGATIKO ERANTZUKIZUNA

a) Titularra salbuetsita dago Txartelaren eta txartel gehigarrien eta identifikazio-zenbaki pertsonalaren bidegabeko erabilerak sortutako erantzukizunetik, zazpigarren baldintzaren arabera, Txartela —edo, hala badagokio, txartel gehigarrietako bat— galdu, lapurtu edo faltasifikatu izana edo identifikazio-zenbaki pertsonala beste pertsona batek dakiela jakinarazten duen unetik aurrera, baldin eta Titularrari ezin bazaio dola edo errurik egotzi. Titularra edo onuradunak ez diren norbaitek identifikazio-zenbaki pertsonala baimenduta erabiltzen badu, haren arduragabekeria larria edo iruzurra adierazten du, baldin eta kontrako frogarik ez badago, eta ezinbesteko kasua alde batera utzirik.

b) Bankuak, egoki deritzen neurriak hartzeko duen aukera eragotzi gabe, ez du erantzukizunik izango, baldin eta ondasunak saltzeko edo zerbitzuak es-

kaintzeko konpromisoa duten saltoki, banku eta kutxek zeinahi Txartelekiko arreta-falta adierazten badute, edo Bankuaren sarekoak ez diren eta Bankua konektatuta dagoen kutxazain automatikoetan arazo tekniko edo operatiboak sortzen badira, betiere, Bankuaren dolurik edo erru larririk ez badago.

c) Halaber, Bankuak ez du zerikusirik izango establezimenduaren eta Txartelaren titularraren edo, hala badagokio, txartel gehigarrien onuradunen artean egindako eragiketetatik erator daitetzkeen gorabehera eta erantzukizunekin.

d) Titularraren erantzukizun dira Txartelaren nahiz txartel gehigarrien erabilera egokia eta kontserbazioa.

e) Aurrekoa gorabehera, Txartela galdu edo lapurtu izana jakinarazi aurretik hirugarrenek txartelekin egindako iruzurrezko erabileren gainean titular edo onuradunek duten erantzukizuna berrogeita hamar (50) euro izango da gehienez, baldin eta haien dola, kulpa edo arduragabekeriarik ez badago.

f) Bankua ez da erantzule egingo haren arazoizko kontrolpean ez dauden eta aurretik jakin ezin diren salbuespen-egoerez, ahalegin guztiak eginda ere, ondorioak saihestezinak direnean.

## 9. EZ GAUZATZEA EDO AKATSA-REKIN GAUZATZEA

Triodos Bank NV, S.E. izango da erantzule, txartelaren titularraren aurrean, ordainketa eragiketa egokiro gauzatzeaz, harik eta haren zenbatekoa onuradunaren ordainketa zerbitzuen hornitzailearen kontuan ordaintzen den arte. Triodos Bank

NV, S.E. banketxeari egoztekoa den kausa-  
rengatik gauzatu ez diren edo akatsarekin  
gauzatu diren ordainketa eragiketen  
kasuan, banketxe horrek arrazoirik gabeko  
atzerapenik gabe titularrari itzuliko dio  
eragiketari dagokion kopurua; eta, hala  
badagokio, ordainketa eragiketa akastuna  
egin izan ez balitz egon beharko lukeen  
lehenagoko egoerara berrezarriko du  
ordainketa kontuaren saldoa.

## 10. KOMISIOAK

Kontratu honetako baldintza partikularre-  
tan ageri diren komisio eta/edo gastuak  
aplikatuko dira, zeinak, indarrean dagoen  
legeriari jarraikiz, segidan deskribatzen  
baitira:

- a) Jaulkipen- eta mantentze-komisioa.  
Txartela eta txartel gehigarrietako  
bakoitza edukitze hutsagatik, urteko  
kuota bat kobratuko da, edo titularrak  
duen zenbatekoaren arabera zenba-  
teko bat, baldintza partikularretan  
xedaturikoaren qarabera.
- b) Eskudirua ateratzeagatik komisioa.  
Eskudirua ateratzeko Txartelak era-  
biltzeagatik kobratuko da, eta komisio  
hori desberdina izan ahal izango da  
erabilera hori Bankuaren sareko ku-  
txazainetan edo beste sare batekoetan  
edo euro-eremuaren barruan edo han-  
dik kanpo egitearen arabera. Ateratako  
eskudiruaren zenbatekoarekin batera  
edo hurrengo likidazioarekin batera  
zordunduko da komisioa, baldintza  
partikularretan zehazten denaren  
arabera.
- c) Txarteleko zenbatekoa gaintitze-  
agatik komisioa. Une oro erabilgarri  
dagoen saldoaren muga gaintitzen  
duen kantitateari buruzko baldintza

partikularretan ezarritakoa kobratuko  
da.

d) Kexagatiko batzordea edo gaindi-  
tutako posizio zorduneko kobratze  
kudeaketa: galdagarria gertatzen den  
Txarteleko Titularrak zor izandako kan-  
titatearen gainean hasten den kobrat-  
zeko kudeaketa bakoitzeko, eta posizio  
zordun berri bakoitzaren gainean,  
baldin eta halako kexa edo kobratze-  
kudeaketa egiten bada, jasoko da be-  
hin kobratzeko kudeaketa-gastuetako  
kontzeptuan Baldintza Partikularretan  
behar izandako kopuruko batzordeko.

e) Txartelaren kopiagatik komisioa.  
Baldintza partikularretan zehazten  
den kopurua kobratuko da, baldin eta  
titularrari eta/edo onuradunei egotz  
dakiekeen arrazoi batengatik bada.

f) Laburpenaren kopia bidaltzeaga-  
tiko komisioa. Bankuak gastu bat  
kobratuko du titularrak laburpenaren  
kopia bat bidaltzeko eskatzen duen  
bakoitzean, tarifa-liburuan jasotako  
baldintzen arabera.

g) Saldoa eta mugimenduak kontsul-  
tatzeagatik komisioa. Tarifa-liburu-  
aren arabera komisio bat kobratuko  
da saldoak edo mugimenduak kont-  
sultatzeagatik, eta komisio desberdina  
aplikatu ahalko da Bankuaren sareko  
kutxazainetan edo beste sare bateko-  
tan egitearen arabera.

h) Dibisa aldatzeagatik komisioa.  
Dibisa aldatzen den eragiketetan,  
komisio bat kobratuko da, baldintza  
partikularretan adierazitakoarekin bat.  
Baldintza partikularretan adieraziko da  
komisio hori, tarifa-liburuaren arabera.

## 11. ORDAINTEKO ERA

Titularrak Txartela erabiltzearen ondorioz —ondasunak edo zerbitzuak ordainduz nahiz eskudirua ateraz— sortzen diren ordainketa-obligazioak eta, kontratu honen babesean, Triodos Banken alde sor daitezkeen komisio eta interesak hartarako adierazitako Kontuan edo kontuetan zordunduko dira, eta, horretarako, funtsen horniketa nahikoa egin behar da.

Txartelarekin egin daitezkeen eragiketen zenbatekoak ez du izan behar Txartelera loturiko eta Bezeroak izendaturiko Triodos Kontu Korrontean eskura dauden funtsen guztizkoa baino handiagoa. Zenbateko hori gainditzen duen edozein diru-ateratzek ahalmena ematen dio Triodos Banki zenbateko hori berehala zorduntzeko.

Egindako eragiketak Txartelaren euskarri diren kontuetan zorduntzen dira, haiek jasotzen direnean, eta eragiketa egin deneko data dute.

Kutzazain automatikoetatik eskudirua ateratzeko, baimenduta dauden Titularrak edo Titularrek ez dute gainditu behar eguneroko eskudirutan ateratzeko ezarritako gehienezko muga. Baldintza ekonomiko partikularretan zehazten da muga hori.

## 12. TXARTELA ATZERRIAN ERABILTzea

Txartelaren titulartasunak eta edukitzak ahalmena ematen du Espainiako estatutik kanpo erabiltzeko. Dena den, kasu horietan, Txartela erabiltzen den estatuko ordenamendu juridikoa aplikatuko da. Halaber, truke-kontrolari buruz aplikatzekoak diren arauak eta Txartelaren kudeaketa-sistemak transakzioa baimentzen duen eguneko kanbio-tasak aplikatuko dira. Bankuak eragiketa-mota

horietarako ezarritako komisioak gaineratuko zaizkio trukeari.

## 13. BANKUAREN GALDAGARRITASUNA

Kontratu honek xede duen Txartela nahiz hura oinarri hartuta jaulkitzen diren txartel gehigarriak jaulki eta erabiltzearekin loturiko edozein kontzeptu dela-eta Titularrak zor dituen kopuruak ordaindu behar egin dizkio Bankuari.

Titularrak obligazio hori betetzen ez badu, Bankuak berehala galdagarritzat jo ahal izango ditu, kontratu honetan hitzarturikoarekin bat, Txartelaren guztizko saldoa eta Titularrak zor dituen kopuru guztiak.

Kontratugileek berariaz adosten dute erreklamaturiko kopuruaren froga nahikoa izango dela Bankuak, dagokion likidazioa egin ondoren, jaulkitzen duen ziurtagiria, saldoa adieraztekoa. Modu horretan zehazturiko saldo zorduna kopuru likido eta galdagarritzat joko da ordainketa-ondorioetarako. Zordunak ezingo du, inolaz ere, ziurtagiri horren edukiaren kontra egin edo hura baztertu, eta erabateko eraginkortasun juridikoa aitortzen dio, aurrez.

Zorraren erreklamazio judiziala egiteko, nahikoa izango dira aurreko paragrafoan deskribatzen den ziurtagiria eta kontratuaren ale bat.

## 14. BERANDUTZE-INTERESAK

Txartela erabiltzearen ondorioz Bankuari zor zaizkion kopuruaren kasuan —finkaturiko epean ordaintzen ez diren gastu eta komisioak barne—, Triodos Banken iragarki-taulan ezartzen den eta haren

webgunean argitaratzen den berandutze-interes nominala aplikatuko du Bankuak. Horrek guztiak ez du galarazten Bankuak kontratua suntsiarazteko duen eskubidea.

## 15. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTBA)

Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularraren jasotako formulari jarraituz kalkulatu da urteko tasa baliokidea (zirkularra BOEn argitaratu zen: 161. zenbakia, 2012ko uztailaren 6koa, 48902. orrialdea).

## 16. BALDINTZA HAUEN ALDAKETAK

Titularrak eta Triodos Bankekin berariaz adosten dute Triodos Bankekin kontratu honetako edozein baldintza —interes, komisio, kuota edo gastuei buruzkoak barne— aldatzeko duen eskubidea, betiere, proposaturiko aldaketa indarrean sartzen den eguna baino bi (2) hilabete lehenago —gutxienez— Titularrari banakako jakinarazpen bidez jakinarazten badio. Aldaketak indarrean sartu aurretik Titularrak ez badu adierazten aldaketa berriak ez dituela onartzen, ulertuko da aldaketa horiek onartu egiten dituela. Azken kasu horretan, Titularrak kontratua desegitea erabaki dezake, aurrez, Txartelak (nagusiak eta gehigarriak edo onuradunenak) itzuli eta Bankuari ordaintzeko duen saldo zorduna ordaindu ondoren. Kontratua suntsiaraztea erabakiz gero, zorra erabat ordaindu arte sortzen diren komisio eta interesak aldaketaren aurretik zeuden tasa eta zenbatekoen arabera likidatuko dira.

## 17. KONPENTSAZIOA

Hainbat posizio elkartzen direnean —izaera desberdinekoak izan daitezke, baina titulartasun berekoak—, saldo hartzekodunek zordunak bermatuko dituzte, eta bi alderdiek ahalmena izango dute saldo zorduna beste kontuetako saldo hartzekodunekin erregularizatzeko edo amortizatzeko. Saldo zorduna erabat ezereztea ezinezkoa bada, lehenik eta behin, gastuak eta komisioak konpentsatuko dira, bigarrenik, interesak, eta, azkenik, kapitala. Zor-mota horietako bakoitza idazpen zaharrenetatik hasiko da.

## 18. KONTRATUA DESEGITEA

Bi alderdiek Kontratu hau aldebakarrez suntsiarazteko ahalmena dute, desegiteak ondorioak sortzen dituen eguna baino bi (2) hilabete lehenago egindako jakinarazpen idatzi bidez. Kasu horretan, ordaintzeke dituen zor, komisio, gastu edo interesak ordaindu beharko ditu titularrak. Hala eta guztiz ere, Triodos Bankekin berehala desegin ahal izango du Kontratu hau, Titularrari jakinarazpenetarako adierazitako helbidera komunikazio soil bat bidaliz, desegite-arrazoi berezi hauek betetzen direnean:

- a) Titularrak edo edozein onuradunek kontratu hau dela-eta dituzten obligazioetatik edozein ez betetzea.
- b) Titularra hiltzea, baldin eta titularraren ondasun guztiak edo haien zati bat bahitzen bada edo haien balioa asko galtzen bada.
- c) Triodos Bankekin Txartela ematean titularrak egindako adierazpenak edo emandako datuak faltsuak edo zehaztugabeak izatea.
- d) Edozein arrazoi dela eta, titularrak beren negozioak etetea edo haiek



deuseztatu edo likidatzea erabakitzea.

e) Txartelaren titularra hartzekodunen konkurtsoan deklaratzeari.

## 19. ALDERDIEN ARTEKO JAKINARAZPENAK

Kontratu honen ondorioetarako, alderdien helbidetzat joko dira kontratazio-formularioan zehazturikoak. Helbide-aldaketak idatziz jakinarazi beharko dira.

## 20. DATU PERTSONALAK

Datu Pertsonalen Babesari buruzko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren 5. artikulua araberak, sinatzaileak edo sinatzaileek adierazten dute informatuta daudela eta berriaz onartzen dutela kontratu honetan adierazitako izaera pertsonaleko datuak —telefono mugikorrari eta helbide elektronikoari buruzkoak eta kontratutik eta alderdien arteko harremanetik ondorioztatutakoak barne— Triodos Banken ardurapeko fitxategietan sartzea, zeinak behar bezala inskribatuta baitaude Datuen Babeserako Espainiako Agentziaren Datuen Babeserako Erregistro Orokorrean, aurrerako deskribatzen diren helburuekin. Titularrak eta onuradunak —hala badagokie— aitortzen dute berriaz onartzen dituztela beren datu pertsonalen araubidea eta tratamendua, Titularrak Triodos Bankekin sinaturiko Triodos Kontratu Orokorrean ezarritakoarekin bat. Datu pertsonalei buruzko baldintza orokorrak Titularraren eskura daude Bankuaren webgunean nahiz Triodos Banken bulegoetan. Titularrak berriazko baimena ematen dio Triodos Banki bere kreditu-aurrekariari

buruzko informazioa eskatzeko, hartara, kreditu-eskaera aztertu ahal izateko eta, hala badagokie, kredituak etorkizunean izan ditzakeen aldaketak edo mugak kudeatu ahal izateko. Egoki irizitako edozein pertsona edo entitate publiko edo pribatu-ri eskatu ahal izango dio informazioa Triodos Bankek, eta, zehazki, Espainiako Bankuko Arriskuaren Informazio Zentralari eta ASNEF/Equifax, Experian, Badexcug, RAI informazio-zerbitzuei, edo, etorkizunean, horiek ordeztu ditzaketan antzeko entitateei. Titularrak berriazko baimena ematen du ondare-kaudimenari eta kreditu-arriskuaren kudeaketari buruzko fitxategi horietara zeinahi komunikazio, tratamendu edo datu-lagapen egiteko, eta berriaz informatuta dago, kontratuzko obligazioak bete ezean, Triodos Bankekin duen zorra aitortu ahal izango dela.

## 21. UTZIESPEN-ESKUBIDEA

Kontsumitzaileei zuzendutako finantza-zerbitzuak urrutitik merkaturatzeari buruzko 2007ko uztailaren 11ko 22/2007 Legean jasotzen diren ondorioetarako, legezko ondorioetarako kontsumitzaile gisa hartzen den pertsona fisikoa den Titularrak, bere eremu profesional edo enpresarialetik kanpo jardunez, Txartelaren aukera kontratatzen duenean, hamalau (14) egun naturaleko epea izango du Kontratu hau utziesteko, arrazoirik adierazi beharrik gabe. Kontratu hau sinatzen den egunean hasiko da utziesteko epe hori.

Titularrak utziespen-eskubidea gauzatzeko badu, betebeharrak hauek ditu:

a) Bankuari jakinarazi behar dio, jaso izanaren adierazpena duen gutun ziurtatu bidez. Epea bete dela joko da, eta, beraz, utziespenak eragina izango du, baldin eta aipatutako epea

amaitu aurretik —hamalau (14) egun natural— bidaltzen bada jakinarazpena.

b) Egindako funtsen erabilera ordaindu behar dio Bankuari, bidegabeko atzerapenik gabe, eta, gehienez ere, Bankuari utziespen-jakinarazpena bidali eta hogeita hamar (30) egunera.

onuradunek —atxikitako alderdi gisa— berariaz ulertzen eta onartzen dituztela adierazten dute, baldin eta Bankuak, hartaratzaille gisa, klausula horiei buruzko informazioa berariaz eta aurrez ematen badie.

## 22. GASTUAK

Bankuak Titularrari jasanarazi ahal izango dizkio kontratu honen ondorioz sorturiko posta, SMS, telefono, telex, telefax eta antzekoen gastuak.

## 23. JURISDIKZIOA ETA ESKUMENA

Alderdiak Madrilgo epaitegi eta auzitegien agindupean jartzen dira, kontratu honen interpretazioa, aplikazioa, betetzea eta gauzatzea direla-eta alderdien artean sor daitezkeen arazo eta eztabaida orotan, baita haiek martxan jartzen dituzten akzio eta erreklamazioetan ere, salbu, aplikatzea den legeriaren arabera, beste auzitegi edo epaitegi batzuk badagozkie.

## 24. KONTRATAZIORAKO BALDINTZA OROKORRAK

Alderdiak bat datoz kontratu honetan jasotzen diren aurretiko klausulak —baldintza ekonomiko partikulartzat jotakoak izan ezik— kontratazioaren baldintza orokor gisa hartu behar direla, kontratazioaren baldintza orokorrei buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legean adierazten diren ondorioetarako. Klausula horiek kontratuaren barrukotzat jartzen dira, eta titularrek eta, hala badagokie,

# // K eranskina

## Tarjeta Crédito Triodos

### 1. ARAUTZEA.

Onartuz gero, eskaera honek kontratu izaera izango du, eta txartela kontratu honetan ezarritako baldintza partikular eta orokorrek arautuko dute, bai eta indarrean den Triodos Kontratu Orokorretik aplikagarri denak ere. Txartelaren jaulkitzailea Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsala da (aurrerantzean, «Triodos Bank» edo «bankua»); W0032597G identifikazio fiskaleko kodea du; sozietate helbide hau du: C/ José Echegaray, 5, Parque Empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas, Madrid; Madrilgo Merkataritza Erregistroan inskribatuta dago: 19.798 liburukia, 0 liburua, 180. folioa, 8. atala, M-348646 orria, 1. inskripzioa; Espainiako Bankuaren ardurapean dagoen Administrazio Erregistro Berezian inskribatuta dago, 1491 zenbakiarekin. Triodos Bank banketxea Triodos Bank NV sozietate anonimoaren Espainiako sukurtsala da. Sozietate anonimo hori herbeheretar nazionalitatekoa da (sozietate egoitza: Nieuweoordweg 1, P.P. Box 55, 3700 AB Zeist, Herbehereak), baimenduta eta erregistratuta dago Herbehereetako Banku Zentralean, eta erregistratuta dago Utrecht hiriko Merkataritza Ganberan, 30062415 zenbakiarekin. Triodos Banken jarduna Espainiako Bankuak (C/ Alcalá, 48, 28014 Madrid) gainbegiratzen du —likidezia, gardentasun eta interes orokorreko gaietan—, bai eta Baloreen

Merkatuko Espainiako Batzordeak ([www.cnmv.es](http://www.cnmv.es)) eta Herbehereetako Banku Zentralak ere.

Bankuak, txartelak jaulkitzean, estatuko edo nazioarteko ordainketa sistemetako kide den edo haiei atxikita dagoen erakundetzat jaulkitzen ditu, eta Estatuko nahiz nazioarteko ordainketa sistema edo erakunde horien arauen pean dago. Horrenbestez, txartelen erabilera ordainketa sistema horiek unean-unean ezarrita dutenaren pean dago.

Titularra pertsona juridikoa baldin bada edo, bestela, bere eremu partikularretik at edo bere merkataritza, enpresa nahiz lanbide jardueraren barnean diharduen pertsona fisikoa bada, alderdiek hitzartu dute, Ordainketa Zerbitzuen Legeko (16/2009 Legea, 2009ko azaroaren 13koa) 17. eta 23. artikuluetan jasotako aukerako araubideari jarraituz, kontratu honi ez zaizkiola aplikagarri lege horretako III. titulua eta 24.1, 25.1 (lehen paragrafoko azken tartekia), 30, 32, 33, 34, 37 eta 45. artikulua, eta horiek aldatu edo garatzen dituzten erregelamenduak. Hitzartu dute, orobat, ez direla aplikagarri 2011ko urriaren 28ko EHA/2899/2011 Agindua (gardentasunari eta banku zerbitzuen erabiltzailea babesteari buruzkoa), III. tituluko II. kapituluan ezarritakoa izan ezik, eta hura garatzen duen Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kre-

ditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa), hamahirugarren arautik hamabosgarrenaraino ezarritakoa izan ezik. Ordainketa zerbitzuei aplikagarri zaizkien baldintza gardentasunari eta informazio betekizunei buruzko 2010eko ekainaren 14ko EHA/1608/2010 aginduan ezarritakoari jarraituz, alderdiek hitzartu dute ez dela aplikagarri izango agindu hori, ez eta aurrez aipatutako arau horiek garatzeko beste edozein arau ere.

## 2. JAULKIPENA ETA TITULARTASUNA.

Txartela bankuaren jabetzakoa da, eta izaera pertsonak eta besterenezinarekin jaulkiko da pertsona fisiko titular baten izenean. Titular horren izenak agertu beharko du erregistratuta haren titulartasuneko txartelean (aurrerantzean, «txartela») bertan.

Titularrak, era berean, Triodos kontu korrante elkartu baten («kontu elkartua») titular izan beharko du, eta kontu horretan egingo dira kontratu honetatik eratorritako zorduntzeak. Bankuak bere esku gordetzen du txarteln honen jaulkipena —eta, hala egokituz gero, berritzea— onartzeko beharrezko betekizun eta bermeak ezartzeko eskubidea.

Bankuari aurrez eskatuta eta bankuak adostasuna emanda, titularrak berak izendatutako beste pertsona baten edo batzuen (onuradunak) izenean txartel gehigarriak jaulkitzea lortu ahalko du. Kontratu honetako baldintzek arautuko dituzte txartel gehigarri horiek. Titularrak bere gain hartzen du onuradunek txartel gehigarriak egoki erabiltzearen ardura.

Txartel gehigarriek titularraren txartelaren kontu elkartu bera izango dute. Beraz, titularrak berariaz onartzen ditu txartel gehigarriekin egiten diren eskudiruz ateratzeengatik eta transakzioengatik bankuak kontu elkartuan egiten dituen zorduntzeak. Txartela eta txartel gehigarriak (elkarrekin, «txartelak») titularraren eta —halakorik bada— onuradunen eskura jarriko dira, eskura emanez edo postaz bidaliz, bai hasierako jaulkipean, bai ondorengo berritzeetan.

## 3. KONTRATUAREN IRAUPENA ETA TXARTELEN IRAUNGIPENA.

Kontratu honek iraupen mugagabea du. Hala ere, txartelak balioaldi mugatua izango dute, txartelean inprimatuta ager den hilabeteko azken eguneraino. Alderdietako edozeinek kontratua suntsiarazi ahalko du edonoiz, beste alderdiari jakinarazita, kontratu honetako 21. klausulan adierazitakoari jarraituz. Suntsiarazpena gauzatzen den eguna baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago jakinarazi beharko dio, bankuak suntsiarazten badu; eta hilabete bat (1) lehenago, titularrak eskatuta suntsiarazten bada. Titularrak eta onuradunek, suntsiarazpena eraginkor bihurtzen den egunean, txartelak bankuari itzuli beharko dizkiote edo birrindu beharko dituzte. Egun hori baino geroago itzultzen edo birrintzen badira, haien kargura egingo dira, itzuli edo birrindu arte, txartel horiekin egiten diren transakzioak. kontratua bukatzean, bezeroak egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzuli beharko du, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera. Titularrak betebeharrak horiek betetakoan, kontratua iraungita geratuko da.

Txartelaren titularrak kontu elkartua itxi nahi badu, aldi berean txartelak itzuli beharko ditu, eta bankuari itzuli beharko dizkio ordaintzeke dagoen zorraren zenbatekoa (halakorik baldin bada) eta eginda edo ordaintzeke dauden gastuak. Txartelak eta dirua itzulitakoan, kontratua iraungita geratuko da, eta kontu elkartua itxi ahalko da.

## 4. ERAGIKETAK.

Bankuaren txartelekin ordainketa zerbitzu hauek egin ahalko dira: txartela onartzen den estatuko edo nazioarteko establezimenduetan ondasunak edo zerbitzuak erostea; dirua ateratzea, bankuak horretarako akordioak dituen kreditu erakundeen kutxazain automatikoen bidez; eta titularraren eta onuradunen eskura jarrita dauden edo jartzen diren beste zerbitzu batzuk gozatzea.

Txartelen eragiketa guztiak kontabilitateko kontu batean (txartelaren kontua) erregistratuko dira. Hor erregistratuko da eragiketa bakoitzaren zenbatekoa, amortizatzen den arte.

## 5. IDENTIFIKAZIO ZENBAKI PERTSONALA.

Kutxazain automatikoetan erabilgarri dauden eragiketetako edozein egiteko, bankuak titularrari eta onuradunei identifikazio zenbaki pertsonal bat (PIN) jakinaraziko die, txarteletako bakoitzetarako. PINa pertsonala eta besterenezina da (ezin zaie hirugarrenei jakinarazi), eta titularrak nahiz onuradunek aldatu ahalko dute, bankuak ezarritako sistemari jarraituz.

## 6. TITULARRAREN BETEBEHARRAK.

Titularrak betebeharrak hauek ditu:

a) Kontratu honen babesean egindako txarteletako edozeinekin egindako eragiketa guztiak onartzea.

b) Eragiketen eta haien zenbatekoaren frogagiritzat onartzea txarteletako edozeinek erregistratutakoa, bankuaren erregistro informatikoetan eta txartelekin eragiketak egiteko gaitutako edozein gailuk jaulkitako egiaztagirietan ageri dena, baldin eragiketak txartelaren titularrak berak, txartel gehigarrien titular diren onuradunek edo aurreko horietakoren baten baimena duten hirugarrenek egin badituzte.

c) Bankuari jakinaraztea titularrak edo txartelen onuradunek baimendu gabeko edozein transakzioen zorduntzea, bai eta txartelen funtzionamenduan atzemandako edozein akats edo irregulartasun, bankuak behar bezala zuzen dezan. Horretarako, titularrak berandutze desegokirik gabe egin beharko du jakinarazpen hori, baimendu gabeko zorduntzearen edo behar ez bezala egindako eragiketaren berri dakien bezain laster, eta betiere zorduntze edo eragiketa horren egunetik hamahiru (13) hilabete igaro baino lehen jakinarazi beharko du, baldin bankuak haren eskura jarri badu horretarako informazioa.

c) Txartelaren segurtasuna bermatzeko (txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea saihestea) eta hura erabiltzeko prozeduraren segurtasuna bermatzeko (bereziki, PINa isilpean

gordetzea eta txartela sinatzea) beharrezko arretaz jokatzea.

d) Txartelaren galera, lapurreta edo faltsutzea eta PINa norberaren borondatearen kontra beste inork jakitea, berandutze desegokirik gabe jakinaraztea, horren berri izan bezain laster. Jakinarazpen hori bankuaren edozein bulegotan egingo da, edo txartelean horretarako xerri den 902 171 272 telefonora deituta. Abisu hori, gero, urgentziaz baieztatu beharko da posta ziurtatuz edo bankuaren edozein bulegotara etorrita horretarako dokumentua sinatuz.

e) Bankuaren txartela itzultzea edo birrintzea, txartela iraungi denean edo ordeztu denean, eta txartela nahiz kontu elkartua blokeatuta edo ezeztatuta geratzen direnean, edozein dela ere kausa.

f) Oro har, ondasunak erosteko eta atxikitako establezimenduetan txartelak eskaintzen dituen zerbitzuak erabiltzeko, titularrak hau egin behar du: i) txartela aurkeztu, eta establezimenduak egindako faktura sinatu edo PIN zenbakia tekleatu (egindako eragiketarekin guztiz ados egotea dakar horrek); eta ii) dagokion eragiketa gauzatzearren txartela aurkeztean bere nortasuna egiaztatu. Triodos Bankek contactless teknologiazko txartelik jaulkiz gero, alderdiek onartzen dute haien titularraren sinadura autografoaren berdina izango dela, juridikoki, titularrak txartela hurbiltzea kutzazain automatikoetara, saltokiko terminaletara edo beste kobrantza tresna batzuetara, transakzioa egin dadin. Banca Telefónica edo Banca Internet zerbitzuen bidez egindako eragiketen kasuan, titularrak jarraitu egin beharko

die bankuak unean-unean titularraren esku jartzen dituen segurtasun, identifikazio eta autentifikazio prozedurei.

g) Ordaintzeko betebeharra. Titularra obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzepturengatik zor dizkion kopuruak, txartelak jaulki eta erabiltzetik eratorriak, kontratu honen pean ezarritakoari jarraikiz. Halaber, titularrak txartelari dagokionez dituen betebeharren artean, aurreko d) ataletik g) ataleraino (biak barne) bitartean aipatutakoak onuradunei ere aplikagarri izango zaizkie (onuradunik baldin bada), txartel gehigarriei dagokienez.

Hala ere, Triodos Bankek eskatu ahalko ditu titularraren sinadura autografoa, txartelaren gako sekretua (PINa) sartzea, edota hitzartutako beste edozein identifikazio sistema, une bakoitzean eta herrialde bakoitzean contactless teknologiazko txartelak erabiltzeari buruz indarrean diren baldintza espezifikoei jarraituz. Eta, betiere, segurtasun arrazoiengatik, txartela erabiltzen ari den titularra identifikatzeko aurreko bitarteko horietako edozein exijitu ahalko du bankuak. Era berean, txartelaren titularrak onartzen ditu contactless teknologiazko txartelen bidez egindako eragiketa guztiak, bankuak txartelaren titularra identifikatzeko bitartekorik eskatu gabe egin direnak.

h) Uneoro bankuan aski diru izatea, kontratu honetatik eratorritako ordainketa erantzukizunak estaltzeko. Bankuak beretzat gordetzen du txartelaren kontratazioa, haren ondoko ondoko berritzeak edo kontratuaren suntsiarazpena ondorengo hauek betetzearen baldintzapean jartzea: ezartzen diren betebeharren berme eskakizunak, bezeroak bankuan gor-

dailututako funtsak behar adina izaten irautea, edo emandako kreditua estaltzeko behar adinako bermeak izatea ahalbidetzeko bestelako eskakizunak.

i) Txartelaren mugimenduak kontsultatzea aldian-aldian, gutxienez hilean behin, eta zenbatekoaren edo ezaugarrien aldetik titullarrak —edo, halakorik bada, onuradunek— egin ohi dituzten eragiketekin bat ez datozen zorduntzeak ikusten diren aldiro.

j) Espainiako lurralde osoan aktibo dagoen telefono mugikorren zenbaki baten titular izatea, kontratu honen mantentze egokirako beharrezko zerbitzuak jasotzearen; bereziki, txartelarekin egindako eragiketei buruzko alertak eta txartelaren kudeaketari lotutako edozein komunikazio edo mezu. Titullarrak prestasunik handienaz eta lehenbailehen jakinaraziko dio bankuari zenbaki horri loturiko edozein gorabehera, baldin txartelaren erabilera egokia arriskuan jarri badezake.

## 7. ERANTZUKIZUNETATIK SALBUESTEAK

a) Titullarra salbuetsita dago edozein erantzukizunetatik, txartelen eta PINaren erabilera desegokia dela eta, seigarren baldintzari jarraituz txartelen galera, lapurreta edo faltsutzea jakinarazi duen unetik, edo PIN hori beste inork badakiela jakinarazten duenetik, baldin titullarrari dolua edo errua egotz ez badakioke.

b) Bankua —egoki deritzen neurriak hartzeaz gainera— erantzukizunetik salbuetsita geratzen da, baldin ondusunak saltzera edo zerbitzuak egitera hitzartutako saltoki, banku edo kutxetakoren batek txarteletako edozeini

arreta jartzen ez badio, edo baldin konektatuta dagoen baina bere sarekoak ez diren kutxazain automatikoetan gorabehera teknikoak edo operatiboak izanez gero, salbu eta bankuaren dokua edo erru larria izan bada.

c) Bankua, orobat, at geratuko da establezimenduaren eta txartelaren titullarraren edo (halakorik bada) txartel gehigarrien onuradunen artean egindako eragiketarik eratorritako gorabehera eta erantzukizunetatik.

d) Titullarra txartelak egoki erabili eta kontserbatzearen arduraduna da. Aurrekoaz gainera, titullarrek edo onuradunek duten erantzukizuna, txartelaren galera edo lapurreta gertatuz gero hirugarrenek txartela iruzurrez erabili badute, mugatuta geratuko da berrogeita hamar (50) eurora, salbu eta titullarren edo onuradunen dolua, errua edo zabarkeria baldin badago tartean.

e) Bankua ez da erantzule izango baldin bere arrazoizko kontroletik kanpoko inguruabar salbuespeneko eta ezin aurreikusizkoak izanez gero, baldin haien ondorioak saihetsezinak izango balira kontrako ahalegin guztiak eginda ere.

Banca Telefónica zerbitzuaren bidez egindako eragiketen frogabidetzat, titullarrak eta —halakorik izanez gero— onuradunak edo onuradunek baimena ematen diote bankuari, telefono elkarrizketa eta komunikazio elektronikoko guztien erregistroa mantentzean eta horren euskarri magnetikoa gorde dezan.

Hala ere, Triodos Bankek eskatu ahalko ditu titullarraren sinadura autografoa, txartelaren gako sekretua (PINa) sartzeari, edota hitzartutako beste edozein identifikazio sistema, une bakoitzean eta herrialde bakoitzean contactless teknologjako

txartelak erabiltzeari buruz indarrean diren baldintza espezifikoei jarraituz. Eta, betiere, segurtasun arrazoietatik, txartela erabiltzen ari den titularrak identifikatzeko aurreko bitarteko horietako edozein exijitu ahal du bankuak. Era berean, txartelaren titularrak onartzen ditu contactless teknologiako txartelen bidez egindako eragiketa guztiak, bankuak txartelaren titularrak identifikatzeko bitartekorik eskatu gabe egin direnak.

## 8. TXARTELAREN MUGAK

Kontratu honen babesean kontratatutako txarteletako bakoitzak diru erabilerako eragiketa muga batzuk ditu adierazita. Muga horien zenbatekoak ez dira gainditu behar. Muga horiek baldintza partikularretako «Diru erabileraren muga» atalean adierazita daude.

Kreditu muga hori alda dezake bankuak, aurrez titularraren kaudimen baldintzak ebaluatuta, eta kontratu honetan ezarritakoarekin bat etorrita. Lehenago, titularrari jakinarazi beharko dio, 17. baldintzan ezarritako prozedurari jarraituz. Titularrak eskatutako kreditu muga hasieran emandakoa baino handiagoa denetan, erantzukizunen handitzea estaltzeko behar den berme handitzea eskatu ahal du bankuak.

Egindako eragiketengatik kontuan dagoen zorra titularrak amortizatzen duen neurrian, saldo erabilgarria berrezarriko da.

Titularrak bankuari baimena ematen dio, egindako transakzioetatik eratorritako ordainketei erantzun diezaien, baita emandako kreditu muga gainditzen bada ere. Kreditu mugatik gainditurik edo kreditu muga horren barruan zor den kopururik baldin bada eta behar zen ordainketa egu-

nean pagatu ez badira, ez da ordainketa geroratuaren aukerarik izango kreditu muga gainditzen duen edo behar zen egunean ordaindu gabe dagoen zenbatekoari dagokionez, salbu eta alderdien arteko akordiorik baldin bada. Zenbateko hori bankuak galdutako du gaindituaren berri duen unetik, eta osorik ordaindu beharko da hurrengo ordainketa egunean.

Halakoetan, baldintza partikularretan ezarritako komisioa aplikatuko zaio titularrari (txartelean gainditutakoagatik edo ordainagiri ordaindugabeagatik). Komisio hori kontuan zordunduko da kreditu mugatik gainditutakoan edo ordainagiria ez ordaindutakoan, eta zorra ordaintzea lortzearen bankuak titularrarekin kudeaketa pertsonalizatuak egin eta gero.

Kutxazain automatikoetatik eskudirua ateratzeko, titularrak edo onuradunek ezin gaintutako dute eguneko muga eraginkortzat ezarritako gehieneko zenbatekoa. Zenbateko hori zein den baldintza partikularretan ezartzen da.

## 9. DIRU ITZULKETA.

Unean-unean erabili den saldotzat definitzen da. Hauen arteko batura barne hartzen du: (i) itzultzeke dauden eragiketak, gehi (ii) ordaintzeke dauden komisio eta interesak.

Titularrak saldo erabiltzat bankuari zor dizkion kopuruak, bankuak hilerok haren esku jartzen duen laburpenean islatuak, zorduntze egunean ordainduko dira, egindako eragiketak likidatzeko unean bankuak aukeran jarritako ordainketa sistemen arteko titularrak edo haren onuradunek aukeratutako sistemari jarraituz. Ondorengo sistema hauetako bat izango da:

- a) Eskudirutan ordaintzeko sistema.



Horren bitartez, titularrak zenbateko osoa ordaintzen du hitzartutako zorduntze datan.

b) Geroratuta ordaintzeko sistema. Horren bitartez, titularrak zorraren ordainketa osoa edo zati bat geroratzen du, eta aldian-aldian amortizatzen du, ondorengo hauen artean aukeratu duen modalitateari jarraituz, eta kontratu honetako baldintza partikularretan finkatutako hileroko gutxieneko eta gehieneko zenbatekoekin:

(i) dela erabilitako saldoaren ehuneko jakin bat ordaintzea (geroratu ehuneko). Bankuak hileroko zorpetze bat egingo du. Zorpetze horretan sartuta daude, erabilitako saldoari hitzartutako ehuneko aplikatuzetik ateratzen den zenbatekoarekin batera, hilean sortutako interes eta komisioak.

(ii) dela hileko zenbateko finkotzat (geroratu finkoa). Hilero kontu elkartuan zorpetuko da hitzartutako zenbateko finkoa. Zenbateko horretan sartuta egongo dira hil horretan sortutako interes eta komisioak.

(iii) bankuak establezimenduekin hitzartzen duen erosketa sistema pertsonalizatua erabiliz. Horren bitartez, titularrak erosketa eragiketa bakoitzerako aukeratu ahalko du egin nahi duen ordainketaren geroratzeari.

Ordainketa geroratuaren zerbitzua erabiltzeak geroratzeari interesak sortuko ditu bankuaren alde, baldintza partikularretan hitzartutako tasa nominallean. Kopuru geroratuaren interesak hilaren amaieran likidatzen dira, eta formula honekin kalkulatu dira:  $\text{Interesak} = \text{cd} \times n \times i / 3000$ , non «cd» kopurua geroratu zaien eragiketetan ordaintzeke dagoen saldoa baita; «n» 31

baita; eta «i» aplikatu beharreko hileko interes tasa baita, bateko hainbatean.

Ordaintzeke dagoen zorra —bankuak eskura jarritako laburpenean hileroko islatua— ordaintzeko bere betebeharrak bete dezan, titularrak diru kopuru egokia izan beharko du kontuan, zenbatekoa zorpetzearen laburpenean adierazitako muga eguna baino lehen.

Bankuak titularrari eman ahalko dizkio erabilitako kreditua ordaintzeko geroratzeari, une jakin batzuetan eta aldi zehaztuetarako. Gainera, kopuru horiek interesak sortuko dituzte, hitzartutako tasari, ordainketa geroratzeari irauten duen aldian; bai eta baldintza partikularretan ordainketa geroratzeari ezarritako komisioa ere. Aipatu geroratzeari ondorengo baldintza hauek aplikatuz finkatuko dira:

a) Interesaren likidazioa kontratu honetan ezarritakoari jarraituz egingo da, eta haren ordainketa hitzartuari jarraituz dagoen lehen hilean gauzatuko da; edo, bestela, emandako ordainketa geroratzeari aldia bukatutakoan.

b) Titularrak egunean izan beharko ditu kontratu honen arabera dagozkion ordainketak, likidazioak egiteko unean.

c) Geroratzeari aldiaren amortizatu beharreko saldo erabiliaren zenbatekoa amortizatu gabekotzat mantentzen da, eta, beraz, kontuan hartuko da hurrengo likidazioan.

Gainera, titularrak zor duen zenbatekoa edonoiz aurrez itzuli ahalko du, osorik edo zati batean. Halakoetan, eskubidea izango du kredituaren kostu osoa murriztea, oraindik igaro ez den kontratualdiari dagozkion interesak eta kostuak barne hartuta, baita horiek dagoeneko ordaindu

badira ere. Amortizazio aurreratu hori egiteko, titularrak bere asmoa jakinarazi behar dio banketxeari, 21. klausulan adierazitako bitartekoak erabiliz, bankuak jakinaraz diezaion dirua itzultzeko jarraitu beharreko urratsak. Aldez aurreko diru itzulketa eginda, eta kredituaren bizialdi osoan, titularrak eskubidea du dohainik eskatzea kontu laburpen bat, amortizazio koadroaren erakoa.

## 10. URTEKO TASA BALIOKIDEA (UTB).

Titularra kontsumitzaile bat den kreditu txartelen kasuan, urteko tasa baliokidea kalkulatzeko erabili da Kontsumorako Kredituko Kontratuen Legeko (16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa; BOE, 151. zenbakia) I. eranskineko 32. artikuluan jasotako formula; eta Espainiako Bankuaren 2012ko ekainaren 27ko 5/2012 Zirkularra (kreditu entitateei eta ordainketa zerbitzuen hornitzaileei igorria, banku zerbitzuen gardentasunari eta maileguak emateak dakarren erantzukizunari buruzkoa; BOE, 161. zenbakia). Kontuan hartuko dira eta aplikatuko dira unean-unean indarrean den araudiari geroztik egindako aldaketak. UTB kalkulatzeko, hipotesi hauek erabili dira: i) titularrak berehala erabili duela baldintza partikularretan ezarritako kreditu muga osoa; ii) kreditua hileko 12 kuota berdinetan itzuliko dela, erabili den datatik hasita, eta azken ordainketarekin kapitala, interesak eta komisioak kitatzen direla; iii) aldi osoan hitzartutako interes tasa mantentzen dela, bai eta baldintza partikularretan ezarritako gainerako baldintzak ere; iv) denboraren zenbaketa oinarria urtebete (365 egun) dela; v) eta kreditua indarrean mantentzen dela hitzartutako aldi, eta alderdiek betetzen dituztela kontratuan

ezarritako betebeharrak.

## 11. ATZERRIAN ERABILTZEA.

Txartelak atzerrian erabiltzetik eratorritako zenbatekoak zorduntzeko, transakzioaren jatorrizko herrialdeko dibisatik eurorako trukea aplikatuko da; hain zuzen, bankuak eragiketaren zenbatekoa ordaintzen duen egunari dagokion trukea.

Bankuak eragiketa mota horretarako ezarritako komisioak gehituko zaizkio truke tasari. Kontratu hau sinatzeko ekitaldian titularraren eskura dagoen Tarifen, Komisioen, Balioztatze Baldintzen eta Gastu Jasanarazgarrien Liburuan adierazitako moduan aplikatuko dira komisio horiek. Titularrak eta —halakorik bada— onuradunak edo onuradunek, betiere, indarrean den araudia bete behar dute, atzerrian egindako gastuei buruz diru agintaritzek finkatutako mugei dagokienez; bai eta trukeen kontrolari buruz indarrean den araubidea ere. Bankuak ez du erantzukizunik izango arlo horietan izan daitekeen edozein ez-betetzerean gainean. Titularrak edo onuradunek atzerrira edo atzerrian egindako gastuak edo ordainketak justifikatu behar dizkiete hala eskatzen dieten agintariei, eta bankuak ez du horren gainera betebeharririk izango.

Titularrak onartzen du eragiketa gauzatzen den data eta dagokion oharpenean jasotzen den data bat bera ez izatea batzuetan, txartelaren sistema eragilearen funtzionamenduaren beraren ondorioz.

## 12. LABURPENAK BIDALTZEA.

Bankuak txartelaren titularraren eta onuradunen eskura jarriko ditu aurreko informazioa itxi zenetik egindako eragike-

ten laburpena eta ordaintzeke dagoen saldoa, titularrari euskarri iraunkorrean biltzeko eta mantentzeko aukera ematen dioten bitarteko edota formatu elektronikoen bidez, eta, une horretatik aurrera, laburpenean adierazten den kopuruaren zordunketa edonoiegina ahal izango du, titularrarekin adostutako ordainketa moduari jarraituz.

Informazio horiek bidaltzen diren egunetik hogeita hamar (30) egun naturaleko epean ez bada titularraren erreklamazio idatzirik jasotzen laburpenaren edukia buruz, adierazitako laburpenarekin ados daudela ulertuko da. Aitzitik, titularrak edota onuradunek erreklamazio bat egiten badute, eta akats bat egon dela egiaztatzen bada, idazpen okerrak zuzendu egingo dira, eta zordunketa egin den balorazio data jarriko zaie.

### **13. TXARTELEN SALDOAREN GALDAGARRITASUNA.**

Titularra obligatua da bankuari ordaintzera edozein kontzepturengatik zor dizkion kopuru guztiak, txartelaren eta txartel gehigarrien jaulkitzeari, diru-ateratzei eta erabiltzeari dagokienez.

Eskudirutan itzultzeko sisteman zorraren zenbateko osoa ordaindu ezean, edo hileko hiru kuota —onoz ondokoak izan nahiz ez izan— ordaindu ezean, bankuak berehala galdagarritzat jo ahal izango ditu txartelaren saldo osoa eta titularrak zor dituen kopuru guztiak, kontratu hone-tan hitzarturikoarekin bat.

Kontratugileek berariaz adosten dute erreklamaturiko kopuruaren froga nahikoa izango dela bankuak, dagokion likidazioa egin ondoren, jaulkitzen duen ziurtagiria, saldoa adieraztekoa, txarte-

laren kontuan adierazten den moduan. Horrela zehazturiko saldo zorduna kopuru likido eta galdagarritzat joko da ordainketa ondorioetarako, eta erabateko eraginkortasun juridikoa aitortzen zaio, aurrez. Bankuak zorraren erreklamazio judiziala egiteko, nahikoa izango dira aurreko paragrafoan deskribatzen den ziurtagiria eta kontratuaren ale bat.

### **14. KONPENTSAZIOA.**

Bankuak kontratu honetatik ondorioztatutako obligazioak betetzea galdazakeenean, aukera hauek izango ditu: (i) bankuak titularraren izenean —haren izenean bakarrik edo hirugarrenekin solidarioki edo mankomunatuta— irekitako kontu korrante, aurrezki kontu edo bestelako gordailuetako saldoak erabili ahal izango ditu; (ii) kontratu honetatik eratorritako obligazioak edo titularrak bankuarekin dituen obligazioak ordaintzean jasotzen dituen kopuruak egotzi ahal izango ditu, nahiz eta, ordainketa egitean, bankuak gerora egiten duenaz desberdina den egozte egin; eta (iii), kontratu honetan aurreikusten diren printzipalaren, interesen, komisioen eta gastuen ordainketan berandutzerik izanez gero, bankuan titularraren izenean gordailututako balore edo ziurtagiriak onenean saldu ahal izango ditu. Hartarako, behar adina dokumentu sinatu ahalko ditu bankuak, eta lortutako zenbatekoa kontratu hau dela-eta sortutako zor guztiak osorik edo partzialki kitatzeari aplikatuko zaio, baldin eta, bankuak titularrari salmenta hori egiteko asmoa jakinarazi ondoren, ondorengo hiru (3) egun baliodunetan titularrak edo onuradunek ez badituzte osoki ordaintzen dagozkien betebeharrak guztiak, kontratu honekin bat.

Epe horretan, balio edo ziurtagiri horien gaineko atxikipen eskubidea izango du bankuak.

Titularrak Bankuarekin dituen posizio hartzekodunak —haien izaera edozein dela ere— posizio zordunak bermatzen ditu. Berme horren barruan biltzen dira, hala dagokionean, kontratuaren titular guztiak eta haien posizio guztiak, baita hirugarrenekin era mankomunatuan edo solidarioan izan ditzaketenak ere.

## 15. EZ ORDAINTZEAREN ONDORIOAK. BERANDUTZE INTERESAK.

Txartela erabiltzearen ondorioz bankuari zor zaizkion kopuruaren kasuan —finkaturiko epean ordaindu ez diren gastu eta komisioak barne—, kontratu honen baldintza partikularretan ezarritako berandutze interes nominala aplikatuko du bankuak, eta interes arrunten gisa likidatu ahal izango da. Gainera, bankuak kontratu hau suntsiarazteko eskubidea izango du.

Ordainagiri ordaindugaberik izanez gero, titularrari aplikatuko zaio baldintza partikularretan ezarritako ordainagiri ordaindugabearen komisioa. Komisio hori aplikatu baino lehen, zorra ordaintzea lortzeko errekerimenduak eta kudeaketa pertsonalizatuak egingo zaizkio titularrari. Era berean, titularrak ordainketa betebeharrak betetzen ez baditu, haren datuak ondare kaudimeneko eta kredituko fitxategiei jakinarazi ahalko zaizkie, baldintza orokor hauetako «Datu pertsonalak babestea» atalean eta indarrean den araudian ezarritakoari jarraituz.

## 16. KOMISIOAK ETA GASTUAK.

Kontratu honetako baldintza partikularretan ageri diren komisio eta gastuak aplikatuko dira, ondorengo baldintza hauei eta bankuaren Tarifa eta Komisioen Liburuan ezarritakoei jarraikiz:

a) Jaulkitze edota mantentzearen komisioa. Txartela irekitzearen egunean eta ondoz ondoko urteurrenetan kobratuko da.

b) Eskudirua ateratzearen komisioa. Ateratako eskudiru zenbatekoarekin batera edo egindako hurrengo likidazioan zordunduko da komisioa.

c) Txartelean gainditzearen komisioa. Gainditutako kopuruaren gainean kobratuko da.

d) Kexagatiko batzordea edo gainditutako posizio zorduneko kobratze kudeaketa: galdagarria gertatzen den Txarteleko Titularrak zor izandako kantitatearen gainean hasten den kobratzeko kudeaketa bakoitzeko, eta posizio zordun berri bakoitzaren gainean, baldin eta halako kexa edo kobratze-kudeaketa egiten bada, jasoko da behin kobratzeko kudeaketa-gastuetako kontzeptuan Baldintza Partikularretan behar izandako kopuruko batzordeko.

e) Txartelaren kopia egitearen komisioa. Kopia eskatzen den egunean kobratuko da.

f) Dibisa trukearen komisioa. Dagokion kitapena egiten den datan ordainketa sistemek lortu duten trukearen arabera dibisetan egindako transakzioen euroen kontrabaliotik ateratzen den zenbatekoaren gainean kobratuko da.

g) Ordainketa geroratua duten txar-teletan aurrez amortizatzearen kont-pentsazioa. Komisio hori kobratuko da, baldin bezeroak alde zuzenetik kitatzea erabakitzen bada, ordaintze-ke dauden kuoten zenbatekoa muga egunaren aurretik ordainduta.

h) Ordainketaren geroratzea kudeatzearen komisioa. Hilaren bukaerako ordainketa osoa duen txartela duten bezeroei aplikatzen zaie, baldin beren txartelean ordaintzeke dagoen saldoaren edo eragiketa zehatzen ordainketa zenbait hilabetetara gero-razteko aukera hartzearen bankuak egiten dizkien unean uneko eskaintza onartzen badituzte.

Bankuak titularrari jasanarazi ahalko dizkio kontratu honen ondorioz sortzen diren hainbat gastu (posta, telefonoa, SMS mezuak, telexa, telefaxa edo antzekoak), Tarifen Liburuan banakatuta ageri diren zenbatekoekin bat etorrita.

## 17. BALDINTZAK ALDATZEA.

Kontratuak iraunaldi mugagabea duenez, bankuak aldatu ahal izango ditu interes nominalako tasak, likidazio epeak, jasanaraz daitezkeen komisio eta gastuak, kreditu muga, eta oro har kontratuko baldintzak. Aldaketak titularrari modu indibidualizatuan jakinaraziko zaizkio, paperean edo beste euskarri iraunkor batean, aldaketak aplikatu baino gutxienez bi (2) hilabete lehenago. Aldaketek titularrari onurarik badakarkio, berehala aplikatu ahalko dira. Hala ere, titularrari zuzentzen zaion lehen komunikazioan jakinaraziko da aldaketa. Titularrak baldintzak onartzen dituela joko da, nolaz eta aurkakoa jakinarazten ez dion bankuari, aldaketak indarrean sartzeko proposatutako data baino lehen. Kitatuz

gero, ez dira aplikatuko komunikatutako baldintza berriak. Horrelakoetan, kontratu hau suntsituko da berehala eta titularrari kosturik eragin gabe. Hala ere, titularraren betebeharra izango da egun horretan dagoen zorraren zenbatekoa itzultzea, ordaintzeke dauden komisio eta gastuekin batera.

## 18. UKO EGITEKO ESKUBIDEA.

Kontsumorako Kredituen Kontratuen Legeko (16/2011 Legea, 2011ko ekainaren 24koa) 28. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hamalau (14) egun naturaleko epea izango duzu, kontratu hau sinatzen den unetik, kontratu honi uko egiteko, arrazoia adierazi beharrik gabe eta penalizaziorik gabe.

Titularrak, uko egiteko bere eskubidea erabiltzeko, hau egin beharko du:

a) Bankuari jakinarazi, 21. klausulan adierazitako helbidera hartu-agiria duen gutun ziurtatua bidalita. Epea errespetatu dela joko da, eta ondorioz uko egiteak eragina izango du, baldin jakinarazpena hamalau (14) egun naturaleko aipatu epea bukatu baino lehenago bidali bada.

b) Bankuari ordaindu bai kapitala, bai bankuak dirua eskuragarri jarri zuen egunetik titularrak kapitala itzuli zuen egunera bitarteko epean erabilitako kapitalaren gainean metatutako interesa, berandutze desegokirik gabe, bankuari uko egitearen jakinarazpena bidali eta hogeita hamar (30) egunera gehienez.

Zor diren interesak, baldintza partikularretan hitzartutako zordun tasaren gainean kalkulatu dira. Uko egitearen kasuan, bankuak ez du eskubiderik izango titularrari beste kont-pentsaziorik

errekamatzeko, salbu eta bankuak Administrazio publikoari ordaindutako itzuli ezinezko gastuengatik konpentsazioa.

## 19. BLOKEATZEA ETA AURREZ SUNTSIARAZTEA.

Bankuak txartela blokeatu ahalko du, eta kontratu hau aldi baterako edo behin betiko eten, kasu hauetan: a) titularraren egoera pertsonalean, lanean, ekonomikoan edota ondarekoan aldaketa gertatu bada, eta bankuaren iritzira —Espainiako Bankuaren 5/2012 Zirkularreko 12. arauan ezarritakoari jarraituz— titularraren kaudimeneko edo ordainketa ahalmeneko inguruabarretan aldaketa nabarmena badakar; b) titularraren ordainketa betebeharretan ez-betetzeren bat gertatu bada; c) txartelaren erabilera baimendugabearen edo iruzurrezkoaren susmorik baldin bada. Blokeoa, ahal bada, gauzatu baino lehenago jakinaraziko da; eta ezin bada, gauzatu eta berehala.

Kontratua suntsiarazteko kausa izango dira aurreko paragrafoan ezarritakoak, bai eta kontratuan jasotako betebeharretak edozein ez betetzea, bereziki ondorengo betebeharrak hauek: 13. klausulan ezarritakoari jarraituz ordaintzekoak; 6. klausulan xedatuta dauden bermeko eta funtsen iraupeneko betekizunak betetzekoak; eta kontratu harremanaren hasieran bankuak ezarri dituen arriskua estaltzeko kaudimen mailak mantentze aldera titularrak duen betebeharra.

## 20. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA.

1. Datu Pertsonalak Babesteko 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Or-

ganikoko 5. artikuluan ezarritakoari jarraituz, kontratu honen sinatzaileei jakinarazi zaie eta berriaz onartzen dute kontratu honetan emandako datu pertsonalak, eta kontratuaren ondorioz nahiz alderdien artean ezarritako harremanaren ondorioz lortutako datu pertsonalak ere —telefono mugikorra eta helbide elektronikoa barne— Triodos Bank NV S.E. ren ardurapeko fitxategietara sartuko direla. Fitxategi horiek behar bezala erregistratuta daude Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren Datuak Babesteko Erregistro Nagusian. Triodos Bank NV S.E.k bermatzen du fitxategien trataeran jarraituko direla datu pertsonalak babesteari buruz indarrean den araudian (egun, 1999ko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa eta 2007ko abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretua) ezarritako preskripzioak.

2. Titularrak berriazko baimena ematen dio Triodos Bank N.V. SE konpainiari, eskaera honekin emandako datuak eta bankuak duen beste edozein erabil dituzan; eta bere kreditu aurrekariet buruzko informazioa eska dezan, kreditu eskaera aztertzeko helburuarekin eta, hala behar izanez gero, etorkizunean kreditua edo haren mugak aldatzea kudeatzeko. Informazio horren jatorria edozein pertsona edo erakunde izan daiteke, publikoa nahiz pribatua, egokia baldin bada; zehazki, informazio hori eskatu ahalko dio Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazioko Zentralari eta ASNEF/Equifax, Experian, Badexcug, RAI informazio zerbitzuei, edo etorkizunean izan daitezkeen antzekoei. Titularrak berriaz onartzen du edozein komunikazio egitea, datuak tratatzea edo ondare kaudimenari buruzko eta kreditu arriskua kudeatzeko fitxategi horiei datuak lagatzea. Berriaz informatuta dago kontratu betebeharrak ez betetzeak Trio-

dos Bank NV SE konpainiarekin egindako zorra deklaratzeko ekar dezakeela.

3. Eskaera onartzen bada, titularrak eta gainerako sinatzaileek beren baimen ageria ematen dute, beren datu pertsonal ondoz ondo helburu hauetarako trata daitezten:

- a) Eskatu dituen bankuaren produktu edo zerbitzuak kontratatzeko izapideak kudeatzea.
- b) Banku txartelak jaulkitzea eta 4B, Servired edo etorkizunean agertzen diren beste txartel programak harpidetzeko kontratuak.
- c) Edozein bitarteko (telefonozko elkarrizketak grabatzea barne) erabiltzeko eskatutako eragiketarako gauzatzea.
- d) Bezeroaren transakzioen barne operatiba.
- e) Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, identifikatzeko mekanismoak eta bezeroen gakoaren sistemak kudeatzea, eta bankuaren eta bezeroaren arteko harremana mantentzea.
- f) Bere finantza jarduerari buruzko abisu edo alertak bidaltzea bere telefono mugikorrera, helbide elektronikora edo horiek bidaltzearen Triodos Bank NV SE bankuak etorkizunean hartzen duen beste edozein komunikazio bidetara.

4. Era berean, Triodos Bank NV SE bankuari berariazko baimena ematen zaio ondorengo hauek egin ditzan: a) Bildutako datuak merkataritza, finantza, eragiketa eta estatistika helburuarekin tratatu; arrisku balioztapenak egin, bai eta datuak atera, biltegiratu eta marketin azterketak egin, merkataritza eskaintzak bezeroaren profil berezira egokitzearen eta merkataritza komunikazio elektronikokoak bidaltzearen. b) Merkataritza prospekzioa egin eta automatikoak diren nahiz ez diren sistemak erabili, bezeroaren datuen eta datu estatistikoen

bidez lortutako bezero profila jaulkitzea dakartenak. c) Bankuak eskaintako produktu eta zerbitzuei buruzko eta Triodos Taldeko erakundeen (finantza, gizarte, kultura eta ingurumen arlokoak guztiak; bereziki, Triodos Fundazioa) produktu eta zerbitzuei buruzko publizitatea eta informazioa bidaltzea, edozein bide erabiliz. Titularrak eta sinatzaileek berariaz baimentzen dute informazio hau posta elektronikoz, telefono mugikorrak, Informazio Gizarteko Zerbitzuen 34/2002 Legeko 21. artikulua ondoz ondoetarako baliokide den komunikazio elektronikoko beste bide batez edo beste kanal batzuek bidali ahal izatea.

Titularrak ez badu nahi bere datuak aurreko helburu horiekin tratatzea edo lagatzea, baldintza partikularretan ezarritako laukia markatu beharko du.

Orobat, aipatu helbururako bere baimena edonoz ezeztatu ahalko du, bankuari jakinarazita, [info@triodos.es](mailto:info@triodos.es) helbidera mezu elektronikoa bidaliz edo 902 360 940 nahiz 91 640 46 84 telefonora deituz.

5. Titularrari jakinarazten zaio bankua legez behartuta dagoela Espainiako Bankuaren Arriskuen Informazioko Zentralari (CIRBE) jakinaraztera bankuak zuzenean nahiz zeharka kreditu arriskuak dituen pertsonak identifikatzeko beharrezko datuak; bereziki, zenbatekoari eta berreskuragarritasunari dagozkionak barne direlarik. Datu horien artean sartuko dira bankuaren aurrean dituzten betebeharrak ez betetzearen egoera bat islatzen dutenak, bai eta bankua kreditu arriskua estaltzeko berariazko zuzkidura bat jartzera behartuta dagoen egoera bat agerian uzten dutenak ere, bankuari aplikatzekoak zaizkion kontabilitate arauetan ezarritakoari jarraituz. Era berean, kontratu honetatik ondoriozta-

tutako ordainketa betebeharrak bete ezean, sortutako zorra ondare kaudime-neko fitxategiei komunikatu ahalko die bankuak, datu pertsonalak babesteko araudian horretarako ezarritako betebeharrak bete eta gero. Era berean, jakinarazten da Triodos Bank NV S.E.k eta transakzioa egiteko datuak ematen zaizkien ordainketa zerbitzuen gainerako hornitzaileek —bai eta ordainketa sistemek eurek eta erlazioatutako zerbitzu teknologikoen hornitzaileek ere—, koka-tuta dauden Estatuan edo Estatu horrek egindako hitzarmenen eraginez, betebeharrak hau izan dezaketela: transakzioari buruzko informazioa ematea, Europar Batasunaren barruan nahiz kanpoan dauden beste herrialde batzuetako agintariei edo erakunde ofizialei. Betebehar hori, Estatu horretako legediak edo Estatu horrek egindako hitzarmenek ezartzen dute, terrorismoaren eta antolatutako delinkuentzia forma larrien finantzaketaren aurka borrokatzearen, eta kapitalak zuritzea prebenitzearen.

6. Titularrek eta sinatzaileek, idatziz edo telefonozko gakoekin, Triodos Bank NV S.E.ri jakinarazi beharko diote beren datu pertsonaletan izandako aldaketa oro, gertatzen diren bezain laster, datu horiek eguneratuta mantentzearen. Triodos Bank NV S.E. ez da sinatzaileek datu horiek eguneratzean izandako prestasun ezaren ondorioen erantzule izango.

7. Datuen kalitatearen printzipioa betetzeko asmoz, Triodos Bank NV S.E. hamar (10) urteko epean mantenduko du emandako informazioa, aipaturiko helburuetarako, bezeroarekin sinatutako azken kontratua edo negozio harremana suntsiarazten eta amaitzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori igaro ondoren, datuak birrindu egingo dira, eta datuen

isilpekotasuna bermatuko da, haiek tratatzean nahiz gerora birrintzean.

8. Titularrak edo sinatzaileetako edozeinek, aplikagarri den legediari jarraituz, bere datuak eskuratzeko, aurkaratzeko, zuzentzeko edo ezeztatzeko eskubi-deak baliatu nahi baditu, fitxategiaren arduradunarengana (Triodos Bank NV Espainiako Sukurtsala) jo ahalko du, helbide honetara: C/ José Echegaray, 5. Parque Empresarial Las Rozas, 28232 Las Rozas, Madrid. Idazkiarekin batera, bere NANaren edo indarrean den antzeko dokumentu baten kopia bidali beharko du.

## 21. KOMUNIKAZIOAK ETA JAKINARAZPENAK.

Alderdiek elkarri egin beharreko komunikazio guztiak, honela egingo ditu titularrak: i) helbide honetara idatziz: Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, Las Rozas de Madrid, 28232 Madrid; ii) telefonoz, ondorengo zenbaki hauetako edozeinetara deituta: 916404684 edo 902360940. Eta bankuak honela egingo ditu: titularrak emandako bizilekuko edota posta elektronikoko helbidera, bai eta titularrak banketxearen webgunean ([www.triodos.es](http://www.triodos.es)) duen postontzi pertsonalera ere.

Kontratu honen baliozkotasunaren ondorioetarako, egoki suertatzen diren jakinarazpen, errekerimendu eta eginbideetarako, alderdiek baliozko helbidetat adierazten dituzte titularrarekin sinatutako baldintza partikularretan bakoitzarentzat ageri direnak. Bereziki, titularrak berariazko baimena ematen dio bankuari, jakinarazpen horiek egin ditzan bide fidagarri, auditagarri eta erakunde jakinarazletik independente



bat erabiliz, edo bide ziurtatuz, dela paperezko postaz, dela posta elektronikoz, kontratu honetan adierazitako bizilekura, helbide elektronikora edo telefono mugikorreko zenbakira.

## 22. KREDITUA LAGATZEA.

Titularrak berariaz ahalmena ematen dio bankuari, kontratu honetatik ondorioztatutako kreditua hirugarren bati lagatzeko. Hirugarren horrek bere gain hartuko du titularrarekiko hartzekodun posizioa. Lagatze horretan, bete beharrekoa izango da Merkataritza Kodeko 347. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, eta Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoan eta hura garatzeko arauetan ezarritakoa, titularrari lagapena komunikatzeari dagokionez.

## 23. LEGE APLIKAGARRIA ETA JURISDIKZIOA NAHIZ ESKUMENA.

Kontratu hau Espainiako legeek arautuko dute, eta alderdiek men egiten diete legedi aplikagarriari jarraituz dagozkien epaitegi eta auzitegiei.

## 24. KONTRATAZIOAREN BALDINTZA OROKORRAK.

Alderdiak bat datoz kontratu honetan jasotako aurreko baldintzak —berariaz baldintza partikularizat kalifikatuak izan ezik— kontratazioaren baldintza orokortzat hartu behar direla, Kontratazio Baldintza Orokorrei buruzko 1998ko apirilaren 13ko 7/1998 Legean adierazitako ondorioetarako. Baldintza horiek kontratu honen barrukotzat hartzen dira, titularrak eta —halakorik bada— onuradunek berariaz ulertu eta onartu dituzte-

lako, atxikiak diren aldetik; aldez aurretik horiek badirela berariaz jakinarazi die bankuak, hartaratzailleak diren aldetik.

## 25. BEZEROARENTZAKO ARRETA ZERBITZUA. KEXAK ETA ERREKLAMAZIOAK.

Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzua, eta hari dagokio bankuaren bezeroen kexa eta erreklamazioei irtenbidea ematea, gehienez ere hilabete batean. Bezeroak zerbitzu horri aurkeztu beharko dizkio bere kexa eta erreklamazioak, Espainiako Bankuaren Merkatu Jokabideko eta Erreklamazioetako Sailean erreklamazioa aurkeztu baino lehen.

Bankuak badu Bezeroarentzako Arreta Zerbitzuaren arautegi bat, eta haren helburua da bai zerbitzua, bai kexa nahiz erreklamazioak aurkeztu, artatu eta ebazteko modua arautzea. Araudi hori eskuragarri dute bezeroek bankuaren webgunean eta bulego guztietan. Kexa eta erreklamazioak idatziz aurkeztu behar dira, bide hauetatik: bankuaren bulegoetan; helbide egokira (Triodos Bank N.V., S.E., C/ José Echegaray, 5, 28232 Las Rozas, Madrid) papereko posta bidalita; edo reclamaciones@triodos.es helbide elektronikora bidalita.

## 26. KAPITAL ZURITZEAREN PREBENTZIOAREN ARAUDIA.

Bezeroari jakinarazi zaizkio erakundeari dagozkion betebeharrak, kapital zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen arloan indarrean den arudiari dagokionez (bezeroa identifikatzea, eta benetako titulartasuna, jarduera ekonomikoa eta diruen jatorria jakitea direla eta), bai eta negozio harremana ezagutzeari eta eten-

gabe jarraitzeari dagokionez beharrezko prestasuneko neurriak aplikatu beharra ere.

Horrenbestez, bezeroa behartuta dago bankuari aurreko betebeharrak betetze-tik ondorioztatzen diren informazio eta dokumentazio oro ematera. Eskakizun horiek ez betetzeak berekin ekar dezake bezeroarekiko negozio harremana suntsiaraztea, bai eta, hala egokituz gero, agindu jakin batzuk ez gauzatzea ere. Horri dagokionez, bezeroak onartzen ditu ondorengo betebeharrak, neurri eta baimen hauek, kapital zurtzearen arauditik ondorioztatuak:

a) Bezeroak onartzen du ezen, identifikazioari, benetako titulartasunari edo diruen jatorriari buruzko dokumentu eskakizunei behar bezala erantzuten ez badie, edo bezeroak egindako eragiketetatik eratorrita zurritze araudiari lotutako arriskuak nabari badira, bankuak haren kontuen eragiketak blokeatu ahalko dituela, eta kontratatuta dituen produktu kontratuak ezeztatu ahalko dituela.

b) Triodos Bank NV SE bankuak bezeroaren berariazko baimena du, edozein erakunde publiko nahiz pribaturi bezeroaren jarduerari edo nortasunari buruzko informazioa eskatzeko.

c) Bezeroak bere gain hartzen du, bankuak hala eskatuz gero, bizi fedea edo antzeko dokumentua aurkezteko betebeharra, edo bankuaren bulegoetako batean aurkeztekoa, bere nortasuna eta bizirik dagoela baieztatzearen.

# // Leranskina

## Cuenta Plan

1.- Oraingo kontratuko arrazioa hasiera da euskarria Bank Triodoek merkatutatutako sistema indibidualaren Pentsio-Planaren kontratazioari ematera zuzendutako kontuko (hemendik aurrera izena emanda Cuenta Plan) titularragatik. Plana Kontuak NV Bank doitu du oraingo kontratuan ezarritakoagatik eta Triodoak Kontratu Osoan, S.E.. Plana kontua NV Bank Triodos-eko kontu korrontearekin elkartuta egongo da, S.E., erlazionatutako operazioak jasoko dituela Pentsio-Planarekin.

2.- Cuenta Plan izan dezake coincidir-a Pentsio-Planaren kontratazioa ordenatzen duenarekin zor izango duen titularra soilik (hemendik aurrera erkidea). Erkideak eskatu ahal izango du Entitate Kudeatzaileak eta Hartzaileak Planeko kide izateko, baita ere egindako bererako ekarpenen certifi-caciones egokiak igor ditzatela.

Indarreko legeriaren arabera, hirugarren desberdinak titularreko egin ahal dezaten Planerako ekarpenak, titularrak NV Bank Triodos i komunikatzea beharrezkoa izango da, S.E., esanda identitatea hirugarren eta pentsio planetarako ekarpenak erkidearen kontura egiteko lege betekizunak betetzea akredita dezan.

Titularrak NV Bank komunikatu behar izango die Triodos i, S.E., identitatea eta

Pentsio-Planaren (onuradunen) pres-tazioak jasotzeko, baita ere onuradun-izendapenean gertatzen den edozein aldaketa komunikatzeko izendatutako hirugarren haien eskatutako izanda dokumentazioa. Onuradunen identitatea espresuki ez komunikatzekotan, izango da oinordekoak halako bezala titularreko zintzo hartuta.

Titularrak NV,S.E Bank erantzungo du Triodos aurrean., oraingo kontratuan esleitutako datuen egitasuneko eta guztiak beraren iraunaldian zehar eman ditzaneko.

Triodoak NV,S.E Bank., gertatzen da kontu guztiak kontuko titularren eta apor-tantes-en artean, baita ere titularren eta entitate kudeatzaileen artean agertu ahal daitezenekin, sustatzailearekin eta Pentsio-Planeko depositaria-rekin zerikusirik gabekoa.

3.- Titularrak kanaletako edozein erabili ahal izango du NV Bank bere antola-mendura Triodos-egatik jarrita, S.E., Pentsio-Planaren kontratazioa egiteko baita ere ekarpenak egiteko sendotutako eskubideak eta ekonomia-eskubideak nabaritzeko, Bank Triodoek ezarritako baldintzekin ados NV,S.E. aipaturiko ka-nalen erabilerarako eta indarreko arau-diaren arabera. Titularrak dokumentu guztiak Triodos-ek NV,S.E Bank hartarako ezar ditzatenak izenpetu

1.- Oraingo kontratuko arrazoa hasiera da euskarria Bank Triodoek merkaturatutako sistema indibidualaren Pentsio-Planaren kontratazioari ematera zuzendutako kontuko (hemendik aurrera izena emanda Cuenta Plan) titularragatik. Plana Kontuak NV Bank doitu du oraingo kontratuan ezarrirako egatik eta Triodoak Kontratu Osoan, S.E.. Plana kontua NV Bank Triodos-eko kontu korrontearekin elkartuta egongo da, S.E., erlazionatutako operazioak jasoko dituela Pentsio-Planarekin.

2.- Cuenta Plan izan dezake coincidir-a Pentsio-Planaren kontratazioa ordenatzen duenarekin zor izango duen titularra soilik (hemendik aurrera erkidea). Erkideak eskatu ahal izango du Entitate Kudeatzaileak eta Hartzaileak Planeko kide izateko, baita ere egindako bererako ekarpenen certifikaciones egokiak igor ditzatela.

Indarreko legeriaren arabera, hirugarren desberdinak titularreko egin ahal dezaten Planerako ekarpenak, titularrak NV Bank Triodos i komunikatzea beharrezkoa izango da, S.E., esanda identitatea hirugarren eta pentsio planetarako ekarpenak erkidearen kontura egiteko lege betekizunak betetzea akredita dezan.

Titularrak NV Bank komunikatu behar izango die Triodos i, S.E., identitatea eta Pentsio-Planaren (onuradunen) presatazioak jasotzeko, baita ere onuradunizendapenean gertatzen den edozein aldaketa komunikatzeko izendatutako hirugarren haien eskatutako izanda dokumentazioa. Onuradunen identitatea espresuki ez komunikatzekotan, izango da oinordekoak halako bezala titularreko zintzo hartuta.

Titularrak NV,S.E Bank erantzungo du Triodos aurrean., oraingo kontratuan esleitutako datuen egitasuneko eta guztiak beraren iraunaldian zehar eman ditzaneko.

Triodoak NV,S.E Bank., gertatzen da kontu guztiak kontuko titularraren eta aporantes-en artean, baita ere titularraren eta entitate kudeatzaileen artean agertu ahal daitezenekin, sustatzailearekin eta Pentsio-Planeko depositaria-rekin zerikusirik gabekoa.

3.- Titularrak kanaletako edozein erabili ahal izango du NV Bank bere antolamendura Triodos-egatik jarrita, S.E., Pentsio-Planaren kontratazioa egiteko baita ere ekarpenak egiteko sendotutako eskubideak eta ekonomia-eskubideak nabaritzeko, Bank Triodoek ezarrirako baldintzekin ados NV,S.E. aipaturiko kanalen erabilerarako eta indarreko araudiaren arabera. Titularrak dokumentu guztiak Triodos-ek NV,S.E Bank hartarako ezar ditzatenak izenpetu behar izango ditu, hartarako., eta entitate kudeatzaileak, sustatzaileak eta Planeko eta Pentsio-Funtseko hartzaileak.

Ekarpenaren edozein aginduren egiterako, kontu-titularra edo bere kasuan behar bezala identifikatutako aporantes-ek eskudiru libre eta nahikoko hornidura egokia eduki behar izango dute Plana bere Kontua lotuta dagoen kontu korrontean. Titularrak ezagutzen duela aitortzen du pentsio-planetarako urteroko ekarpenak araudiagatik mugatuta daudela, titularrak Pentsio-Planerako ekarpenean gertatu ahal izan den edozein gehiegikeria komunikatu behar izango duen.

Pentsio-Plan espezifikokoarekiko erlazio-natutako eraginkor guztiak errespetatu

behar izango ditu bere nor bere espezifikazioak eta zeinetan bere amaierak betetzeko bertako daitezten Pentsio-Funtsaren funtzionamendu arauak.

ahal izan zieten berari dagokionez beste mutur batzuen egoeraren gaineko informazioan, ezarritako aldizkakotasunarekin gutxienez.

Titularrak aitortzen du eta espresuki onartzen du Triodoak NV,S.E Bank., gordetzen du, ez tramitatzeke eta/edo zeini buruz titularrak lehenago esandako eskudiru-hornidura eduki ez dezan agindu haiek egiteko eskubidea.

4.- Titularrak ezagutzen duela aitortzen du espresuki emandako kantitateak eta Pentsio-Planean sortutako aurrezkiak bakarrik zuzenduko direla Pentsio-Planaren espezifikazioak eta araudi aplikagarria ezarri ahala gertakizunak estaltzera. Beraz, aipaturiko kantitateak eraginkor egin ahal izango dira soilik eta, beraz, Plana Kontuko kontratuaren indargabetzea eta errekupeazioa edo sendotutako eskubideetako eta Erkidearen Pentsio-Planeko ekonomia-eskubideetako mobilizazioa eragin noiz gertaera produzi dadin prestazioa eragin dezala, likidotasuneko, edo beste Pentsio-Plan batean bere integratzearen efektu eskusiboetara, araudi aplikagarriaren arabera, salbuespenezko suposizioetan.

Titularrak ere ezagutzen duela aitortzen du atzera egite-eskubidea Pentsio-Plan-kontratazioari aplikatzeko modukoa ez dela.

5.- Pentsio-Funts bakoitzaren Entitate Kudeatzaileak, emango dizkie erkideei eta urtero Pentsio-Planen onuradunei urte natural bakoitzean egindako ekarpenen egiaztapena eta balioa, sendotutako bere eskubideetako baita ere beharrezko informazio fiskaleko, beraren amaieran. Bidaliko dute ere, indarreko araudian, bilakaeraren eta Planeko bere ekonomia-eskubideen, baita ere eragin

